

HITZAURREA

Utopiaren gaurkotasunean, itxura guztien kontra sinetsiz, Charrittonek euskaraturik eskaintzen digun Tomas Mororen Utopia, atentzioa deitzen digun obra horietakoa dugu dudarik gabe: pertsonaiarengatik; obragatik beragatik eta honek mendeetan zehar izan duen eraginagatik; bera izan baita aro modernoak gehienbat kontuan izan duen elkartasunezko gizarte-eredu idealaren hornitzailea.

Goazen, beraz, gaingiroki bada ere, pertsona eta obra hain ospetsuen omenez zerbait esatera, bide batez horien ulermenaren errazteko asmoarekin.

Pertsonaia bere giroan

Tomas Moro 1477 (edo 1478) urtean jaio zen. Legegizon ospetsua izan eta kargu politiko gorenak eskuratu ondoren, bere errege Enrike VIII.aren estatu-arrazoiaren aurrean bere printzipioen aurka burua ez makurtzearen heriotza-zigorra ezarri zioten eta 1535eko uztailaren 6an bizitza utzi zuen borroaren eskuetan.

Morok bere Utopia argitaratu zuen urtea (1516) izan zen, halaber, Erasmo bere adiskide minak Testamentu Berria Novum Instrumentum izenarekin argitaratu zueneko urte bera. Izan ere, Errenazimentuaren aurreneki hartan, bai bata eta bai bestea Europako mendebaldean indarrean zegoen jarrera sutsuaren eta ikerketa lehiatsuen adierazgarriak ziren. Garaikide askok eta askok parte hartzen zuten giro hark, espirituak gizarte berri baten desioan iziotzen zituen.

Mororen Utopia, mugimendu aparta horren fruitua dugu. Eta hau jakitea ezinbestekoa da, obra horri sorrera eman izan dion asmoa irekitzen baitugu, zeina gabe alferrik ahaleginduko baikinake berorren partikularitasunak interpretatzeko gakoa bilatzen, hala nola horren arnasa profetikoa, esoterismoa eta ironia ez ezik, azaltzen duen umorea ere. Garaikideak bertan beren pentsaera errekonozitzera eramane sentitu badira, horrexegatik da: orduko espiritu-egoeraren ordezkari nagusienetako bat bera delako.

Benetan, obraren originaltasuna izugarria da, haize-bolada berriztatzaile ahaltsuaren antzera mugak hausten dituen espirituaren ezaugarri. Bertan, Moro iraganaren zein etorkizunaren mugan egonik, kateak hausteko bere buruarekin borrokan ari den espirituaren lekuko dugu. Espiritu horrek berba eragin zion, eta garai berrien profeta bailitzan hitz egin ere, askok entzuteko moduan, garaikideek bezala geroagokoek ere. Orduan ulertu ere ulertzen da nolatan, baldin espiritu muga-hausleak egiten badu hitz haren ahotik, Mororen mezua gudanaino hel daitekeen urteen muga gaindituta eta zirrara egitera ere iristen zaigun. Bestalde, are sakonago uki dezake Morok XX. mendeko irakurlea, honi, garaian garaiko espirituaren borrokan parte hartzen duelako Utopia hurbilagotik irakurtzea suertatzen bazaio. Zeren, Moro ondoren uler dezakeena ez baita bere garaikidea, bere gudukidea baizik.

Horrexegatik, garaiak ezin badezake ere jeinua bere berezitasunean esplikatuz, bai ordea giroaz jabetzeak lagun diezaguke berorregana hurbiltzen. Tomas Moro jeinu horien artekoa da dudarik gabe. Orduan, garaiko baldintzez gaindi, lagungarri zaigu, halaber, pertsonaiaren bizitza konkretua markatu duten zenbait esperientzia kontuan izatea: bertan xurgaturiko argi-izpiak bizitzaren eta inguruaren argigarri, gero sorta mardulen ikusiko ditugulako haren obran zehar, frantses bidea bailitzan gauaren erdian ibiltariak gidatzen. Esperientzia horietara garamatzate dakizkigun zenbait gauzak, esaterako: San Agustinen Jainko Hiriarekin gazte-gaztetandik zeukan etxekotasunak –jende helduak

ere oso gustura aditzen omen zizkion obrari buruz eman ohi zituen azalpenak--.

Bestelako esperientzia sakonik susma dezakegu, esaterako Londreseko kartuxan lau urtez edukitako egoitzaren inguruan. Hango barne-bizitzan parte hartzeko aukerak, zuzenbideko profesionalaren eginbeharrak kanpoan bete eta gero, erakutsiko zizkiola – pentsa dezakegu-- zenbait gauza eta iradoki hainbat gehiago, bai monjeen bizimoduari buruz, bai bizitza-eredu horri gizartean dagokion funtzioaren inguruan; erraz topa baitaiteke esperientzia zein gogoeta horien aztarnarik Mororen orrietan.

“Utopia”-ren goi-beheak

Mororen inguruko belaunaldien etorkizun-sentipenean parte hartuta, eta Kristobal Kolonek ber-bertan egindako “mundu berria”ren aurkikuntzak sorturiko harridura eta gogo berotan suturik, Morok zein Erasmo, bere adiskideak, kultur baldintza berrietara moldatzen proposatu zion bakoitzak bere buruari. Munduak dimentsio artean ezezagunak janztera zihoan, eta Morok Utopia idatziz eta beronen planteamenduak moldiztegiaren bidez zabalduz, bere garaiko elkarte politikoen eskuetan tresneria guztiz berria jarri nahi izan zuen, une hartako egoera eta bizitza-ereduen kritikarako, zein berrien asmamenerako baliagarri. Horretara jotzen zuen Tomas Mororen Utopia-k, zalantzarik gabe.

Baina obra bera ez zen izan ekinaldi bat edo batzuen fruitua. Aldiz, eginbeharrek uzten zioten astia erabiliz, urteen buruan umotzera iritsi zen obra dugu. Atalka egina, eta atalak behin eta berriz artekatzuz, osoak izan behar zuen azken joskera lortu arte, marduldutako obra alegia. Eta erroak ikerketa luze-sakonetan ondo eransten dituen, hots: liburu hau, arazo politikoei buruzko liburu pila arakatu ondoren antolaturikoa da, herrien ohitura eta legeen inguruan beste hainbeste datu jaso eta gero burututako obra. Hala eta guztiz ere, nabari da materialak bata bestearen hurrengo jartze soil eklektikoarekin zerikusi gutxi daukala obra honek, zeren Morok bertan egin duen konposaketa bereziari berri-usaina baitario alde guztietatik, nahiz eta aurretik egindako materialen hustuketa harrigarriari zor izan daukan aparteko aberastasuna.

Obra guztian, hasiera-hasieratiko atalen bat badator, uste da hori izan zitekeela gainerakoen erdi-muin bezala jokatzera zihoan filosofia politikoari buruzko tratatu edo antzeko zerbait, idazkeraren aldetik irakasbide tankerakoa alegia. Gerora ordea, eta aurkikuntza geografikoek nonahi zabaldutako giroaren laguntzaz, muin horren jatorrizko itxura arinduz eta alaituz joango zen; eta azkenik inongo testuinguru literarioaren baitan hartuta, muin hori gogotik aberastu egingo zen, modan zeuden urrutietako lur eta ohituren oihartzunez bete, eta abenturazaleen kontakizunen erakarmena bereganatzera iritsiko zen. Hau guztia, ordea, hasierako helburutik batere alboratu gabe. Aitzitik, Morok artekatzuten dituen bezala, historia erreala eta fikzioak, ipuina eta diskurtsoak, analisia eta iragarpenak, asmo duen helmugara garamatzate artez edo partez. Horren ondorioz esan genezake Morok fantasiaren poderioz pintatzen digun Utopiak gizakiok barru-barrutik amesten dugunarekin kidetasun handia duela; baina hain dagoela urruti ezagutzen dugunetik ezen, erbesteko edozein ipuin baino harrigarriago baitirudi. Utopia, bihotzetik gertu eta begietatik urruti. Horrexegatik hain zuzen, fikzioa eta egungo errealitatea gurutzatzea ez doakio hain gaizki, eta fantasiaren sorkuntza izanagatik, gure premia gorriei erantzutera datorren neurrian, berrikuntzaren desioa eta grina suspertzen ditu.

Beraz, utopiaren izaera honi jarraikiz, Morok bere Utopia bi liburu nagusitan banatu izan du: lehena “distopia”-rena. Bertan eskaintzen digu Morok, soziologiari aurrea hartuz, bere garaiko mundu errearen analisia. Izan ere, beste ezer baino lehen, beharrezkoa zen irakurlea ohar zedin, berak bizi zuen gizartea, eta europar zibilizazio osoa zenbateraino zeuden gaitzak jota. Benetan, XV. mendean honako hau gertatzen ari zen: feudalismoak berekin zeramatzan elkartasun-hedeak eta segurtasun-mota desagertzean, nor bere segurtasuna bilatzea suertatu zen, jabetza pribatuaren absolututasuna oinarritzat harturik. Prozesu horren ondoriozko aldakuntza ekonomikoek, biztanleen artean ahulenak miseria gorrira zein lapurretara jaurtiki zituen. Era horretan, bere garaiko estatu erreala zerbait ustela agertzen zitzaion Morori, klase aberatsenak bere interesak babesteko, eta ez denonak, bereganaturiko botereari dagokion bezala. Hala iritsi zen Moro, momentuko krisialdi sozial ekonomiko eta finantzarioa ulertzeko, Utopiaren lehen partean eskaintzen dizkigun analisiak egitera, lehenbizikoz fenomeno sozio-ekonomiko modernoaren argibide garrantzizkoa emanez.

Halatsu, Utopia-ren lehen liburu osoan zehar, bere deskribapen, analisi eta guzti, funts-funtseko eztabaida baten haria etengabe hariltzen dihardu Morok, lau agerralditan banatu arren, konklusioa beti ere bera atereaz. Izan ere, konklusio bakar horren zirrara bitarteko, Moro lemazainak irakurlearen begiak, batere betikararik gabe, zuzentzen baititu Utopia irlarantz. Aipatu konklusio hori, hauxe da, esperientziatik behin eta berriz jasotakoa: benetako erreforma sozial eta politikoa burutu ezinezkoa dela, begi-bistan baitago boteredunek eta bere ingurukoek, beren interesen aurka doan edozein erreforma galbidera bultzatuko dutela, Platonek ondo asko zekien bezala. Eta argi dago, halaber, ohiko filosofia eskolastikoak ez daukala horretan ezer egiterik, boterearekiko duen menpekotasunagatik. Horregatik Moro, bestelako filosofia politikoa lantzen saiatzen da bere Utopia-ren bidez, zeinen egiteko nagusia gizaki eta gizartearen egoera erabat aldatzera daramakeen metodoa edo maieutika utopikoa asmatzen baita.

Platonen ildotik Moro ondo jabetua zegoen bere garaiko “politika erreallari” zerion ustelkeriaz, hala nola: horren ohiko metodoak erabiliz ezinezkotzat jotzen zuen nahi adinako aldakuntzarik suertatzea, asmo espansionista gutiziaz jositakoei uko egiten ez zitzaie bitartean. Aldiz, hauxe izango litzatekeela bakerako lehen urratsa; berau emanez bakarrik printze batek erakuts dezake boterea jakinduriarekin uztartzeko duen nahiaren zintzotasuna. Beraz, baldintza hau betetzea horixe da Moren Utopia-k errepublikan erakusten diguna lehenengo eta behin. Hori dela eta jarri diezaguke gero, egin behar liratekeen beste hainbeste gauzen ispilu gisa Utopia irla zoriontsua, gizakiak zein gizarteak beren izaera jatorra bertan ezagutu dezaten, eta miretsiz, horren gogoia bere baitan susper dezaten. Eta kontura daitezen, halaber, espirituaren ahalaz soilik eraiki daitekeen mundu berri hartan zer balore eta zer errealtate diren, zurtoinaren gisa, hura funtsa dezaketena. Hauexek dira, beraz, bigarren liburuaren luzera osoko joan-etorrietan Morok ehotzen diharduen ehun bizia, bere bilbe eta irazkinez bezala, biak ezinbestekoak.

Utopia-ren bigarren liburu honetan Morok, Platonengandik datorkion tradizioa luzatuz, jabetza pribatu kontrolik gabekoan jartzen du ia-ia gaitz guztien iturburua. Jatorrizko gaitz horri erantzuteko. Morok, irudikatzen duenaren bidez, ohartarazi egiten die garaikideei momentuan goraka zihoan elkarren arteko giro lehiatiaren inguruan; eta elkartasunaren azpiegituratzailerik gisa, estatuak guztion onurari begira, hobeto kontrolatutako ekonomi eredu bat jartzen die aurrean.

Tomas Moro, kristau eta humanista batera

Utopia kristau baten obra ez ezik, martiri baten obra ere bada, hots, ahalik eta sendoen sinetsitako fedearen, eta bere idazkietan hain egokiro espresatuko bere printzipio etiko-politikoaren lekuko izatearren, hil zen batena.

Moro San Agustinen irakurle

Jakin badakigu Tomas Morok gaztetandik San Agustinen Jainko Hiria gogoz irakurtzen zuela. Izan ere, Mororen ikuspegiak badu Agustinenarekin zerikusirik, biei baitatorkie Bibliatik etorri ere, batak zein besteak darabilten historia linealaren eskema nagusia. Eta hori baino garrantzitsuago den zerbait oraindik: haraindian gizakiak duen helmugak, baldintzatzen dituela bi kasuetan, honunzkaldeko bizitzaren balorapena, bertako arazoaren artean bizi denari ekintzaren nondik norakoa eta irizpideak emanez eta, era horretan, bizi izandakoaren behin betiko balio segurtatuz.

Halere, nabariak dira San Agustinekin, eta berorren beste interprete batzuekin Morok agertzen dituen desberdintasun sakonak. Ez baitzitzaion alferrik suertatu 1492. urtearen inguruan unibertsitate-ikasketak hasia. Izan ere, Agustinen garaian Antzinateko mundu zaharrak bere gainbeheraren unerik larrienean ziharduen bitartean, Mororen bizitzagaraian, XVI. mendeko gizadia mundu zabal berri eta ezezagunaren aurrean jarrita aurkitzen zen estreinako aldiz. Eta Morok giro horretan murgildurik, bertatik zetorkion harridura, lilura eta deia bereganatu zituen, erantzun bat ematera zeraman barne-eraginak. Baina Moro zein Agustin bakoitzaren egoerak desberdindu adina, batzen zituen biak zibilizazioaren krisi ikaragarri batek bizi-muinean ukitu izanak –IV. mendeko krisia eta XVI. mendekoa alegia–, bata zein bestea bizitzaren eta gertakarien aurrean jarrera berezia hartzera zeramatzala.

Halere, erantzun bakoitzaren jitea diferentea izango zen oso, bi krisien zeinu bereziari zegokionez. IV. mendeko krisiak mendebaldeko Erromako Inperio kristautuaren hondamena zeukan zergatizat eta berorren erortzea barbaroen eskuetan. XVI. mendean zehar, oster, gertatzera zihoana bestelakoa zen: “mundu berriko” jentil-herriek beren egoera naturaletik kristautasunera igarotzen jardungo zuten. Bi gertakizunok Probidentziaren asmoetan sinesten zutenentzat, esangura handia janzten duten horietakoak ziren, eta historiaren helmugarantz emandako bultzaldi harrigarritzat ikusi eta interpretatzea eskatzen zuten. Horrela egiterakoan, eta bazetorren mundu berriaren inguruan igarle-iragarlearen ahotsa entzun arazterakoan, ageri du Morok Agustin maisuaren aurrean zor zaion orijinaltasuna, eta bere pentsaerak lortu izan zuen heldutasun propioaren norainokoa, garai hartako gizadiaren kezka nagusiei erantzun bat eman nahi izan zienean.

San Agustinek, Erromako Inperioaren erorialdian, hondamendia kristauei egozten zieten salaketei aurre egin ondoren, iragartzen ihardun zuen: nolatan, Erromako Inperioaren idealak, behin espiritualizatuz gero, jasotzera zihoan eliza erromatarrek, eta nola bere txanda historian etortzear zegoen. Eta horretarako, historia nahas-mahas baina kontrakarrean diharduten bi indar nagusiak, onerako zein txarrerako deskribatu ondoren, beraiei dagokien bi poloen arteko oposizioa azpimarratzen zihoan: bi hiriak, lurterra eta zerutarra. Gauzak hala ikusiz gero, haxe gertatzen zen, ez zela batere harritzekoa Erromako jentil-estatua amildegian behera aurkitzea, eta gertakari hain larriek ezkututzen zuten zentzu positiboa ere, neke handirik gabe, bistan jar zitekeela. Hau da: hiri lurterra errauts bihurtzen dela ikustean, ez dago zertan pentsatu, harekin batera gizadiak etorkizun bakartzat duen hiri zerutarra suntsitzen denik. Alderantziz, bai, are garbiago ikus dezakegu honako hau: erromatarrek beretzat gorde nahi izan zuten

betikotasuna, ez dagokiona inongo mundutar estatuari; zeren ondorioz, jakin, badakigu aurrerantzean nola jokatu munduko arazoetan, iraungo duen eraikuntzan parte hartu, eta betiraun guztian zutik diraukeen hirian hiritar izatea nahi badugu.

Baina bi hirien doktrina agustindarrak izango zuen urteetan zehar bestelako luzapenik eta ondorioz, filosofia politikoan batez ere, “agustinismo politiko” deituaren itxura hartu zuenean propio. Zeren, munduan zerutar hiriaren eskubidea adierazteko dagoen elizaren jardunbide teokratikoa onartzen baitzen, edo konketuago esatearren, elizgizonen zuzeneko esku hartzea lurtar arazoetan, goi Erdi Aroan batez ere gertatu zen bezala.

Moro “agustinismo politikoaren” aurkako

1942. urtea aipatu dugu. Bada Errenazimentuko aita santuen egitez, tankera horretako agustinismoak bultzatutako nahasmendua desagertu ez, baina gero eta anakronikoago gertatzera zihoan; europar politikan, bere buruaren kontrako suertatuko ziren jokabide trakets desagokiekin parte hartzen baitzuten. Eta hortik kanpora, hainbeste jende errugabea kaltetu izanaren erantzukizuna ere badu bere gain ideologia horrek; batez ere, bere adarrak aurkitutako lur berrietaraino hedatu zirenean eta konkistaren ondorioak finkatzeko, eta biztanleria autoktonoa legez esklabo bihurtu eta esplotatzeko erabilia izan zenean. Izan ere, San Pedoren bitartez Jainkoagandik harturiko aginpide nagusiaren izenean, herrialde haietako jendeak meneratu ahal izateko eta haien ondasun guztiak bereganatzeko eskubidea ematen zieten Erromako aita santuek, bai portugaldarrei bai espainiarrei (halaxe Alexandro VIak 1493an, Leon X.ak 1516an eta Paulo III.ak 1534an, haien aurreko Nikolas V.ak 1454an portugaldarrei egindako emaitza berriztatuz). Konkista-eskubideen inguruan Espainian piztutako eztabaida zela eta, Erromako jurista eta teologo ofizialistek doktrina trakets hori indarberritzeko ahaleginak egiten zituzten; bitartean, hurbilagotik konkistaren esperientzia negargarriak ukitutako Las Casas eta Vitoria bezalako beste pentsalari batzuek doktrina horrekin haustea eskatzen zuten bezala, fedearen zein arrazoi etikoaren izenean.

Morok ere Utopian bezala bere bizitzan, indarrak neurtu behar izan zituen horrelako ideologia beldurgarriarekin eta bertatik berez darion kontzientziaren eskubidea zapaltzearekin ez ezik, honek ondorioztat dakartzan gizabanakoen zein herrien libertatea murriztu eta eskubide ezabaezinak eragoztearekin ere. Izan ere, Enrike VIII.ak, Erromako aita santuen prestigio-eza politiko eta espiritualaz baliatuz, norbera Ingalaterrako Elizaren buru aldarrikatu zuenean, fedearen eta estatu-arrazoiaren arteko nahaspila garbitu ez, baina gehiago korapilatzen zera. Harez gero, fedearen esana eta erregearen interes politikoa ez baitzegoen erdibanatzerik, horregatik, handik aurrera gogo-jabetasunak zigorra mereziko zuen, traizioaren lagun mina bailitzan.

Beraz, ez zegoen aukerarik handik aurrera, politika nolabait ukitzen zuten arazo guztietan, iritzi diferentekoak izateko fedearen zein kontzientziaren izenean. Beraz fedea eta menerapen politikoa elkarrekin behar zuten, Ameriketara bezala Ingalaterran ere. Hortaz, fedea ezin zezakeen aitzakiarik eman autonomiarako. Horrexegatik, ez da batere harrizkoa, Mororen Utopia-k, ohiko politikarekin soilik ez, kristau-dotrinaren interpretapenarekin –elizak gizartean bete behar lukeen funtzioaren inguruan alegia– zerikusi handia baldin badauka. Hau dela eta Morok, orijinaltasun osoz, bi hirien oposizio sistematiko agustindarra bazterturik, bertatik ondorioztatua izan den elizaren agintearekiko menerapen ideologikoa eta berorren esku-hartze politikoa ukatzen ditu; era horretan, agustinismo zorrotzetik aldendu egiten den humanista bipilaren prestutasuna agertzen digu eta erlijioa zein fedea kontzientziaren autonomiarekin

uztartzen irakasten digu, eta ez sasi-sakratu bihurtu den boterearen aurrean burua makurtzen.

Mororen obrak adierazi nahi digun bezala, lurtar eta zerutar hirien dialektika, morala da eta ez instituzionala edo Estatuaren eta Elizaren artekoa. Horregatik ezin du ezarri bigarrenaren lehentasunik, ezta lehendabizikoaren menpetasunik ere (eta are gutxiago alderantzizkoa).

Baina hori bai, gizabanakoak zein erakunde bietako bakoitzak ezarri beharko luke bere baitan dialektika hori: denak berdintsu baitaude Utopiaren legepean, eta ezinbesteko zaie elkarkide bezala, laguntza elkarri eskaintzea, gizartearen berregituratze-lanerako. elizak ezin du, beraz, politika mailan inongo botere-lehentasunik errebindikatu. Aitzitik, jabetza pribatuaren gutizia-arriskua behin betiko urundu duen berjabetasun politikodun estatuaren barruan, elizgizonek inolako aberastasun-desio eta botere-irrikaren kutsadurarik gabe, sekula baino hobeto bete ahal izango dute bere eginkizuna, hau da: zerutar hiriaren lekuko izan, eta gizartea benetako aurrerapen-bidean jar dezaketen elkartasunezko ekintza guztiak sustatu. Horregatik, bada, esan berri ditugun beste guztien azken funtsa den giza izaera transzendentea zaintzea hartuko du elizak bere ardura nagusitzat; eta gizabanakoaren gordailuan bakarrik aurki dezakegun bitxi hori, bere gordailu eta guzti, beste lurtar balore guztien gainetik –erakundeak barne-- jartzeko, egingo ditu ahalegin guztiak. Orduan, bai, babesturik geldituko direla, bakoitzak nahi ditugun duintasuna, libertatea eta autonomia, eta bide batez bermaturik, gizarteak Utopiarako bidean dituen dohain preziatuenak bezala. Guztiok biltzen gaituen giza izaera horrek bestalde, Jainkoarekin elkartzen gaitu, eta haraindian gizaki guztiekin erkide egiten; eta haiekiko anaitasun-harremanak ahalbidetzen dituen neurrian, horien arabera giza bizitza osoa moldatzera ere deitzen digu.

Utopia eta erlijioa

Mororen ustez, Utopiaren araberako gizarteari, ikusten denez, ezinbesteko zaio erlijioa, honek funtzio nagusi bat betetzen baitu bertantxe, hau da: subjektu arteko elkartasun-harremanak ahalbidetu ditzakeen oinarri ontologikoak agerian jartzea eta berorien eraginkortasuna segurtatzea. Hortaz, portaera etiko guztien finkatzaile nagusitzat hartu beharko litzateke erlijioa. Eta horregatik, halaber, aitortu behar da, giza sentipenak, ekintzak eta erakundeak gizatar ditzakeen bakarra benetan guztion arteko aipatu dimentsio transzendente hori dugula. Beraz, honen presentzia eraginkorrak gizartean iraun dezan ahuldu gabe, dogma zein kultuko eduki batzuk, oinarritzkoenak, onartzea ezinbestekoa izango da, gizarte-mota gehienetan aurkitzen ditugun bezala, aipatu funtzio horiek betetzen.

Arrazoi beragatik –nahiz eta gaitzetsi beharreko gauza bat baino gehiago topatu ahal han-hemenka-- berez utopiaren ikuspuntutik ez legoke funtsezko oposiziorik erlijio diferenteen artean, ezta jentiltasun eta kristautasunaren artean ere, funtsezko jarraitasuna baizik.

Honek kristauei, beste erlijioei buruz ikuskeraz aldatzera deitzen die Mororen ustez, horrelakoak lagunkide gisa onartuz, lagungarri baitzaizkio eta ez etsai: zinez, jendeak gero ebanjelioa bereganatu ahal dezan, prestakuntza ez ezik, bitarteko egokitze ere onar ditzakegu erlijioak. Ez dago, beraz, batere arrazoirik kristauek inongo kultura eta erlijioa suntsitzen jarduteko, are gutxiago indar armatuaren bidez, ustezko duten gorentasunak eskubidea eman izan balie bezala.

Aldiz, kristautasunaren gorentasun horrek Mororentzat egiazkoa izan arren, ezin baino hobeto bete dezake dagokion funtzioa tolerantzi giroan, kristau-fedearen izaera arrazoitsuaren poderioz eta sinestunen testigantza dela medio, egia adieraziz. Adibidez,

Jainko Semearen haragitzearen kristau-dogmak badu erakarmenik jendearen aurrean; eta erakarmen hori zor dio, hain zuzen, giza bizitzaren alderdi lurtarra haraindikoa erekin lotzeko duen ahalmenagatik; egiatan Jesukristorengandiko eredu eta deia baino mezu sarkorragorik apenas pentsa daitekeen, honunzkaldeko bizitzan parte hartu nahi duenarentzat, baldin bere goi-izaeraren arabera jokatu nahi badu eta laguntzaren bila badabil.

Ikusten denez, Mororen Utopia ez zaio kontrajartzen ohiko estatuari, aberatsen zerbitzuan guztion kalterako antolaturiko estatuari soilik. Halaber, elizaren ohiko jokabidea auziperatzera dator – pentsatzeko zien bizitzeko eta agintzeko era mundutarrari, neurriz kanpo, egokitu izanagatik--; horrela, ebanjelioaren mezua indargetu duen eliza sekulartuari dei egiteko ere eginda badago.

Benetan, Utopiak die profetikorik badu egiteko, elizak bere eginbideari hobeto egokituz, harreman berriak ezar ditzan, politika eta fedearen artean bezala, kultura zein erlijio diferenteetako jendearekiko, horrela mundu hobe baten esperantzari lagun diezaion.

Egia da Moro bere Utopiaren bidez, kristau-fedearen izaera, eta honen mezua aldarrikatzeko dagoen elizaren eginkizuna gizartean, berrinterpretatzen ari dela –ohiko ikuskera aldatuz--, humanismo giroko filosofia politiko berriztatuaren arabera.

“Utopia”-ren gaurkotasuna

Egia de “utopia” aipatzen denean, isilpean eduki ezineko zerbait funtsezkoa ukitzen dugula, hots: edozein eztabaida politiko-kontzeptuali muin-muineko zaion kategoria; gizartearentzat eta gizabanakoarentzat bizimodu egokia, justua, betekoa zein ote deneko gai nagusia. Beraz, horrelako galderak, gizartearen zein giza bizitza lurtarraren inguruan, “zentzua”-ren galdera barnematen duten horietakoak ditugu.

Begi-bistan dago gai honetan preseski, zenbat buru hainbat aburu egon daitezkeela, filosofia mailan zein politika-sailean, bakoitzak erabiltzen duen pentsaerarekin loturik. Esan nahi ote du honek, gai halakoa izanez gero, alferrik dela berorrentzat argi-izpirik itxarotea? Edo areago: ez al da arriskutsua gorpuztu ezineko ametsen atzetik, jendea limurtuz eramatea, eta horrela premiazko gauza egingarrietatik indarrak desbideratu eta, hutserako edo agian kalterako zein hondamendirako erabiltzea? Bestalde, egin al daiteke ezer merezi duenik, fantasia eragilearen zirikadarik gabe, giza desioari beti ere haruntzagotik dei egiten dion hori gabe, eta giza borondatearen ernagarri bihurtzen den irudipen liluragarririk gabe?

Marxismoaz geroztik, utopiaren inguruan dagoen arazo intelektuala argitara etorri da, eta gaur egun auzipean dago inoiz baino gehiago. Marxismoaren gorakada-aldian, Tomas Moro, Platonekin batera, mendebaldeko utopiaren eredua ezarri izanagatik goraiatua izan zen. Baina, aldi berean, bide batez, haren Utopiaren esanahia hertsiki mugatzera iritsi ziren marxistak: Tomas Moro, aitzindari bai, baina iraultza aurreko eta zientzia aurreko utopiaren ordezkari hartuta, gainditu beharreko aitzindari hartuta. Zeren, haren utopiaren forma literario hutsa izanik, haren ahalmen kritiko guztia irudimenezko formari eransten baitzaio, eta beronen eraginkortasun psikologikoari.

Egia da, halere, ezin dela Mororen emaitza beste edozein irudikeriarekin edo itxaropenaren edonolako espresio sinpleenarekin nahasi. Benetako utopiari dagokion partikularitasuna hauxe baita hain zuzen: giza bizitzaren helmuga, errepresio eta zapalkuntzarik gabeko etorkizunean finkatzea, alde batetik; bertara iristeko ezinbestekotzat jotzea dagoeneko gizarte-egoera zeharo aldatu beharra, hurrengo; eta goitik beherako aldakuntza hori, aurrez ondo planifikatutako egitarau bati jarraituz lortu nahi izatea, azkenik. Hala eta guztiz ere, marxismoaren ikuspegitik, horrelako utopiei gizarte-aldakuntzen kontzeptu errealista falta zaie –ez baitzuen garaiko jakintzak

baliabiderik eskaintzen horretarako--; eta horren ondorioz, utopia literarioek erromantizismo hutsera derrigorrean jo behar dutela pentsatzen zen, eta horregatik, askapenaren errealtatearen ordeztasuna eskaintzeagatik, huts egiten zigutela.

Horregatik, bada, marxisten ikuspuntutik, utopia onetsia gelditzen da, baldin eta berorren zartada kritikoa, marxismoak bere-berean duen planteamendu historiko-zientifikoak berreskuratzen badu, eta horrela utopia konkretu bihurtzen bada.

Horrelakoei pentsaera kontserbatzaile eta liberalak iharduki izan die –gaur egun sozialismo errealtatearen lur jotzeak izugarri indartzera datorrena-- hots: aipatu historiaren zientzia horri iruzurra dariola alde guztietatik, eta gezurretan ari izan zaizkigula, hitzen bidez, sasi-salbazio egitasmo horien funtsezko irrazionaltasuna zuritu nahian.

Gogoetaren aurrean irrazionaltasun hori agirian jartzen duena, ondo baino hobeto, zera izango litzateke: gizakiak haraindian jarrita daukan itxaropena planifikatu ezina, gaur sozialismo errealtatearen porrotak begien aurrean jartzen diguna, besterik ez sinesteko moduan. Gaur denen begi-bistan dago horrelako gauza bat egiteko erabili behar den bortizkeriak utopiari muin-muinean kontraesaten diola, amets guztiak hondatuz, eta jabetzen ari gara, halaber, gizakiak egin bakarrik ez, baina jasan egiten duela; eta honen ondorioz, hain zuzen, gizakiaren arrazoi mugatuak ezin dezakeela historiaren joaira menperatu teoria zientifikoaren bidez; bereziki, gure proiektu –nahiz onenen-- emaitzek gure aurreikusmen eta borondateari derrigor ihes egiten diotelako, eta ondorioz, gure esku ez dauden baldintzen eraginak jitoan garamatzalako, gu eta gure asmo eta ametsak.

Horregatik gaur berriz, gizakiek etorkizunean jarritako esperantzak, jantzi izan zuten erabateko sekularitasuna galtzen ari dira, eta antzinako faktore erlijiosoei berriz ere lekua egiten ari zaie. Bide batez, utopiaren kontzeptuak, giroan zabaldurik dagoen antiutopismoaren zingiratik burua atera dezake, distopiaren etsipenean ezingo dugu eta beti bizi. Oraingo honetan azpimarratuko dena, ez da gehiago izango laster batean iritsi beharreko eredu, baina bai utopi gogo eragilearen inguruan beste zenbati gauza: berorren oinarriak, zintzotasun-baldintzak eta puntuz puntuko xedeen zehaztabideak.

Eta hona hemen berriz non topo egiten dugun Tomas Moreoren Utopiaren gaurkotatasunarekin. Benetan, Moreoren Utopiak zerikusi gutxi dauka, alde batetik, fantasiaren mundurantz ihes egitearekin; eta bestetik, erakunde beteginak bertatik bertara ezarri nahi izatearekin daudenak desegin ondoren. Lehenengo eta behin, Moreoren Utopiaren helburu nagusia hau da: gizakiak utopismo txarren katarsia lortzea; eta horretarako, proposaturiko Utopia ereduaren erakarmena dela medio, lehenengo eta behin balore-dinamika bat sortzea, banakoaren baitan bezala subjektu artean ere, etorkizunaren bidean gizonok jar gaitzakeen bakarra; eta hurrengo, dinamika hori ondoko hiru indar nagusi hauetan finkatzea, zurtoinak bailiran banakoaren zorientasun-desioa, gizartearen aurrerapen-beharra, eta transzendentzia erlijiosoarekiko irekitasuna.

Morok egiten digun mundu utopikoaren deskribapena, bitarteko soil bezala ulertu behar dugu, irudiek ezkututzen diguten harunzkaldera abiatu gaitzen, beti ere zain dugun utopiarantz; eta ezinbesteko baldintzak ipintzearen ardura eskutik utzi gabe, itxaropena gurpil zoro bihurtu ez dadin. Hau da Moreoren kontakizunaren zeregina, ez baina bere eduki konkretuen jomuga bihurtzea.

Honela ulertuz gero, Utopiak adierazten digu, halaber, beste zerbait, hots, soinetik kendu ezinik daramagun utopi susmoaren oinarri ontologikoa non dagoen: betikotasunean erroterik daukagun, giza izaera transzendentea –erlijioa izanik horren espresabide nagusia--. Sustrai horretatik datorkigu beste gizonak erkide bezala pentsatu beharra, pertsonaren duintasuna zaindu beharra, ekintzan autonomia gorde beharra, oraingoa ez den mundua amets egin beharra, eta azkenik, utopiaren etorkizunak huts egingo ez digun itxaropena ere.

Beraz, Mororen Utopia “eskatologikoa” da, milenarismoan erori gabe ordea. Eskatologikoa, baina honunzkaldean eraginkorra: berak jartzen baitu gizakia lanean eta erakusten lan horren nondik norakoa. Berorren argitan gizakiak eta gizarte bakoitzak zehaztu ahal izango dituzte munduko egoera distopikoan, aldatzen joan daitezkeen aldatu beharrekoak; era horretan, mikro-utopien eremua ireki daiteke gure eskumenean dagoen bakarra bezala, utopia konkretatzen joateko. Hala eginez gero, errealitate osoa onbideratuko den berma, bi gauza hauetan datza: beti ere haruntzago deitzen gaituen aipaturiko goi-izaera hori, eta errealitate historikoa moldatzeko eman zaigun libertatea; bien arteko laguntzaz, utopiaren mundurantz pixkanaka bada ere, baina etengabe, hurbilduko garen esperantza sortzen digute, sortu ere.

Azkenik, esan behar da, harritzekoa ere badela Mororen Utopian erlijioak daukan presentzia indartsu eta bete; baina bide batez, apala, azken atalburura arte, behinik behin. Eta orduan ere, nahiz utopiaren sinkretismo erlijiosoak, kristau-ebanjelioa eduki azken jomuga bezala, Morok ez du onartuko sekula inolako teokraziarik. Aitzitik, zenbat eta gizarte utopiarra balore erlijiosoetan blaiago, are gehiago ihes egiten diete eskutik elizgizonei botere ekonomikoak zein politikoak. Horregatik zaio hain garrantzitsua Morori –bere gizarteari begira bai, baina edozein utopiaren egituraketa-baldintzak finkatu nahiz--, aginpide politiko zein erlijiosoaren eskubide-eginkizunak doitzea; bakoitzaren autonomiaren muga ezartzea eta bien arteko elkarkidegoa funtsatzea bide batez. Bi erakundeen arteko joko egokiari ezinbestekoz zeritzon Morok, gero pertsona bakoitzak gizartean eduki behar lukeen jokabidea ahalbidetu izateko, autonomia eta elkartasuna, biak uztartuz. Aipatua dugu honen guztiaren gertuko esanahia bere garaiko bizi-baldintza konkretuetan, are bere bizitzako une larrienekin zeukan zerikusia. Ondorioz, hobeto antzeman dezakegu Utopiak berekin zeraman arnasa kritikoa zenbaterainokoa zen, garaiko botere politikoaren zein elizakoaren aurrean Mororen jarrera printzipiozkoa ikusita.

Baina pertsonaren konpromiso historiko baliotsu horren egokitasunaren gainetik, badu Mororen jokaerak esangura unibertsalagorik. Izan ere, bi aginpide horien mugak zein erkidetza doitzen ahaleginduz, Morok gizarte-bizitza mehatxatzen duten hiru heriotza-arrisku aldendu nahi izan zituen gure artetik: bata, botere-bilatze soilarena, balore erlijioso eta etikoak baztertuz; bestea, teokrazia itxurako tirania politikoarena, balore absolutuei zor diegun menpekotasunaren aitzakiarekin; eta hirugarrena, gizakiaren duintasuna eta kontzientziaren berjabetasuna behar bezala funtsatu eta indartu ezagatik datorkeen tirani arriskua.

Xabier Andonegi

SERMONIS QVEM

RAFAEL HITLODEO¹ gizon guziz argiak, herri-eratze hoberenaz, egin zuen hitzaldiaren lehen liburua.

Tomas Moro², Britainiako Londres hiri handiko herritar eta bizkonde aipatuak emana.

Nola aski funts handiko arazo batzuek eztabaida sortu berria baitzuten, dohain guziez aberats den printze eder, Enrike VIII.^{a3} deitu, Ingalaterrako errege garaitezinaren, eta Karlos, Gaztelako printze⁴ izarniatu goienaren artean, Erregek bidali ninduen Flandesera, aholkulari bezala, arazo horietaz arduratzeko eta horien konpontzeko.

Banuen nerekin lagun paregabea, Kutberto Tunstalo⁵, Erregek berrikitan, guzien goresmenekin, "Kutxa Sakratuen Buru" izendatu duena. Baina ez dut haren ohoretan hemen deus erranen; ez ordea, gure arteko adiskidetasunarengatik, nere lekukotasunak egiaren itxurarik ukan ez dezan beldur naizelako, baina bai, haren bertutea eta haren jakitatea, nik gorets ahala bainoagoak baitira, eta bera orotan hain ezaguna eta hain aipatua baita, non ez den beste deusen erraite-beharrik; iduri luke bestela, "kriseiluarekin eguzkia argitu nahiz nabilela", erran zaharraren arabera.

Brujaseko hirian aurkitu genituen, hitzartu bezala, printzearen mandatariak; gizon ederrak guziak; haien aintzindari eta buru, bazen gizon bat gaitza, Brujaseko gobernadorea; bere lagunen mihia eta bihotza zen aldiz, Gorka Themseckekoa⁶, Kasseleko auzapeza; hau aho ederreko gizona, ez bakarrik ariaren ariaz, baina ere bai sortzeko dohainez; lege-gaietan jakintsua bestalde, eta bere harremanetako ohiturari eta izpiritu argiari esker, tratulari paregabea.

Behin eta berritan elkarretaratu ondoan, ikuspegiak ezin aski aurrinduz baixeunden, gure solaskideek egun batzuentzat agurtu gintuzten, eta beren printzearekin hitzartzeko, Brusselera joan ziren. Anartean, arazoaren arabera, ni Anberesera banoa.

Hiri horretan nengoela, beste ikusliarren artetik, baina nornahik baino atsegin gehiago emanez, maiz etorri zitzaidan ikustera Pedro Egidio⁷, Anbereseko semea. Hau da gizona, bere herritarren artean, itzal handia eta maila gorena daukana. Gorago igaiteko gai da oraino: gaztea bada ere, ez nekike zer den haren baitan nagusi, bertutea ala jakitatea; bihotz handiko gizona baita, eta ainitz ikasia.

Garbi jokutzen ohi du, bestalde, ororekin; baina adiskideekin hain da irekia maitasunez, leialtasunez, atxikimenduz eta zintzotasunez hain aberatsa, non ez baituzu, guzien artean, haren parekorik bat bakarra erraz aurkituko! Badaki ongi neurria begiratzen. Ez du sekula alegia egiten. Zuhurtzia eta lainotasuna, nehork ez bezala ditu bateratzen. Eta gero, hain da solaskide atsegina, eta maleziarik gabe zorrotza, non nihuri, herriaren, etxearen, lagunaren eta haurren berriz ikusteko minak hartua eta errea nengoelarik, -bazuen ordukotz lau hilabete baino gehiago etxetik urrundua nengoela- harekilako harreman gozoek eta haren solas ez tiek altxatzen baitzidaten bihotza.

Halako batez, Andre Dona Mariaren ohoretan eraikia den gorputz ederreko eta debozione handiko elizan⁸, meza saildua entzunik, eta elizkizuna amaiturik, nere ostatura buruz banindoalarik, txiripaz ikusi nuen nere adiskidea, arrotz batekin mintzo. Hau adineko gizona zen, aurpegia beltzarana, bizarra luzea, eta kapa bizkarrean zeraman, laxo-laxoa. Begitartetik eta jantzitik, iduritu zitzaidan untzi-kapitaina zela.

Ohartu orduko, hurbiltzen zait Pedro, agurtzen nau eta, nik hitzik erran gabe, bazter hartzen, diostala:

- Ikusten duzu gizon hori? -eta harekin mintzo ikusia nuen hura bera zidan ber denboran erakusten- zure etxera eramaitera nindoan, hain zuzen.

- Ongi etorri eginen nion, zuk gomendatuz geroz, -ihardesten diot.

Hark orduan:

- Ezagut bazeneza, gomendio aski baluke, berez: zu, munduko gizakien eta lurralde ezezagunen hain berri-gose baitzara, ez duzu gaur nehor aurkituren hainbeste berri ekarriko dizunik.

- Ez dut, beraz, hain gaizki asmatu -erantzuten diot- untzi-kapitaina zela somatu dut, ikusi orduko.
- Urrun zabiltza -dit ihardesten-; untzietan ibilia da bai, baina ez Palinuro bezala, Ulises⁹ edo, izaitzekotz Platon bezala. Rafael horrek alabaina, -hori baitu izena, Hitlodeo aldiz deitura-, latina badaki aski ongi, grekoa berriz, ongi baino hobeki (ezen mintzaira hau Erromakoa baino kar gehiagorekin landu izan du, bera osoki filosofiari emana delakotz; bazekien, jakin, sail horretan, Zizeron eta Senekaren pasarte bakar batzuek beste deus guti gelditzen zaigula latinez). Haurrideei etxeko partea bere herrian utzirik -portugesak da eta- mundu zabalaren ikuskatzeko lehiaz, Ameriko Vespuccirengana¹⁰ jo zuen, eta orai nonnahi aipu diren haren lau itsasaldietarik azken hiruetan, beti haren lagun jarraikia izan zen. Azken aldian, ordea, ez zen harekin etxera itzuli: ahalak oro egin zituen, alabaina, Amerikorenganik ardiesteko, itsasaldiaren azkenburuan den Gazteluan utzi zituzten hogeita lau gizonetarik bat, bera izan zedin. Han utzi zuten, beraz, hilobi bat ukaiteko baino, bidaiari ibiltzeko lehia gehiago zuelakotz beti solas hauek zerabiltzan eta:

"Hilobirik ez duenak, zerua du estalki..."¹¹

eta oraino:

"Zeruko bidea berdin luzea da alde orotarik..."¹²

Ainitz pekatu behar zuen horrelako gogoarekin, Jainkoak Berak begi eman ez balio.

Vespucci joan zitzaielarik, lurralde asko kurritu zuen Gazteluko bost lagunekin eta, azkenik, zorionez, Zeilango uhartera¹³, eta hemendik Kalikoteko¹⁴ portura heldu zen.

Hor aurkitu zituen, hain zuzen, portugesen itsasuntziak eta, nehork uste ez zuelarik, sorterrira itzuli zen. Pedrok bere solasa bururatu zuelarik, eskerrak bihurtu nizkion bere ikustateagatik, eta ere neretzat, delako arrotzarekin elkarriketa atsegin eta aberats baten hitzartzeaz arduratu zelako. Gero Rafaeli buruz itzultzen naiz eta, bi arrotzek elkarri lehenik erran ohi dizkioten ele arruntak erran ondoan, nere etxera bagoaz eta han, baratzean, soropilako jargietan jarriarik, solastatzen gara.

Kontatu zigun beraz nola, Vespucci joan eta, berak eta Gazteluan gelditu bere lagunek jakin zuten emeki-emeki lurralde haietako herritarren amainatzen, haiekin gurutzatuz eta haiei ikuskariak eskainiz. Laster haien aiherkundera gaingitu zuten, eta gainera, haiekin etxekotu bezala ziren. Buruzagi batek orduan -ez zait gogoratzen ez haren izena ez haren sorterrira- bere adiskidantza eta bere laguntza eskaini zien: haren bihotz onari esker -zioen Rafaelek- urriarik ukan zituzten, berak eta bere bost lagunek, anoa, garraioa eta ere -baldusez egiten baitzen bide, uretan eta orgaz, lehorretan- bideko gidari fidagarri bat, honek beste buruzagiengana lagunt zitzaizkion, eta honen gomendioarekin, ongi etorri egin ziezaieten delako buruzagi arrotzek.

Ainitz egunen bidea egin ondoan, aurkitu omen zituzten gazteluak eta hiriak, eta ere jendetza handiak zeuzkaten erresumak, ez gaizki eratuak. Ekuatoreko marraren azpian, handik eta hemendik, bi aldetarik, eguzkiaren inguruak daramatzan eremuetan, badaude bai sekulako bakardadeak, beroak erreak: bazterrak

oro larrutuak dira; ikusgarri beldurgarria; sugeen eta basabereen bizitokia, eta azkenean, abereak baino doi-doia hobeki heziak eta otzanduak gizakiak.

Baina gero, alde horietarik urruntzen zarelarik, bazterrak gozatzen zaizkizu apurka-apurka: zerua ez da hain idor; belarrak apaintzen du soroa; bizidunen gogo-bihotzak beratzen zaizkizu, eta azken buruan, ageri dira herrialdeak, hiriak, gazteluak, eta lehorrez ala itsasoz, ez bakarrik herri barnean edo auzo-herriekin, baina bai ere urrunekoekin, egin ohi diren salerospen jarraikiak.

Hortik landa, haraindian ala honaindian, lurralde asko ikuskatzeko parada izan zuten, ezen edozein itsasuntzitan, noranahi abia zedin, hura eta haren lagunak gogotik onartzen zituzten. Lehen eskualdeetan ikusi zituzten untziek zola zabala zutela zioen; altxatzen zituzten belak, aldiz, batzuetan larruz eginak ziren, bestetan ihiak edo kanaberak josiz elkarri. Urrunago aurkitu zituzten, aldiz, untzi-uztaituak eta kalamuzko belak. Azkenean, denak, gureak iduriak ziren.

Haien itsasturuek bazekiten zeruko eta itsasoko gorabeheren berri, baina ordurarte batere ezagutzen ez zuten imanaren sekretua salatu zielarik Rafaelek, izigarriko eskerrona erakutsi omen zioten: lehen, alabaina, itsaso zabalean aintzinzatzeko herabe ohi ziren, eta bestalde, udan baizik ez ziren menturatzen. Orai berriz, iman hari fidaturik, negua gutiesten dute, segurtasun baino ausartzia gehiagorekin, eta beldurtzeko da, lagungarri izan behar zuten tresna, arinkeriaz, makur handien kausa gerta dakien.

Zer eta non ikusi zuen kontatu zigun Rafaelek, baina luze liteke zehaztea, eta ez da hori lan honen xedea. Beste nonbait menturaz erranen dugu, aipatuz lehenik jakin behar dena,

bereziki, jendetasunez, elkarrekin bizi diren herrietan ikusi dituen zuzentasunezko eta zuhurtziazko ohiturak.

Ezen gai horietaz galdezkatzen genuen lehiatuki eta hark ihardesten zigun gogo onez, munstroen gaia bazter utziz, ez baitzitekeen horretan berri handirik: Sziliar eta Zeleno harrapariak, lestrigoi gizajaleak¹⁵ eta horrelako mirari lazgarriak non ez dira aurkituren, baina zuhurtziaz eta zuzentasunezko erakundeei jarriak dauden hiritarrak ez dituzu nonnahi atzemanen. Bestalde, ohitura txar asko ikusi badu ere herrialde berri horietan, zenbat eredu ez ditu aurkitu gure hiri, herri, jende eta erresumetan alha diren makurren zuzentzeko baliagarri baikenituzke? Hauek beste nonbait aipatuko ditut, erran bezala.

Hemen kontatu nahi ditut bakarrik utopiarren ohitura eta erakundeez Rafaelek erran zizkigunak, ez ordea adierazi gabe Errepublika¹⁶ horretaz hitzegitera zerk eman zigun solas. Ordukotz Rafaelek zuhurtzia handiarekin altxatuak zituen hemen edo han, eta maizenik bi aldeetan, egin ohi diren hutsak, eta ere, gutartean edo arrotz herrietan, hartu diren neurri zuhurrenak. Eta populu bakoitzaren ohiturak eta erakundeak hala zeuzkan gogoan atxikiak non iduri baitzuen bere bizi guzia harekila iragana zuela, izaitez apur bat baizik ez zelarik harekin egona. Miretsirik, Pedrok erran zion:

- Zinez, Rafael maitea, nolaz ez diozun zure burua edozein erregeri eratziki, harritzen naiz. Errege bihi bat ez dela, gogotik onartuko ez zaituenik, badakit ontsa. Duzun jakitatearekin, zure gizonen eta tokien ezagutzarekin, on zara ez bakarrik haren xarmatzeko, baina ere bai, zure irakaspenez, haren argitzeko, eta kontseiluez, laguntzeko.

Bide beretik, zurea ederki zaint zenezake, eta zure etxeko guzientzat, etxe altxagarri handia zintezke.

- Ez dut etxekoez arrenkurarik -ihardetsi zuen-, nere eginbidea haien alderat aski ontsa bete baitut, ene ustez: bestek, zahartuta eta erituta uzten dituzte beren ontasunak; orduan ere, desgogara, ez baitituzte berek zaintzen ahal; nik, aldiz, osagarrian eta indarrean nintzela, eta gazterik oraino, nere etxekoei eta adiskideei, ene ontasunak banatu dizkiet, eta beraz uste dut nere ahaideek ene ikustatearekin bozik izan behar dutela; ez dute gehiago, ni haiengatik erregeen menpe jar nadin, eskatzerik ez igurikatzerik.

Pedrok orduan:

- Ederki diozu: ez nuen nik erran nahi erregeen *menpeko* behar zenuela zure burua jarri, baina erregeen *zerbitzuko*.

- *Zerbitzuko?* -dio Rafaelek- Batetik bestera hizki bakarren aldatzea duzu.

Pedrok berriz:

- Nahi duzun izena emanen diozu; nik hasteko daukat, horixe dela zure bidea: beren egiteko pribatu ala publikoetan, besteen laguntzea, baina zuhauren egoera zoriontsuago eginez, orozbat.

Eta Rafaelek:

- Zoriontsuago ni? Nere gogoak higuin duen bidea hartuz? Orai bederen nahi dudana egiten dut nik; purpuraz beiti den nehor gutik egiten duen bezala, nik uste. Ez al dabil aski lagun, boteretsuen aldamenean? Ez duzu zeren uste izan, nihaurren edo nere iduriko nornahi falta gaitzkeelako makur handirik izanen dela.

- Bai argi dago, Rafael maitea, -erran nion nihaurren orduan- ez zarela ez diru ez botere gose. Ez dut horrengatik, zure gogoko den gizona, beste edozein jaun boteretsu baino gutiago ohoratzen ez preziatzen.

Bizkitartean, nere iduriko, zure bihotz zabalaren eta izpiritu zuhurraren arabera zenbilzke, zure izpiritua eta zure jeinua eman bazenitza, zuhauri zerbaixka gostarik ere, herri-arazoen esku. Eta horixe hainbat hobeki duzu eginen, printze ospetsu baten kontseiluan parte hartzen baduzu, eta gero, hura horrela - badakit eginen duzula- neurri on eta zuzenak hartzera badaramazu. Printzearenganik dator, alabaina, ezinagortuzko iturritik bezala, herri osoaren gainera, on eta gaitz guzien uholdea. Zutan bada, esperientziarik gabe ere, hain da sakona, jakitatea eta jakitaterik gabe ere, hain zabala esperientzia, non edozein erregerentzat aholkulari paregabe baitzenezake egin.

- Bietan huts egin duzu, Moro maitea -dit orduan ihardesten-. Nitaz, behin, eta arazoaz beraz, berritan: nik ezen alde batetik, zuk diozun ahalik ez dut, eta bestaldetik, dohain goien hori banu ere, nere zereginak bazter utziz, herri-arazoetan esku sartzeko, ez niezaioke deusetan on egin herriari.

Lehenik eta behin, printzeen berengatik: hauek gehienek, bake-lan ederrez baino axola gehiago baitute gerla-jokoez. Nik, ordea, militargintzaz deus ez dakit, ez gogorik ere jakiteko. Erresuma berrien, zuzen edo makur, nolazpait eskuratzeaz dira arduratzen printzeak, ezenez beren esku dauzkatenak ongi erabiltzeaz.

Bigarrenetik erregeen kontseilariengatik: hauek guziak hain dira prestuak, ez baitute behar edo, hain prestuak direla uste dute bederen, ez baitute nahi, nehoen aholkurik probatu; non ez

dituzten, haien faboreak beren onarpenaz biltzeko, printzearen inguruko bizkarkin eta lausengari handienen ele zoroak ontzat hartzen. Horrela du eta naturalezak erabakia: bakoitzak bere hura duela lausengatzen:

"Irrikor belekumea, beleari,"

eta

"Ziminokumea, zimino-amarentzat xarmagarri,".17

Beren buruaz hartuak edo besteen onaz bekaizti diren lagunak bilkuretan, lehenago gertatu dela irakurri edo beste nonbait agitzen ikusi duen zerbaiten berri ekartzen duelarik, zer da gertatzen? Horko entzuleak jartzen dira berehala, beren jakintsu-

-fama guzia galzorian balitz bezala, eta hortik lekora, besteen aurkiberriari huts zerbait ez badiote atzematen, berak arras zorotzat hartu behar balituzte bezala. Beste aitzakiarik ez izanez, hauxe aterako dizute:

"Hona gure aitzinekoen iritzia: haien heinera hel baledi gure zuhurtzia!" Azken hitz ederrena bezala, hori erran eta jezartzen dira.

Norbait beraz, edozein puntutan, aitzinekoak baino prestuago gerta baledi, arrisku handian liteke. Alta bada, aitzinekoek ongi finkaturik zeukatena, galtzera utzi ohi dugu, batere kexatu gabe. Baina gero, beste zerbait hobetsi ahal izan dugunean, hari laster giderretik lotzen gatzatzen, eta tinko atxikitzen dugu bururaino.

Horra zergatik iritzi harro, zoro, jasanezinak kausitu ditudan, asko tokitan, eta behin, Ingalaterran ere bai.

- Barka! -erran nion- gure eskualdean ibilia zara beraz?

- Bai! -zidan ihardetsi-, zenbait hilabete egon naiz, han gaindi; ez ainitz denbora gerlatik lekora: mendebaleko ingelesak jazarri zitzaizkion erregeri, eta honek, sarraski deitoragarri bat eginez, menperatu zituen.18

* * *

Egonaldi horretan, John Morton Canterburyko artzapezpiku eta kardinale den Ingalaterrako kantzilerrarekin19 zorretan gel-

ditu nintzen. Hau zen gizon bat, Pedro maitea, -Morok badaki zertaz ariko naizen- bere landeriarengatik baino gehiago, bere zuhurtziaren eta bertutearengatik ohoragarria. Kaizuz bierarteko zen, eta ez zion oraino adinaren gogorrari amore emaiten. Haren begitarteari ez zenion beldurrik, jauspena baizik. Bera hurbil erraza zen, baina duin eta serioa. Laket zuen batzuetan, eskelarien inarrostea, baina kalterik egin gabe, eta bakoitzaren izpiritua eta gogo-oharmena porogatzeko asmoz. Berearen iduriko buru azkar zenbait hurbiltzen baldin bazitzaion, ozarkeriarik gabea hargatik, atsegin zuen, eta asmo handien betetzeko ontzat hartzen zuen. Ele leuna zuen, eta orozbat zorrotza. Lege-gaietan jakintsua zen, adimendu paregabea zuen eta oroimena mirakuilu aberatsa. Horrelako dohain ederrekin, ariz ariz, eta ikasiz, gora igana zen. Haren aholkuak biziki kontutan hartzen zituen erregek eta, ni han nengoelarik, haren gainean bermatzen zela erreinua bazirudien. Egia erran, gazte hutsa zelarik oraino, eskolatik gortera, zuzen-zuzena, iragana zen, eta gero, bizi guzia arazo larrienetan sartua izanik, eta zortearen gorabehera guziak ezaguturik, bazuen horrenbeste lanjer handien artetik, zereginetarako zuhurtzia berezi bat ikasia, horrela bildu ondoan, erraz galtzen ez dena.

Halako aldi batez, Mortonena mahaian nengoela, zuen herriko legeez jakintsua den jaun batekin gertatu nintzen. Delako jaun hura, ez dakit zeren gainetik, hasi zitzaigun, eskualde hartan lapurren aurka daramaten justizia zorrotza zehazki goraipatzen: batzuetan, gurutze beraren gainean, hogeitaraino urkatzen omen zituzten, eta berak zioen, hainbat harritzenago zela, arras guti gaztiguari itzurtzen zitzaiolarik, zorigaitzez, bazter guziak, lapurrez betetzen ari baitziren.

Nihaur orduan ausartu nintzen, Kardinalearen aintzinean, lasaiki mintzatzera:

- Ez duzu zeren harri, -erran nion-; lapurrak horrela zigortzea, zuzentasuna gainditzea da, eta herriaren interesa kolpatzea orobat. Gaztigu hori zorrotzegia da, ohointzaren mendekatzeko, alde batetik, eta ez aski gogorra ohoinen lotsatzeko, bestetik. Ohointza soila ez da, egiazki, lepoa moztea hartzen duen halako gaiztakeria izigarria alabaina; eta bestalde, bizi-doia aurkitzeko beste biderik ez duenaren ohointzan aritzetik begiratzeko, ez da aski zigor handirik asmaturen. Horra zergatik, zerika honetan, ez zuek bakarrik, baina mundu honetako beste ainitz ere, ari zareten, irakasle txarrak iduri, nahiago dituzuelakotz, eskolatzeko orde, zafratu ikasleak. Ezen gaztigu garratzak eta zigor ikaragarriak emaiten dizkiezue lapurrei, askoz hobe bailiteke bizibidea segurtatzea bakoitzari, ohointzari lotzeko ezinbestekak, eta ondorioz, herio latzaren zoriak ez dezan nehor atzeman.

- Hori aski ikusia da: -zuen besteak erantzun- Hor dira ofizio guziak, hor da laborantza; badute hor bizipide nahikoa, baina beren baitarik, nahiago dute batzuek gaiztoak izan.

- Ez zara horrela aterako: -nion ihardetsi- Beude behin bazter, atzerriko edo herri barneko gerlatik zauriturik etxera itzultzen direnak; hala nola berriki, Kornubiako gerlariak, edo lehentxeago Frantzian barna ibiliak²⁰. Horiek beren erregeri edo erresumari eskaintzen diote odola, eta gero, aintzineko ofizioaren betetzeko ezinduak dira, eta berri baten ikasteko, zahartuegiak. Horiek oro beude bada ixilpean, gerlak, tarteka, baitabiltza, joan-
-etorri.

Ikus ditzagun beraz, egun oroz gertatzen direnak. Hor dugu aitonen semeen saldoa: ez dira bakarrik, uxadanak iduri, besteen lanetik alfer bizi, baina oraino, beren mozkinen ontzeko, hezurreraino larrutzen dituzte, beren funtsetako etxezainak

-nahiz hau den haien zuhurreria bakarra; oro xahutzen baitituzte bestela; berak eskale bilakatzeraino-. Jaun horiek, gainera, beren ondotik badaramate, bizia irabazteko ofizio bat sekula ikasi ez duten lagun alferren ostea. Nagusia hil orduko, edo berak eritzen direlarik, kanpoa dute berehala, zeren hobe baita alferrak haztea, eriak baino. Frangotan ere, aitaren segida guzia hazteko doi ontasunik ez du hilaren ondokoak, eta anartean gaixoak hertsaturik daude, goseak hiltzera edo ohointzan aritzera. Zer egin besterik? Hara-honaka ibili ondoan, jantziak higaturik, eta osagarria galdurik, piltzarrez estaliak eta gaitzak larrutuak direlarik, ez dituzte ez jaunek hartu nahiko; eta laborariak ez dira haien hartzera menturatuko. Badakite bai hauek, gurikerian, alferkerian eta gozokerien erdian hazirik izan ondoan, adarga eskuan eta aitzorra saihetsean, inguramen guziari begi ilun batekin gain behera begiratzen, eta beraz, beste guziak erdeinatzen ohitua den gizona, ez dela nehoiz on izanen, soldata-apur bat eta hazkurri zuhur bat ukaitekotan, aitzur eta goldearekin bilaun gaixo baten leialki zerbitzatzeko.

- Hain zuzen, jende-mota horretaz behar da bereziki arduratu, nere iritziz, -erran zuen gure mahaikideak-laborariak eta ofizialek baino bihotz beroagoa eta gogo biziagoa dute horiek; indar eta oldar eman liezaiokete armadari, noizbait gerla piztu baledi.

- Ederki, -nion ihardetsi- erran behar zenuke ere, bide beretik, gerlaren ohoretan behar direla, ohoinak bereziki artatu, lapur eskasiarik ez baita izanen, jende horietarik izanen duzuno: orobat, lapurrekin dira egiten, soldadu adoretsuenak, eta ez dira soldaduak, lapur atzeratuenak. Halako antza badute bi ofizio horiek! Baina gaitz hori, zuen eskualdean -ez ordea han bakarrik- maiz aurkitzen dena, jendalde guzietan, kasik, alha da.

Frantzia aldean bereziki, izurrite bat gaitzagoa oraino, badabil. Lurralde osoa mertzenariz estalia dago, bake-

-aroan ere -bakea baldin bada hori- eta zuek, zerbitzariak alfer egoiteko hazi behar dituzuelako aitzakia berarekin deitu dituzten soldaduz setiatua da. "Erdi zoro - erdi zuhur" diren "Morosofo"²¹ horiek uste dute, osasunean eta indarrean dagoen, eta bereziki soldadu zaharrez osatu den armada,²² beti eta berehala eskumenean ukaitean datzala herriaren ona. Ez dira ezen, trebe ez diren gaztetan, batere fida. Horra zergatik, beren soldaduak trebatu gabe ez uzteko, gerla bila badabiltzan: Salustiok hain poliki dioen bezala "horien soldaduek beren eskuz behar dituzte gizonak eho, eskuak eta gogoak ez dakizkien lokar, deus ari gabe".²³

Frantziak ordea ikasi du bere kostuz²⁴, zein arriskutsu den horrelako abere basa batzuen haztea, eta hori bera irakasten du, erromatarren, kartagotarren, siriarren eta beste hainbeste herrien historiak: beren onerako apailatuak zituzten armada horiek berek, nola ez dituzte bakarrik buruzagiak aurtiki, baina ere haien alorrak eta berdin hiriak irauli.

Argi ageri da bestalde, frantsesen adibidearekin ez dela hori baitezpadako: hauen soldaduak, haur-haurretik armetan ibiliak direlarik, zuen deitu berriekin buruz buru gertatu direnean, ez dira usu, garaile izanik, burua gora atera. Ez dut bada besterik erran nahi, zuek, ene entzuleak, lausengatu beharrez ari naizela, bailuke iduri.

Baina zuen hirietako ofizialeek eta zuen baserrietako laborari gotorrek ez omen dute, jaun handien lakaio alferren beldurrik;

beldur dira bakarrik, beren gorputz mendreak herabetu, edo beren etxeko gabeziak lotsatu dituenak. Gorputzez sendo eta azkar diren gizon guziek -ez baitute hautuzkorik baizik andegutzen, gure jaun handiek- ez dute beraz emalditzeko arriskurik, orai nagikerian guritzen, eta emazte-lanetan hiratzen ari direlarik, bizia irabazteko ofizio on bat ikasten baldin badute eta gizon-lan bat hartzen.

Dena dela, neholaz ere ez zait iduritzen, menturazko gerla baten ohoretan, -ez baituzue gerlarik ukanen, non ez duzuen gerla nahi- horrelako jende ostearen mantentzea on duela herriak; jende horiek izurrite bat baitira bakearentzat. Eta gerlaz beste baliorik du gero, bakeak!

Baina ez da horrengatik bakarrik, lapurketari lotu beharrean gertatzen jendea; bada, ene iduriko, zuen herrian bereziki, zerbait gehiago.

- Eta zer ote? -zuen galdetu Kardinaleak-.

- Ardiengatik -ihardetsi nion- zuen ardiengatik: hain gozoak ohi diren, eta jan guti aski duten antxu horiek, izigarri hezgaitz eta jangile bilakatzen ari omen dira; gizonak berak jaten dituzte; etxeak, lurrak eta burguak larrutzen eta husten. Artilerik meheena, eta beraz karioena, egiten den erresumako bazter guzietan, aitonen semeek, nagusi handiek eta berdin abade sailduen, beren ontasunetarik, aintzinekoe bezala, urtekal altxatzen ohi zituzten emaitzak eta mozkinak ez aski ukanez, eta herriaren bizkar, non ez den herriaren kaltetan, alfer eta lasai bizitzen ezin egonez, deus ez diote utzi nahi laborantzari: beren alagientzat hesten dituzte elgeak oro, etxeak aurtikitzen, hiriak urratzen eta elizak zutik uzten, ardien aterpetako. Eta zuen eskualdeetan ez balitz bezala, ihizi-oihan eta ehizi-erresaldu, aski eremu galdurik,

jende on horiek ari dituzte bizitoki guziak, eta lur landu poxi guziak, basamortu bihurtzen. Horra beraz nola, herriaren izurri beltza den jangile ezinase batek, lurrak oro irentsiz, zenbait mila iteguneko eremua hesola bakar batez ingura dezan, etxezainak kanporatzen diren jukutriaz enganatuz edo indarrez lehertuz, beren funtsez gabetzen, non ez diren, laidoek lotsaturik, denen saltzera behartzen. Nola edo hala badoaz, errumes noharroin horiek, gizon eta emakume, senar, emazte, umezurtz, alargun, haur tipiekilako buraso eta, lurrak hatz-behatz asko eskatzen baitu, diruz baino kidez aberatsago, etxeakoak.

Badoaz -diot nik- supazter eta etxebazter ezagunak utzirik, jakin gabe non aurki aterpe. Eroslea igurika ahal baledi ere, merke sal litekeen hatua erdi urrurik uzten da, iraitzi behar delarik. Eta gero laster, han-hemenka ibili ondoan, diru apur hura xahutu delarik, zer egin besterik, ohointzari lotu baizik, eta zuzen den bezala alabaina, urkabera igan. Non ez diren, eskuin edo ezker, eske abiatzen. Baina orduan ere preso sartzen dituzte, arlotekeriagatik; deus egin gabe badabiltzalako aitzakiarekin; nehork lanik eman ez diotelarik, eta berek, hain gogotik, lan edozein har lezaketelarik. Haiek lan egiten ohituak zeuden lurgintzan ordea deus ez denaz geroz ereiten, ez da gehiago deus lur-lanik: ereiteko ainitz beso behar duten alorretan, abereak alatzeko artzain bakar bat aski da, edo itzain bat. Hortakotz ere lurrak eman ohi duen anoa, asko garestitu da, ainitz tokitan. Harrigarri ez bada! Artilea hainbeste goiti igan da, non horrekin bere oihalak ehaiten zituen jende xeheak ez baitezake eros. Eta beraz, gero eta langile gehiago langabezian erortzen da.

Bazka-lekuak hedatu zirenetik, ardietan, izigarriko izurritea sartu zen laster; gizonen gosearen gainera, Jainkoaren haserrea erori balitz bezala, ardiei egotziz, haien jabeei, zuzenez, erori beharko zitzairen zigorra. Bestalde ardien kopurua asko emenda baledi ere, haien prezioa ez liteke berez apal, zeren ardien "monopolioa" aipatzerik ez bada ere -salerosle bakarraren kasua ez baita- "oligopolioa"²⁵ bai badugu. Zenbait jabe gutiren esku dira alabaina, artaldeak; aski aberatsak izanez jaun horiek, ez dira sekula hertsatuak saltzera, nahi ez badute; eta ez dute nahiko, gura duten prezioa eskaintzen ez zaieno.

Anartean, ber aitzakiengatik, beste buru-motak ere ainitz garestitzen dira; areago oraino, etxauak suntsitzearekin eta lurgintza aurritzearekin, nehor ez baita hazkuntzaz arduratzeko. Ez dira ezen nagusi aberats haiek, arkumez arrenkuratzen ez diren bezala, abere larrien artatzeaz ere axolatuko; nonbait merke erosi abere meheak, beren alagietan gizendu ondoan, saltzen dituzte guziz garesti. Horretakotz, nik uste, ez dira oraino nabari, gertatzen denaren ondorio guziak. Hala nola prezioak ez dituzte oraino iganarazi, saltzapenak egin ohi diren lekuetan baizik; baina laster, abere-buruak, sor-arau eramanen dituztenean, erosketak egiten diren tokietan ere, eskaintza beti beheiti baldin badoa, egiazko gabezia ageriko da.

Bakar batzuen gose gaiztoak, galzorian ezarri du horrela, munduko eskualde dohatsuena zirudien zuen uhartea. Bizi garestitzea estakuru, igor ahalak oro kanpo ezartzen ditu, nagusi bakoitzak, bere sehiak. Zer egiteko? -otoi erradazu- Eskalegoa, edo -arima onek errazkiago barkatuko baitiote- ohointza.

Gainera, zorigaitzezko eskasia eta gabezia horren ondotik, dator jasanezinezko handioskeria: bai handikien zerbitzariak, bai ofizialek, bai eta kasik berdin laborariek, hots, maila guzietako herritarrek, gastu lotsagarriak egiten dituzte, jantzieta; eta zernahi xahutzen dute jan-edanetan. Gero datoz tabernak, ematzartegiak, ostatuak eta ardandegi edo garagardotegi eta beste edaritegi, azkenean hainbeste joko higuinagari, nola baitira, zotzak, kartak, andere-jokoak, pilota, borobila, harri zabalak; horietan dabiltzanek ez ote dute, beren dirua xahutu bezain laster, lapurketarako bidea hartuko?

Ken otoi helgaitz galgarri horiek! Etxauak eta burguak desegin dituztenek berek, mana beraz, berregin ditzaten, edo haiek angoldu eta berreraiki nahiko dituztenen eskutan utz. Erosle aberatsen tratuei trabak ezar, eta monopolioei eragozpenak. Alfer gutiago haz dadiela, eta laborantza berret! Ilagintza behar da antolatu, lanbide garbi bat emateko, langabezian dauden osten bai lehendanik ezinbiziak ohointzan aritzera behartu dituen, bai eta ere gaur egun bide handietan kurri edo alferrezian bizi eta bihar segur oro ohointzan ariko diren guzien entretenigarri.

Gaitz horiek ez badituzue garaitzen, debaldetan goraiatzan duzue, ohoinen zigortzeko daramazuen justizia: ez da ez zuzena ez eraginkorra zuen zuzentasuna, itxurazkoa baizik. Egia erran, zuen haurrak ezin makurrago altxa ditzaten eta haien azturak goizdanik gasta daitezen onartzen duzuelarik; haurrean asma zitezkeen itsuskeriak helduaroan bete ditzaten igurikatzen duzuelarik, haien gaztigatzeko, zer duzue bada egiten besterik? Lapurrak hazten baizik; haien zigortzeko gero.

Ni mintzo nintzelarik horrela, gure legegizonak prestatua zuen bere hitzaldia eta bere baitan erabakia eginen zuela, liskarrarien modura; nahiago baitute hauek solas bera errepikatu, zinez ihardetsi baino; eta memoria baitaie orozbat eder.

- Ez da gaizki errana; -aitortu zuen legegizonak- ez da gaizki errana; bederen, entzutez baizik eta ez berak ikusiz, ahal bezala, gauzak ezagutu dituen arrotzarentzat. Hitz gutitan erakutsiko dizuet: lehenik zuk errana errepikatuko dut artoski; gero erakutsiko dut, zertan, gure ohituren ezagutza eskasak, desbideratu zaituen; azkenean zure argudioak ahituko ditut, eta itsabasiko. Beraz, lehenik hasteko, hitzeman bezala, iduri luke lau puntu badirela...

- Zaude ixilik! -moztu zuen Kardinaleak- ezen ez zaude berehala bururaturik, horrela hasten bazara. Momentuko zure erantzukizuna kentzen dizugu; baina zure eginbide osoa bete beharko duzu, berriz elkar ikusiko dugun lehen aldian; hots, bihar berean; non ez duzuen zerbait eragozpen aurkitzen, zuk, edo Rafaelek. Anartean, Rafael maitea, zuk erranik nahi nuke jakin, zergatik ez den, zure ustetan, herioaz zigortu behar ohointza eta, ordainez, zer gaztigu-mota finka zenezakeen, herriaren ona hobeki bermatzeko; ezen ez dukezu zuk ere, ohointza onartu behar dela asmatzen. Herioaren beldurragatik, ohointzan ari badira gaur egun, bihar ordean, biziaren galtzeko beldurrik ez badute, zeren beldurrak, noren indarrak ditu gaizki egitetik begiratuko? Ez ote dute ohoinek usteko, gaztiguaren tipitze hori, gaizkirako dei bat bezala eskaintzen zaiela?

- Dena den, Aita on eta ohoragarria, -ihardetsi nion- diru-peza bat ebatsi duelakotz, gizon bati bizia kentzea, bidegabekeria gaitza daukat. Egiaz, nik uste dut, ez direla munduko ontasun guziak, gizon baten biziaren pareko jartzen ahal. Justiziaren ohorea, eta hautsi diren legeak mendekatzeko emaiten dela zigorra, ez dirua ordaintzeko; zergatik ez dizute ihardetsiko, justizia gaitz hori dela injustiziarik gaiztoena?

Ez, ez ditugu onartzen ahal, manliustarren araberako manuak;²⁶ den hutsik tipienarentzat behar baitzen berehala ezpata atera; ez eta ere estoikoen errankiak; huts guziak berdinak direla baitarasate, eta ez dela bereizkuntzarik egin behar, gizon bat ehaiten duenaren edo gizon bati diru puska bat ebasten dionaren artean. Ez dute bada bi ekintza horiek, ez eiterik ez loturarik; zuzentasun-izpirik gelditzen baldin bada oraino. Nornahi hiltzea debekatu du Jainkoak. Eta guk, diru txar batengatik hiltzen dugu errazki. Jainko-legea mugatzen bada horrela, erranez, Jainkoaren debekua ez dela heltzen giza legeak manatu erailketaraino, zer eragozpen izanen duzue gizonen, era berean erabaki dezaten beren artean noraino haizu izanen den bortxakeria, ñapurkeria edo zinaustekeria? Egiaz, ez bakarrik beste gizonen, baina bere buruari ere bizia edekitzeko eskua kendu die Jainkoak, gizonen. Baina gizonen berek finkatu baldintzetan, elkar hiltzeko hitzarmenak horrelako indarra baldin badu, non Jainkoaren erakuspenen gainetik, eta Haren debekuengatik, gizonen erabakiak hiltzera bidaltzen dituenak erailtzea zilegi baitzaie borroeroei, ez ote da orduan erran beharko Jainko-legeak ez duela indarrik, giza legeak ontzat hartzen duen neurrian baizik?

Gertatuko da segur, era berean, gizonek berek dutela erabakiko zer guzietan, zer heinetaraino behar diren Jainkoaren manuak begiratu. Azkenean Moisesen legeak ere, hain gogorra eta garratza zelarik - esklabuentzat eta esklabu-buru gogorrentzat egina baitzen- ez zuen herioaz gaztigatzen ohointza; diru-zigorraz baizik. Ez dugu zeren uste izan, urrikalpenezko lege berrian, aita batek bere semeei bezala Jainkoak manatzen duenean, elkarri jazartzeko erraztasun gehiago eman izan zaigula. Horra zergatik ez dudan herio zigor hori onartzen.

Denek badakigu, araez, zein zoro den, eta gizartearentzat zein arriskutsu, gaztigu bera emaita, ohoinari eta gizon hiltzaileari. Gaiztagina ohartzen delarik alabaina, gizon hiltzailea dela frogatzen baldin bada dukeen gaztigua baino arinagoa ez dela izanen ohointzan ari izanikako zigorra, gogoratzen zaio berehala hobe duela hiltzea, bestela lapurtuko baizik ez zuen presuna. Bestalde, atzemana den ohoinarentzat, arriskua ez baldin bada ere, erailearentzat baino handiagoa, eraileak egin dezake bere lana segurtasun gehiagorekin eta ez atzemana izaiteko mentura hobearekin, erailketaren lekukoa itsabasten duenaz geroz. Eta horrela, ohoinak izitzeko orde, gure gaztigu garratzekin, jende onen hiltzera sustatzen ditugu haiek berak.

* * *

Maiz egin ohi den galde honi ihardetsiko diot orai: zein ote den ohointzentzat gaztigurik egokiena. Biziki errazkiago aurkituko dugu, nik uste, zein den kaltegarriena baino. Zertako bada ez onar, dakigunaz lehen erromatarrek gaiztaginen zigortzeko luzez erabili zituzten moldeak, erabilgarri direla; bazekiten haiek ederki herriari nola agindu. Gaiztagin handi etsituak kondenatzen zituzten sekulako kateetara beren harrobi eta meatokietan.

Zerika honetan halere, nere ibilaldien artetik Pertsia aldean ikusi ditudan "Polileritoi" izeneko²⁷ herritarren ohiturak bezalakorik ez dut nehon ezagutzen. Ez da haien herria, ez hain tipia, ez hain zuhurtziarik gabe eratua. Nahiz urtero Pertsia erregeari zerga bat ordaintzen dioten, aske daude bestela eta berek egin legeen gomendio. Bestalde itsasotik urrun baitaude eta, ezbaian orotarik mendiz inguratutik, beren lurraren emaitzetarik bizi dira eta ez gaizki. Ez dira beste herrietara asko ateratzen; ez da ere ainitz arrotzik haiengana hurbiltzen. Bizkitartean beren ohitura zaharren arabera, beren eremuen hedatzera lehiatu gabe badaudeke, eta beren eremu horiek errazki zaintzen dituzte, berek soldaduzkarik egin gabe beren mendiei esker eta beren errege jaunari ordaintzen dioten zergaren kostuz. Bizi dira beraz ez ospetsuki baina errazki, handios eta lorios baino gehiago, dohatsu; nehork izenez ere nik uste, ezagutzen ez dituela; beren auzo hurbilek baizik.

Herri horretan bada atzemaiten dituzten lapurrek, ebatsi duten hura behar diote bihurtu -ez printzeari, beste asko lekutan egin ohi den bezala- baina bere jabeari. Haien aburuz alabaina, printzeak ala lapurrak, berdin esku du ebatsi denaren gain. Ebatsi gauza suntsitu denean, haren saria biltzen da, ohoinen ontasunen saltzetik, eta jabeari itzultzen; saltzapenaren gaineratikoa uzten da ohoinen emazteen eta haurren esku, oso-osorik. Ohoinak berak, bortxazko lanetara bidaltzen dituzte. Baina non ez duten beste izigarrikeriarik egin, ez dituzte presondegietan hersten ez katez kargatzen, bakarrik lokarri edo estekagailurik gabe ihardunarazten auzo-lanetan. Gibelka daudenak edo uzkur direnak, ez dituzte burdinaztatzen, azotatzen baizik; gogotik lanean dihardutenak, ez dituzte hunkitzen, baina arratsetan, bederazka zenbatu ondoan, logeletan hersten dituzte: etenik

gabeko lan horretaz beste estakururik ez du haien bizimoldeak. Herriak hazten ditu, non eta nola, baina ez batere gaizki; herriarentzat lan egiten dutenaz gain. Non edo non, haien arta-doi diru esketik biltzen dute eta bide horrek, menturazkoa badirudi ere, ez daiteke aberatsagorik aurki, hain baitute bihotz ona, herritarrek. Beste toki batzuetan herri diru-sartze zenbait bereizten dira xede berarentzat. Batzuek ere zerga berezi bat altxatzen dute, jende-arau.

Bada oraino beste eskualderik, ez baitie gaizkileei herri-lanik emaiten, baina langile-beharretan dabilen edozein badoa herriko plazara eta han, soldata jakin baten ordain, egun batentzat gaizkile horietarik bat, laneko har dezake; delako jornala, beste edozein baino apalxeagoa da, eta bestalde nagusiak azotea eman diezaioke langile naguari. Ez dute horrela sekulan lan-eskasiarik eta gainera, gaizkile bakoitzak bere doia egiteaz bestalde, egunero diru piska bat sartzen du herriko kutxan.

Kolore bereziko jantzi berdinak dituzte zigortu guziek; ez diete buru-kaskoa mozten, bakarrik belarri gaineko biloa, eta ere belarri-hegal bat doi-doia. Bere adiskideenganik edozeinek onar dezake, jateko, edateko edo janzteko -jantzia haren kolorekoa izaitekotan-. Baina diru-emaitzak herio zigorra lekarkioke emaleari, eta berdin hartzaileari. Arrisku bera luke herritar batek, edozein estakuruz diru-peza bat onar baleza zigortu batenganik. Eta gaztigu bera emaiten zaie oraino, armak hunkitzen dituzten "morroiei" 28 - horrela deitzen baitituzte beren zigortu haiek-.

Eskualde bakoitzeko zigortuek badaramate beren marka berezia. Marka horren kentzeari zor zaio, herio-zigorra. Eta gaztigu bera da, bere eskualdeko mugetarik atera edo beste eskualde bateko "morroi" edozeinekin mintzatu denarentzat. Areago dena, ihesa bera bezain arriskutsu zaie, ihesaren xedea; ezen horrelako xedeaz hobendun denaren saria, herioa da "morroientzat"

eta delako "morroitza" beste guzientzat. Salatarientzat aldiz badaude sariak: "morroientzat", askatasuna; "askatuentzat", dirua; denentzat kidegoko barkamena eta garbitasuna; hots beti errazago izan behar zaizu urrikitan sartzea ezenez xede gaitzean irautea.

Horra beraz, erran nien, zer diren hango ohiturak eta legeak, nabari baita nola dituzten elkartzen gizatasuna eta eraginkortasuna. Ez dira ezen baliatzen gaitza suntsitzeko baizik, gizonak kontutan hartuz, eta hauek erakarrit, baitezpada onak izaitera eta aintzinean egin kaltearen ordaintzera gainerateko bizian. Eta gizon horiek, ez direla aintzineko ohitura txarretara berriz itzuliko, segur eta fida direlakotz, bidaia luze baten egitera doazen bidaiariek, "morroi" horiek baino bideko gidari hoberik ez duketela pentsu dute eta, eskualdez aldatzean, "morroiez" ere aldatzen dira. Zerbait lapurketa egin gogo balute, ez lukete nehon oztoporik baizik: armarik ez dute; dirua berriz xede gaiztoaren salatzaile liteke; atzemanak direneko, zigorra prest dago eta nehora ihes egiteko mentura-izpirik ez dute. Nola ezenengana dezake nehor eta nehor bere ihesa gorde bestek darabiltzaten jantzi guziez bestelakoak soinean dauzkan gizonak? Non ez doan biluzgorri. Orduan ere, bere belarri motzak sala lezake iheslaria.

- Baina elkar adituz, "morroiak" jazar balitzaizkio estatuari, horra hor ere arrisku bat!

- Horrelako ametsik ordea, egin ote dezakete auzo diren "morroiek", beste ainitz eskualdetako "morroi" lagunak zundatu gabe eta haien laguntza eskatu aintzin? Baina haiek, nola jazarriko dira? Ez dute, ez elkarretartzeko, ez elkarrekin mintzatzeko, ez elkar agurtzeko eskubiderik. Nola bada mentura ere beren xedea lagunei agertzera, jakinez geroz zer arriskua duen ixilik egoiteak

eta zer probetxu harrigarria sekretua saltzeak. Bestalde ez duzu haien artean bihi bat, sinesten ez duenik gogorki, amore emanez, jasanez, geroan bizimolde hobearemaiteko xedea erakutsiz, bere askatasuna noizbait berreskuratuko duela. Eta egia erran, zenbait "morroi" askatzen dituzte urte guziez, beren malgutasunaren sari.

* * *

Solas horietarik landa erran nuen bestalde, ez nuela ikusten zertako ez ziren Ingalaterran ere sartzen ahal ohoinekilako lege horiek, gure legelariak hala goretsi zuen justizia hark baino ondorio hobeak bailekarzkete. Legelariak orduan hitza hartu zuen:

- Ez dira sekula horrelako legeak Ingalaterran jartzen ahalko, arrisku handiengan ezarri gabe erreinua, -eta hori erranez, burua kulunkatu zuen, ezpaina bihurtu eta gero ixilik gelditu zen. Han ziren guziak aburu bereko agertu ziren.

Kardinalak ordea erran zuen:

- Ez da erraz jakitea, aldaketa horrek aintzinatuko gaituen ala ez, froga egin ez deno. Baina epaileek herio zigorra erabaki ondoan, erregek mana dezake betekizuna luzatzea eta, aterpe-eskubidea baztertuz geroz, ohitura berriaren froga egitea. Aldaketa onuragarri izaita ager baledi, zuzen liteke haren finkatzea. Bestela, aintzinetik epaituak zirenak, erailtzera igor litezke, eta ez lirateke horrela estatuaren aldetik, ez zuzentasun gutiago ez gehiago, delako epaituak berehala zigortuak izan balira baino. Ez du ere froga horrek, arrisku berezirik ekarriko. Daukat bestalde ez litekeela gaizto gure arlote, ibilkari guziak sendabide beraren menpe ezartzea; berdin eta orai arte haientzat egin lege guziekin ez dugu deus onik atera.

Kardinaleak bere iritzia eman orduko, ni mintzo nintzelarik aburu bera gaitzetsia zuten mahaikide guziak hasi ziren, zein gehiagoka, haren goستن. Arloteen hura zuten halere, oroz gainetik aipu; hori baitzuen Kardinaleak bere burutarik asmatua.

Banago, ondoko solasak ez ote ziren ixilik uzteko hobeak; irri egitekoak baitziren. Erranen ditut halere; deus gaiztorik ez baitute, eta gure gaia nolazpait hunkitzen baitute.

Bazegoen suertez gutartean bizkarkin bat, jostakinarena egin nahiko zuena, baina hain zuen gaizki egiten, non bera baitzen egiazki jostakina. Eta haren ateraldi gatzilak farregarri ziren, ez beren erranahiarengatik, errailearengatik baizik. Artetik, itzurtzen zitzaion halere gure gizonari zentzuzko ele bat edo beste, beihalako atsotitzaren zuzenesteko doia:

"Zotzak maiz ateratzen dituenak,

"Venusen jokoa egin dezake, behin edo beste."

Mahaikide batek zioelarik, nere solasen ondotik ohoinen arazoa antolatua zenaz geroz eta Kardinalearen erranen arabera arloteen zortea segurtatua, orai behar zitzaizela herriaren laguntza ekarri, eritasunaren edo zahartasunarengatik, bizi-doia lan egin ez zezaketenei, eta ezerian eroriak zirenei, gure bizkarkinak hitza moztu zion honela mintzo zenari:

- Bego hori nere gain: behar dena egingen dut, eta ederki. Ezen, ene begietarik urrundu nahia dut jende-mota hori. Zer ez didate aintzetzan jasanarazi, diru eske heldu zitzaizkidalarik, beren negar intziriekin! Nahiz beren kantu guziengatik ez didaten behinere ardit bat edeki. Alabaina, bietatik bat gertatzen zaizu: edo ez duzu emaiteko gogorik, edo ez duzu emaiteko ahalik, deusik ez baituzu emaitekorik. Azkenean, orai hasiak dira ikasten: aldetik iragaiten ikusten nautenean, debaldetan ez aritzeko, aintzina iragaiten zaizkit, ixil-ixila.

Ez dute beraz deusik igurikatzen ene eskutik, ez alafede, apeza banintz baino gehiago!

Nik bada agintzen dut eskale horiek oro, lege batek bil ditzan eta bana beneditarren komentuetan, han anaia lego, erraiten duten bezala, izan daitezten. Emazteak aldiz agintzen dut serora izan daitezten.

Irriño bat egin zuen Kardinaleak, dena ontzat hartzen balu bezala, alegia. Bestek aldiz, irririk gabe egiaz. Bazen ere teologo bat, bera "anai"-etarik izanez, apezten eta beste fraideen aurkako ateraldi horretaz atsegin hartu zuena; izigarri ilun ohi daukan aurpegia aldatu, arrailerian hasi zen:

- Baina ez duzue eskaleen arazoa konponduko, guretzat, anaia eskaleentzat, antolamendua apailatzen ez duzueno.

- Hori egin dugu, -ihardetsi zion bizkarkinak- Kardinale jaunak arta hartu du zuetaz, erabaki duela arlote ibilkari guziak behar zirela bildu eta lanbide bat hartzera hertsatu. Zuek zarete alabaina, munduko ibilkari handienak!

Hitz horiek entzun eta begi guziak itzuliak baitzeuden Kardinaleari buruz, honek ez zuela ezetzirik erraiten ikustearekin, guziak hasi ziren perpausaren gogo onez hartzen, delako "anaia" salbu. Hau aldiz -ez da harritzeko- ozpina gainera isuri balitzaio bezala kexatu zen eta haserretu orroaz hasteraino: "Haizeen ezdeusa, salatara, gezurtia, putakumea!" erraiten zion gure gizonari eta, artetik mehatxatzen zuen Liburu Sainduak aipatuz. Orduan gure bahola egiazko baholakerietan hasten zaio, bere heinekoa kausitu baitu:

- Ez zaitezela haserre, ene anaia gaixoa! "Zuen jasankortasunari esker izanen zarete zuen buruen jabe", diote Liburu Sainduak²⁹.

Anaiak, berriz, -haren hitzak berak errepikatzen ditut:-

"Ez nauk haserretu, zirtzila! Edo bederen ez nauk bekatutan erori, Salmogileak baitio: "Haserre zaitez, baina ez bekatutan eror!"³⁰

Kardinaleak eskatu zion gozoki bere kexua jabal zezan, baina besteak ihardetsi:

- Ez, ene Jauna, gartsutasunez naiz mintzo, eginbide dudan bezala; ezen ongiaren garrak hartzen zituen sainduak, eta horrengatik errana izan da: "Zure etxearen aldeko garrak erretzen nau!", eta gure elizetan kantatzen dugu:

"Eliseoz trufatu direnek,

"Jainkoaren etxera doanean,

"Karsoilaren garra frogatzen dute,"³¹

frogatuko baitu ere, menturaz, trufari, bahola, zirtzil horrek.

- Xede onetan zabilta eiki, -erran zion Kardinaleak- baina ene ustez sainduago ez dakit, prestuago bederen bai zintezke zure eztabaida farregarri hori utz bazeneza gizon ertzo eta irrigarri horrekin gudukatu gabe.

- Ez, ez, ene Jauna, ez nintzateke prestuago ezen Salomon prestuak berak diosku: "Erantzun iezaioke ertzoari bere erokeriaren arabera!"³²; nik orai egiten dudan bezala, erakutsiz nola ziloan sartuko den, kontu ez badu emaiten: zeren Eliseoren trufari guziek -karsoil hura bakarra zelarik- karsoilaren garra frogatu baldin bazuten, nolaz ote, trufari bakar horrek ez du horrelako anaia saldoaren -hauetarik asko karsoilak direlarik- gar gogorra frogatuko? Aita Sainduaren gutun bat ere badugu, gutaz trufatzen diren guziak eskumikatzen dituen.

Solasak ez zuela eteterik ikusi zuenean, Kardinaleak keinu batez despeditu zuen bizkarkina eta solasa poliki beste bide batera eraman ondoan, mahainetik zutitu zen laster. Gero bere itzalpekoen arazoak behar zituela zuritu, konjit eman zigun guri.

- Ai, Moro, ene adiskidea, hau elasturia bota dizudana! Ez nintzen eiki menturatuko hain luze egitera, zuhaurk ez bazenit artoski eskatu eta behatu solasaren xehetasun

xeheena galtzera utzi nahi ez duen entzuleak bezala. Nahiz apur bat tinkoago mintza nintekeen, behar nituen bizkitartean zehaztasunak osoki eman, jende horiek zuzen ezagut zenitzan: gauza berak alabaina, irrigarri zeuzkatenak nik aipatzen nituelarik, ederresten zituzten gero kuxean, Kardinaleak ez zituelakotz gaitzetsi. Hainbestetaraino ziren Kardinalearen aburu bereko nahiak, non bizkarkin baten menskeriak, beren jaunak jostaguraz eragozten ez zituenak, lausengatzen baitzituzten haiek, eta berdin egiaz ontzat hartzen. Ikus ezazu hortik, zer estimu genukeen gorte-gizonenganik, nik eta nere aholkuek.

- Zinez, Rafael maitea, -ihardetsi nion- atsegin handia egin didazu! Hain dira zure erran guziak, zuhurtziaz beteak eta graziaz! Gainera, mintzo zintzaizkidalarik iduritzen zitzaidan hurrean ene haur-eskola izana den Kardinalearen gorteko oroitzapen goxoak berritzen zenituenean, itzultzen nintzela ez bakarrik sorterrira baina ere haurtzarora. Gizon horren oroitzapena hain gartsuki aipatu duzunean, ez dezakezu sinets ene Rafael maitea, zuri ja atxikia bainintzen, zein gogokoago zaitudan oraino.

Ez dezaket bestalde neholaz ere, alda ene iritzia: bai zinez uste dut, zure aholkuek esker handia egin liezaioketela herriaren onari, onar bazeneza printzeen gorteak ez horrenbeste higuintzea. Ez duzu beraz, herrigizon agertzea baino eginbide hertsiaigorik. Zure Platon handiak³³ egia baldin badio, herriak dohatsu izanen direla, edo filosofoak errege, edo erregeak filosofo diratekenean, dohatsu izaitetik urrun gaude oraino, filosofoek beren aholkuak ez dizkietenaz geroz erregeei nahi eman.

Rafaelek orduan erran zuen:

- Ez dira filosofoak horrelako jende bihurriak: beren aholkuak gogotik eman ohi dituzte; ainitzek liburuak ere argitaratu dituzte. Boterean direnak, haien kontseilu onen entzuteko prest balira! Baina Platonek ontsa ikusia zuen, haur-haurretik irakaspen okerrenetan haziak eta kutsatuak zirelaket ez bazuten berek filosofiarik egiten, ez zituztela erregeek, sekula funtsez hartuko filosofoen aholkuak: berak ere hori frogatu ahal izan zuen, Dionisioren gortean. Ez ote duzu uste, edozein erregeri neurri zuhur zerbait aipa baniezaio eta haren gogotik makur ainitzen hazi gaiztoak kentzen saia banendi, berehala ni ere, edo ohil nintzakeela edo irrigarri ezar?

* * *

Demagun Frantziako Erregearen gortean nagoela³⁴ eta haren kontseiluko partaide naizela. Jauregiko gelarik ixilenean, errege bera mahaipuru, erreinuko gizon prestuenen batzarrean, arta handirekin ikusten ari dira, zer kariaz, zer jukutiaz atxikiko duen erregek Milano hiria eta erakarriko ihes doakion Napoli hiria; gero nola garaituko dituen veneziarrak, nola menperatuko Italia guzia, gero Flandes, Brabantia, Burgundia osoa, eta beste herrialde asko oraino, aspaldian haien lurak beretuak baititu, ametsetan... Orduan aholkulari batek kontseilatzen du veneziarrekin tratatu bat egin dadin, erregeren interesak manatzen dueno begiratuko dena; hitzartze-solasak has daitezke haiekin. Zergatik ere ez utz haien esku harrapakinen parte bat, geroago berreskuratzeko xedetan? Beste batek kontseilatzen du, alemanak hartzea mertzenari; beste batek berriz, helvetiarrak, diruz lausengatzea; beste batek oraino, enperadore ospetsuaren gogoa³⁵ erregeren alde itzularaztea, urre-opariak hari eskainiz.

Eta honek uste duelarik Aragoiko erregearekin behar dela antolatu haren esku utziz bakearen berme, beste baten ukantza den Nafarroako erreinua³⁶, beste hark anartean dio Gaztelako printzea dela behar amainatu, ezkontza zerbaiten mentura eskainiz³⁷, eta haren gorteko jauneria Frantziaren alde erakarri, errenta-seguruak hitzemanaz.

Hona non datorren arazo korapilotsuena: anartean zer egin Ingalaterrarekin? Bake-solasak erabiliko dira orobat harekin eta lokarri sendonez finkatuko, beti haustera doan harekilako elkartasuna: adiskide izena emanen zaio, baina etsaitzat edukiko da. Eta beraz eskoziarrak³⁸ atxikiko dira erne, barrandariak bezala, lehen paradan Ingelesen gainera jauzteko prest, hauek higi balitez. Xede beraz ixilean, ez agerian, herriarteko legeen arabera ez baita zilegi, lagunduko da atzerrian bizi den printze bat, erregegoa beretu nahiz ari dena, giderretik atxikitzeke nolazpait beti susmagarri den Ingalaterrako Erregea.

Baina orduan, horrelako zalaparten artetik, eta beren xede guziak zeinek gehiago gerlari buruz biltzen ari diren jaun handien erdian, eman dezagun, naizen bezalako giza txar hau zutitzen naizela, belak itzul daitezen manatzen dudala, erranez Italia bere alde utzi behar dela eta etxean egon; Frantzia bera kasik handiegi baita ontsa gobernatzeko eta erregek ez baitu gogoia berotu behar besteen eremuak bere ontasunei eratziki nahiz.

Eman dezagun gainera, gure aholkulariei akoriatarren legeak³⁹ aintzin eratzen dizkiedala: lurralde hori Utopiako hegoaren ekialdetik aurkitzen da. Horko herritarrek lehen, gerlan ibiliak ziren beren erregearentzat eskuratu nahiz beste erresuma bat; errege horrek, aspaldiko ondoriotasun baten izenean beretu nahi zuena.

Irabazi ondoan, ohartu ziren ordea, erresuma haren eskuratzeak bezainbat lan emaiten ziela haren begiratzeak: hala nola nahasmenduak ez ziren atertzen, ez herri barneko jazargoak, ez menperatuen aurka atzerritik etorri erasoaldiak; hori dela eta, behar zen beti gudukatu, batean menekoen alde, bestean haien kontra; sekula ez zen soldaduen etxerat bidaltzerik. Anartean diru-kutxak husten ari ziren; urrea kanpora zihoan; atzerritarren onetan isuri behar zen herriaren odola; gerlak baino geriza hoberik ez zuen bakeak emaiten; etxeko ohiturak, gerlak gastatzen zituen; lapurketako gogoa orotan sartzen ari zen; erailketako ausartzia, finkatzen; lege-mota oro, trufatzen; eta horiek guziak, errege bakar batek bi erresumen ardura ukanez, ez ziezaiokeelakotz bakoitzari eman beharko zuen arta osoa. Azkenean, ateka gaitz horretarik ilkitzeko ez zela beste biderik ikustearekin biltzarra deitu zuten eta beren erregeri jendetasunez galdetu zioten, bi erresumetarik zein nahiago zuen begiratu, zeren ez baitzituen biak batek erabiltzen ahal: jende gehiegi bazeukaten errege erdi batek gobernatzeko. Nork onar lezake alabaina, beste batekin partzuergoan ukaitea mandazain bat? Hots, delako errege onak adiskide bati utzi behar izan zion, bere erresuma berria - nahiz adiskide hura ere laster aizkatu zuten- eta beretzat atxiki lehengoa.

Eta gero, erakuts baneza bestalde, gerla-zalaparta horiek guziak, horrenbeste erresuma nahasten dituztenak, erregeren ohoretan kutxak hustu eta, herria akitu ondoan, zerbait balentria gorabehera debaldetan amaitzen direla, eta beraz erregek bere arbasoen erreinuaz duela behar arta hartu! Hura apain dezala bada, ahal bezainbatean; hura egin eder eta lore; herritarrak maita ditzala, eta maitatua izan dadila! Herritarren erdian bizi bedi; haiei eztiki aginduz!

Eta beude bakean, beste erreinuak! Bere gain duen horrek berak emanen dio, aski eta gehiegi, zer egin. Nola uste duzu, Moro adiskidea, hartuko didatela horrelako hitzaldia?

- Ez menturaz batere gogo onez, -ihardetsi nion.

- Goazen beraz aintzina, -erran zidan Rafaelek- eta demagun, gure aholkulariak ari direla solasean errege batekin⁴⁰, nola dirua biltzen ahal den erreinuko kutxetara ezin asmatuz. Batek aipatzen du diruaren balorea goititzea, erregek berak dirua atera behar duelarik, eta bere neurri zuzenetik behera apaltzea sarrarazi behar duelarik; zor handiak estaliko ditu horrela, diru gutirekin; eta hartze apur batzuentzat, sartze ederrak egingen.

Beste batek kontseilatzen du, diru-meta gaitza biltzeko aitzakiarekin, alegia, gerla baletor bezala egin dadin. Gero, ordu onean, bakea egingen da eta elizkizun handitan ospatuko, lilura dadin jende xheha, ikusiz nola printze on eta gartsu batek gupida duen bere menpekoen odola.

Norbaitek gogorarazten dizkio erregeri lehengo lege bipiatu, aspaldian zaharkitu batzuk; nehor ez baita oroitzen izan direnik ere; orok ohargabea hausten dituzte; eratxikiak zaizkien isunak sarraraz daitezela. Ez daiteke nehon, diru-iturri nasaia gorik, ez ohoragarri gorik; justiziaren itxura dakarrenaz geroz.

Beste norbaiti gogoratzen zaio, isun gogorrenez joitea, ainitz ohitura; bereziki herri xeheak kexatu gabe galtzera utziko dituenak. Gero debekua jasangaitz zaienei, salbuespena emanen zaie dirutan eta horrela, jende xehearen esker ona ardiestearekin batean, herriko kutxari irabazi bikoitza ekarriko zaio: beren irrikak zerga-biltzailearen sareetara erorraziti dituenen isunak alde batetik, erregeren bertutea handiago eta arabera saria gorago izanen duten salbuespenen dirua bestetik.

Diru ainitzen sari baizik ez diezaioke alabaina errege zuzen batek edozeini eman -eta zer bihozminarekin!- herriaren onari kalte ekartzen dion salbuespenik.

Beste batek kontseilatzen dio erregeari, hauta ditzan beti epaileak, edozein auzitan erregeren alderdia hartuko dutenak. Gizon horiek beharko dira jauregira deitu, eta erregeren aintzinean, haren arazoez hitzegitera gonbidatu. Errege barne den auzi guzietan -nahi bezain itxura txarra ukanik ere- izanen da horrela beti, epaile horietarik bat, edo kontraesan beharrez, edo bestek errana errepikatzeko herabez, edo erregeren faborea ardietsi nahiz, zirrikitu bat aurkituko duena, hortik sartzeko bere jukutria. Orduan, epaileek ikuspegi desberdinak izanez, berez guziz argi den auzia eztabaidatzen da, egia zalantzan jartzen eta erregeri emaiten zaio, legearen bere alde itzultzeko behar duen lotkia. Duda-mudan direnak erakarriko ditu ahalkeak edo beldurrak, eta horrela jarraian, auzitegiak har dezake gupidarik gabe bere erabakia. Ez zaio aitzakirik faltako epaileari printzearen alde erabakitzeko: aski du aipatzea, edo zuzentasuna edo legearen errana bera edo pasarte ilun baten adierazpen eratorria edo azkenean, beti minbera diren epaileek, lege guzien gainetik jartzen duten erregeren eskulehen ezin ukatua. Bat egin dezatela bakarrik epaile guziek Krasoren esaldi aipatu hau, onartzeko:41

"Ez du sekula aski diru, armada mantenatu behar duen erregeak,

"eta erregeak ez dezake deus gaiztorik egin, nahirik ere."

Ontasun guziak harenak dira alabaina; gizonak berak ere. Ez du bakoitzak bererik, erregeren bihotz onak kendu ez diona baizik; eta hori ahalik gutiena izan dadin, ainitz axola zaio erregeri.

Erregeren gerizak eskatzen du eta, herria ez dadin eror aberastasunezko eta askatasunezko errazkerietan; erraztasun horiek jasangaitz egiten baitizkiote agindu makur eta gogorrak; eskasiak aldiz eta gabeziak kamusten ditu eta pairakor bihurtzen gogorik zorrotzenak; bai eta zapalduak jazartzeko behar duten bihotz handi eta emankorrari dio kentzen bere indarra.

Orduan berriz zuti banendi erran nezake aholku gaizto eta kaltegarriarik baizik ez zaiola emaiten erregeri; eta erregeren ohorea eta geriza bera, herriaren ontasunetan hobeki finkatzen direla, harenetan baino. Erakuts nezake herritarrek errege hautatzen dutela, ez haren onetan, baina beren abantailetan; haren garrari eta lanari esker berak hobeki bizi daitezen; kalte orotarik maldan. Erregek beraz, artzainak bezala, ardien bazka bilatzen baitu, berea baino lehen, herriaren onaz behar du arduratu bereaz baino lehen, artzain den neurrian. Herriaren miseria dela bakearen bermea diotenak guziz makur dabilta. Hori, berez ageri da: ezen, non aurkitzen duzu, eskaleen artean baino aharra gehiago? Nork du saminkiago iraultza bilatuko, bizi duen egoeran gutienik laket denak baino? Ez ote da ausartenik, bazter guzien nahastera oldartuko, nonbaitetik zerbait irabazteko menturan, nehon deus galtzekorik ez duena? Eta edozein errege, bere herritarrek hala erdeinatu edo higuindu baldin badute non haien bide zuzenean begiratzeko, behar baititu bere bidegabekeriez, zergez eta bahikuntzez, eskaleen mailara erautsi, hobe luke horrelako batek erregegoari berehala uko egitea, ezenez errege izena uzten, baina goikotasuna kentzen dioten jukutriez atxikitzea. Erregearen ohorea da,

herri dohatsu eta aberats baten buruzagi izaitea; ez eskale-saldo baten aintzindari. Hori bera zeritzon Fabrizio⁴² deitu bihotz zuzeneko gizon handi hari, aberatsen buru izan nahiago zuela zioelarik, bere burua aberats ikusi baino. Eta atseginez eta gozokeriaz asebetetzen dena, negar-intziririk baizik ez delarik ozen haren inguruan, ez da egia erran, erreinuaren zaina, presondegiarena baizik.

Hondarrean, ez da sendagile ona izaiten ahal, gaitz bat sendatzen ez dakiena, beste bat emanez baizik; eta berdin, herritarren bizimoldea zuzentzeko, herriko biziaren gozoa kentzeaz beste biderik ezagutzen ez duen buruzagiak aitor dezala herri askatu baten buru izaiten ez dakiela. Zertako ez lezake lehenik senda bere nagikeria edo bere harrokeria? Zeren, bi gaitz horiengatik gertatu ohi da, herriak erdeinatzen duela edo higuintzen. Nehori kalterik egin gabe bizi bedi eta bere etorkizko ontasunetarik, sar-eralgiak elkarri aurrinduz! Gaizki eginak zigorka ditzala! Erakunde prestu batzuei esker gaizkitik begira daitezela herritarrek, gaiztakerietan aintzinzatzeko orde gero zigortzeko xedetan! Ohiturak ezeztatu dituen legeak ez ditzala, funtsik gabe, printzeak berregin, bereziki aspaldian desohiturik daudenak eta nehork nehoiz damu izan ez dituenak! Ez dezala ere erregek, bahitzeko aitzakiaz deus beretzat begira, epaileak hartzera utz ez liezaiokeenik, bidegabezki eta zimarkuz baizik!

Eta orduan, zer gerta liteke makariarren legea⁴³ aipa baniezaie? Herri hori ez dago Utopiako uhartetik hain urrun. Horko Erregeak kargua estreinatzen duen egunean zin egiten du, eliz opari handiak eskainiz, mila libera urre edo urre horren heina diru baino gehiago ez duela sekula edukiko betan bere kutxetan. Bere herriaren onaz bere aberastasun propioaz baino axola gehiago zuen errege on batek ezarri zuen oholetan lege hori,

herri xeheari horrelako diru-metatze batek lekarkiokeen diru-eskasiarik ez zedin gerta.

Delako diru-kopurua, berez askiko zen, bai jazarleei Erregeak buru egiteko, bai atzerriko etsaien erasoei erresumak ihardokitzeko, baina ez zen aski izan behar auzo-erresumetan sartzeko gogoia pizteko: hauxe izan zen legea ezartzeko xede nagusia. Ondoko asmoa izan zen, herritarren eguneroko salerospenentzat ez zedin gerta diru-eskasiarik. Azkenekotz, legezko neurria gainditzan zuen diru guzia banatu behar bazuen erregeak, nehoi kalte egiteko paradarik ez zuela bilatuko gizon horrek, igarri zuen legegileak: horrelako erregea lotsagarri izanen zen gaiztoentzat eta maitagarri jende onarentzat.

Baina gogoeta horiek eta horiek iduriak aipa banitza osoki bestaldera itzuliak dauden lagunei, ez ote ninteke, "elkorrei erasian ari" bezala?

- Bai eta elkorretan elkorrenei bezala -nion erantzun-. Ez da dudarik eta ez naiz harritzen. Egia erran, ez dut uste balio duen, horrelako hitzaldiak egiteak, horrelako aholkuak emateak, badakizunaz geroz ontsa, ez dituela nehoi onartuko. Zer balio du? Eta nola, hain solas ezohizkoek hunkiko dituzte, guziz bestelako iritziek eta grinek beterik dauzkaten gogo-bihotzak? "Eskolako" filosofia⁴⁴ horrek bere grazia badu adiskideekin lagunartean eztabaidatzen denean. Bestela, printzeen kontseiluetan, buruzagi handien artean auzi premiatsuak zurriz direlarik, ez dute solas horiek lekuri.

- Nik nioena, hori bera da, -zidan atera Rafaelek- filosofiarentzat ez da lekuri printzeen jauregietan.

- Egia handia, -ihardetsi nion- ez da lekuri, nonnahi zernahi aterabide on dela dioen "eskoletako" teoriarentzat; beste filosofia bat badago, gizartekoagoa, antzeztokia kontutan hartzen duena eta hari egokitzen zaiona:

antzerkian haren esku den eginkizuna betetzen du xarmanki eta apainki. Filosofia hori duzu behar landu. Bestenaz, Plautoren komedia bat emaiten dutelarik eta jokolari gazte batzuk ergelkerietan ari direlarik, zu agertzen bazara antzeztoki aintzina filosofo-jantzitan eta hasten bazara Oktavia⁴⁵ antzerkitik Neron eta Senekaren arteko elkarriketa bat aldarrikatzen, ez ote duzu hobe jokolari ixilarena egitea, ezenez eta tragedia-komedia saltsa hori sortzea, zure ateraldi hori nonbaitik ekarri? Gastatu duzu eta irauli aintzineko ikusgarria, zure bestelako gaiak nahasiz; zuk ekarriak, berez hobeak izanik ere. Edozein izan dadin zure eginkizuna, hura bete ezazu, ahalik eta hobekiena; eta ez oro nahas, baizik eta pasarte zoragarri bat gogoratu zaizula.

Eta berdin erreinuko auzietan; berdin printzeen kontseiluetan. Ez baditzakezu iritzi okerrak errotik atera, ez eta ere zure gogoaren arabera senda sustraitu ohi diren gaitzak, ez duzu zeren horrengatik errekan utz erreinua. Ez duzu alabaina, galernaren erdian untzia bere bide utziko, haizea menderatzen ahal ez duzulako aitzakiagatik.

Ez da beraz, guziz bestelako aburuak darabiltzaten gizonen izpirituan, jakina, hazta guti izanen duten ustegabeko ideia arrotzen sarrarazten ari behar. Zeharkako bidea hobe duzu hartzea eta hortik lehiatzea zure eginkizun guziak gizonki eta abilki eramanez: onera bihurtzen ahal ez duzuna, balia bedi bederen, ahal bezain kalte guti izan dadin. Gizon guziak ontzen ez direno, ez baitira zer guziak ontsa joaiten ahalko, ez dugu ainitz urtez horren igurikatzerik.

- Baina, -erran zidan- ez ote liteke hori, zoroekin zorokerian erortzea; haien zorokeria sendatzera lehiatzen naizen unean. Egia erraitekotz, ja erranak behar ditut

berriz erran. Filosofo batek gezurrik erran dezakenetz ez dakit. Nik, hasteko ez. Halako latz eta garratz bat bazutela ene solasek iduritu zaie beharbada gorteko lagunei, baina ez dut ikusten zertan, arrunt zoroak izaiterainoko arrotz-itxura izan behar duten. Platonek bere Errepublikan⁴⁶ asmatu dituenak edo utopiarrek beren erresuman egiten dituztenak kontatu banitu, ohitura horiek hemengoak baino hobeak izanik ere -eta zinez hala dira- orduan bai nik erranak arrotz zitzaizkiekeen, ezen hemen bakoitzaren ontasunak pribatuak dira, han aldiz guziak, guzienak.

Orai, kontrako bidetik, buruz behera joaitea erabakia dutenentzat, ene eleak ez daitezke atsegin; iragan lanjerak eta heldu diren arriskuak baitituzte gogoratzen, baina bestela, zer dute solas horiek, nonnahi aldarrikatzeko on eta baitezpadako ez denik? Egiaz ixilean atxiki behar balira, zorokeria eta arrozkeria estakuru, batzuen ohitura nahasiengatik arrotz-itxura duten guziak, ixilean eduki beharko ditugu Kristauek Jesukristoren irakaspen gehienak; gordetzea debekatu dituenak berak ere; hala nola, "belarrira berak murmurikatu zizkiotenak bere ikasleei, etxe gainetan aldarrikatzea", agindu baitzieten. Askoz ere gorteko jende horien ohituretarik urrunago dabil, Jesukristoren irakaspen gehiena, ene solasa baino. Badakit predikariak, jende artezak baitira, zuk eman kontseiluari jarraitzen zaizkiola: ikusiz, gizonak nekez menperatzen diotela Kristoren legeari beren bizimoldea, bizimolde horri makurtu diote, berunezko erregela bat bezala, haren irakaspena; uztartzen dituztela nolazpait, bat eta bestea. Ez dut ikusten hortik zer irabazi den,

baizik lasaiago egiten dela gaizkia. Eta nik ere, hori bera irabaz nezake printzeen kontseiluan partehar baneza. Zeren eta, besteez ez bezalako iritziak agertzen baditut, iritzirik batere ez ukaitea bezala daiteke; besteen aburu berak onartzen baditut, Terentzioren "Micion"⁴⁷, delakoak dioen bezala, haien erokeriaren laguntzaile gerta naiteke. Zure "zehar-bide" hark berriz, ez dut ikusten zer erran nahi duen, ez buruz nora behar garen lehiatu, zuk diozularik: "Ez badira denak onera bihurtzen ahal, erabil bitez bederen artezki ahal bezain kalte guti izan dadin". Baina gortean ez duzu zure gogoia gordetzen ahal; ez zaizu zilegi begiak herstea bakarrik; behar dituzu xede okerrenak deplauki onartu; eta izurritea baino erabaki kaltekorragoak izenpetu. Ez baduzu aski gora handiesten delibero zitalena, "maltzur" edo bertin "ustel" fama leporatzen dizute.

Gainera ez duzu sekula deus onuragarririk egiteko paradarik izaiten, ezen munduko gizonik hoberena izanik ere, batzar horietan sartuz geroz errazkiago lagunek kutsatuko zaituzte zu, zuk haiek bide onera ekarriko dituzun baino: edo haiekilako harreman gaiztoek galduko zaituzte, edo zure zuzentasuna eta zure garbitasuna, beren gaiztakeriaren eta beren zorokeriaren aitzakiatzat hartuko dute; hain urrun gara deus onik ateratzetik zure "zehar-bide" harekin.

Alegia eder bat darabil Platonek⁴⁸, erakusteko zergatik jende prestuak bazter dauden zuzenki, zeregin publikoetarik: jendea ikusten dutelarik karriketan ibilki, bustitzen ari, euria ez delakotz atertzen, eta ez diotelarik sinestarazten ahal aterpera joan behar dela euriari ihesi, orduan herritar prestuak etxean gelditzen dira; baitakite berdin, ez dutela deus irabaziko ateratzen baldin badira; bestekin batean bustitzea baizik. Berak barnean egonez aldiz, besten zorokeria ez badute sendatzen ahal, beren buruak bederen aterpean dauzkate; eta aski zaie.

Dena dela, ene Moro maitea, ene barneko berri egiaz erraiteko,

abego pribatua lege delarik eta zer guziak dirutan neurtzen direlarik ez da erresuman finkatzen ahal ez zuzentasunik ez aberastasunik, non ez duzun sinesten ontasun onenak gizon gaiztoenen esku izaita zuzen dela eta zoriona datorrela aberastasun guziak elkarren artean banatzen dituztelarik deusen eskasik ez duten bakar batzuek; besteak gabezia gorrian daudela.

Horra zergatik gogoratzen zaizkidanean utopiarren erakunde prestu eta sainduak, hain lege gutiz, hain errazki, ontasun guziak gobernatzen baitituzte; bertutea preziatzen baitakite; eta banaketa egoki bati esker orok orotarik nasaiki gozatzen baitute; gero ohitura horien parean ezartzen ditudanean beste herri askorenak, beti lege berri egiten baitihardute; nehoiz ordena egokirik, horiekin guziekin, ezin finkatuz; han ukantzaz zerbait daukan bakoitzak, hura bere "ontasun pribatua" deitzen baitu; han ere, egun guziz sortzen diren lege berriek ez baitezakete ardiets bakoitzak eskura, begira, edo bederen bestenetik bereiz dezan bakoitzak bere aldian deitzen duen bere "ontasun pribatua", -beti berritzen eta nehoiz amaitzen ez diren auzi guziak hor dira lekuko- bai diot, horiek oro gogoan hartzen ditudanean, zuzenkiago mintzo naiz Platonez eta ez naiz hala harritzen, aberastasun guziak guzien artean berdin banatu nahi ez zituzten herritarrentzat legerik egitea ez baitzuen onartzen jakintsu handi horrek. Salbabide bat baizik ez dela herriarentzat ontsa ikusia zuen alabaina gure gizon prestuak: aberastasunen berdinketa behar da egin eta ez dakit berdinketa hori sekula ardiesten ahalko denetz bakoitzaren ontasunak ontasun "pribatu" dauden tokian.

Zeren norbera edozein tituluz balia daitekeno ahal guzia bereganatzeko, herritar bakar batzuek eskuratzen dituzte mozkin gehienak, -hauek nahi bezain nasaiak izanik ere- eta besteak uzten dituzte gabezian. Alta maiz azken hauek, besteak baino gehiago dira zorte onaren hartzeduru: haiek ezdeusak dira, ohoinak eta harrapariak; hauek aldiz, apalak, xeheak eta, beren egun guzietako lanari esker, berentzat baino gehiago herriarentzat onuragarriak. Zin-zinez uste dut beraz, jabego pribatua ez baldin bada osoki suntsitzen, ez dela izaiten ahal ontasunen banaketa egoki eta zuzenik; eta munduko gorabeherak ez daitezkeela bide onetik eraman.

Jabego pribatuak iraunen dueno, gizarteko zati handienak eta onenak beharko du beti jasan gabeziaren eta miseriaren zama hertsagarri itzurezina; eta apur bat arin baledi ere, daukat ez dela neholaz osoki altxatzen ahalko. Ezen erabakitzen baldin bada adibidez, nehor ez dela honelako alor eremuaren baizik jabe izaiten ahal; honenbeste diru baizik ez dela zilegi bakoitzak ukaitea; lege berezi batzuei esker ez dela indartsuegi izanen errege, ez populua bihurriegi; herri-gizonen karguak ez direla salgai izanen, ez jukutriaz eskuratuko; xahupen naharoak egitera ez dela nehor hertsatuko, ez dadin gero lehia berreskuratzen bairaz edo ohointzaz horrela xahutu dirua, eta bestalde, ez daitezen aberatsen eskutan geldi herritar prestuenentzat izan behar diren karguak; hots horiek oro egiten badira, erranen dut, eri etsituen minak ezigailu jarraikiek eztatzen dituzten bezala, gizartearen gaitzak gozatzen eta tipitzen ahalko direla; baina osoki sendatzeko eta aintzineko onera itzultzeko menturarik ez da izanen, bakoitzak bere ontasunak bere dauzkano:

alde honen artatzen ari zarelarik beste zauri hori gaizkontzen zaizu; eta nola, bati kendu gabe ez baitiezaiokezu besteari deus eman, honen sendatzeak haren gaizkitzea dakar ordainez.

- Nik aitzitik, -ihardetsi nuen- guziz besterik uste dut: ontasun guziak guzienak izanen direnean ez dela neholaz bizitzeko erraztasunik izanen. Nola bada ausarkia altxa daiteke, bakoitza lanari ihesi baldin badoa nehor ez duelakotz bere beharrak akuilatzen, eta bestek egin lanaren menturak nagikeriarat baitarama. Ezeriak bestalde zirikatzen du gogoia; eta nehongo legeak ez du zaintzen bakoitzak ukantzaz beretu duena; ez ote da orduan gizartea nahitaez hondatuko etengabeko erailketa eta nahaskerietan? Gainera, agintarien larderia eta beldurra ezabatuz geroz desberdintasunik batere ez bada herritar guzien artean, nola diozu toki bat bereiziko bakoitzari gizartearen barnean? Ez dezaket asma ere horrelakorik.

- Ez zait handi, zuk hola uste izaitea, -erran zidan Rafaelek- ez baituzu ukan kasu horren itxurarik ere, non ez den gezurrezkorik. Baina, Utopian izan bazina enekin eta nik bezala hango erakunde eta ohiturak ezagutu bazenitu, -bost urte baino gehiago han iragan ditut eta ez nintzen handik sekula aterako Mundu Berri horren ezagutarazteko izan ez balitz- orduan bai gogotik aitortuko zenuen ez duzula, nehon, nehoiz ikusi herri ongi eraturik, han baizik.

- Nik hasteko, -erran zuen Pedro Egidiok- nekez sinetsiko dizut, mundu berriko herrialde hori guk ezagutzen dugun eskualde hau baino hobeki antolatua dela; ezen gure izpirituak ez dira besteak baino gibelago; gure erreinuak hangoak baino zaharrago dira nik uste; ohitura luze batek bizitzeko erraztasun asko eskaintzen digu;

eta gainera, bere baitarik nehork asma ez zitzakeen aurkiberriez zori on batek duntu gaitu.

- Erreinuen lehentasunaz ari bazara, -erantzun zion Rafaelek- zuzenago zenbilzke, hango historia irakur bazeneza: gure eskualdeetara gizonak agertu baina lehen han hiriak ba omen zeuden, haien arabera. Eta gizonen izpirituak edo zori on batek asmatu dituen aurkiberri haiek, han ala hemen, bi aldeetan kausitu ahal izan dira. Badakigu berdin, izpirituaren dohainez guk garaitzen badiugu ere, haiek erraz nagusi ditugula laneko artaz eta garraz. Beren urtekarien arabera, gu etorri aintzin, - "Gauberdin-haindikoak" deitzen gaituzte- gure eta guretarren berririk ez zuten behinere ozen. Duela hamabi ehun urte ordea⁴⁹, itsasuntzi bat, galernak erakarririk, hondatu omen zen Utopia uharteko aldean; erromatar eta egiptoar batzuk lehorreratu zituzten uhainek, eta betikotz han gelditu ziren. Ikusi behar da nola utopiarrek beren lanari esker, baliatu zuten parada hori!

Ez da lanbiderik, erromatarrek zerabiltenik eta utopiarrek berek nolazpait balia zezaketenik, edo beren ikusliarrenganik ikasi, edo haiek eman xehetasunei esker berraurkitu ez dutenik; horra nola, hemengo gizon bakar batzuen ikustaldi bakarraz baliatu diren utopiarrek. Zorte berak aldiz, lehen, hango nor edo nor gutartera ekarri baldin badu, ez dugu horretaz oroitzapenik batere... eta hori bera gertatuko zaie gure ondokoei, ez baitira oroituko noizbait han gaindi ibili nintzela.

Baina elkarretaratze bakar bat aski izan bada, utopiarrek gureganik ikas zitzaten beren gozorako gure aurkiberri guziak, ainitz urte beharko da nik uste, guk geuretzat har ditzagun haien erakundeak; gureak baino hobeak direlarik. Horra zertako, bakarrik, ez garelarik ez aberastasunez ez jakitatez haien gibeletik, haien herria -bai aitor dezagun- gurea baino hobeki gobernatzen den eta distiratzten duen gureak baino gehiago.

- Zuk beraz, Rafael maitea, -erran nion nik- erraguzu, otoi, nolakoa den delako uharte hura eta xehetasunetan sartzeko ez beldur izan. Bere aldian aipa itzazu alorrak, ibaiak, hiriak, gizonak, ohiturak, erakundeak, legeak eta orobat, zure iduriko, ezagutu nahi ditugun guziak; ez dakizkigun guziak jakin nahi ditugula, jakin ezazu.

- Bai, bai, eta gogo onez, -erantzun zidan- xehetasun guziak gogoan dauzkat oraino, baina beharko dugu astia.

- Goazen beraz bazkal lehenik, -erran nuen nik- gero hartuko dugu behar den astia.

- Gogotik, -ihardetsi zuen Rafaelek.

Barnera sartu ginen horrela, bazkaltzeko. Bazkal ondo toki berera itzuli ginen, jargi beretan jartzera. Gero zerbitzariari gomendaturik ez zezaten nehor utz guregana hurrentzera, Pedro Egidiok eta biek Rafael otoiztu genuen, hitzeman bezala egin zezan. Honek beraz, berari beha eta bera entzun-gosez geundela ikusirik, eta apur bat, ixil-ixila gogoeta egonik, bere hitzaldia hasi zuen honela...

LEHEN LIBURUAREN AZKENA

SERMONIS QVEM

**RAFAEL HITLODEOk, herri-eratzte hoberenaz, egin zuen
hitzaldiaren bigarren liburua,
Tomas Moro, Londres hiriko herritar eta bizkondeak emana**

U

topiarren uharteak, bere erdialdean -hor baita zabalenik- berrehun mila urrats dauzka eta bere eremu gehiengean ez da hainbat meharago, nahiz piskanaka hertsitzen den bi buruetan; hauek biak makurtzen baitira bostehun mila urratseko uztaia moldatuz, berpiztera doan ilargiaren itxura emaiten diotela uharteari. Ilargi horren bi adarrak bereizten dituzten hamaika mila -guti gorabehera- urratsen artetik, sartzen dira itsasoko urak eta hedatzen golko zabal batean; alde orotarik inguratzen duten munoeak haizeetarik maldatzen duten eremu guzia eta, ekaitzak bekan harrotzen duen laku handi bat moldatzen. Lurralde horren altzo osoa ezbaian hartzen duen portuan barna, harat-honat badabiltza itsasuntziak herritarren zerbitzutan.

Bokalea beldurgarria da, urpearengatik batetik, harkaitzengatik bestetik. Pasaian erditsutan harkaitz handi bat nabari

da, -ez beraz kaltegarri- bere gainean eraikia duela dorre bat bere zaindari moltsoarekin. Beste artak aldiz gordeak dira eta enganakorrak, uhartearrek bakarrik dakizkitez ubideak. Horra zergatik ez den maiz arrotzik ikusten utopiar pilotu baten laguntzarik gabe badiako uretan sartzera menturatzen. Uhartiarrak berak ere beldur litezke, lehorretik ez baliete zeinu batzuek bidea erakusten. Eta aski liteke zeinu horien lekuz aldatzea etsaien untzi-taldea -nahi bezain handia izanik ere- erraz hondoratzeko. Kanpoko aldetik ez da portu eskasik, baina lehorreratzeko gune egokiak orotan hain ongi zainduak dituzte, artez edo berez, non zenbait zaintzale bakar aski baitira etsaien osteak urruntzeko.

Bestalde, erran zahar baten arabera eta lurraldearen itxurak berak erakusten duen bezala, itsasoak ez zuen lehen lurralde osoa inguratzen, baina Utopo, 50 bere garaipenaren ondotik uharteari izena eman zion gizona -aintzinean "Abraxa"⁵¹ deitzen baitzuten delako uhartea- eta kulturaren eta jendetasunaren mailan gizaldi gutiz gehienak baino gorago horko talde basa eta arrunta ezarri zuena, lehen oldarrean berean nagusitu baitzen, hark zuen beraz muturra lehorrari lotzen zion hamabost mila urratseko lurbesoa moztu eta uharte berriaren inguru osora itsasoa ekarri. Horren egiteko, ez zituen bakarrik lekuko bizitiarrak lanera hertsatu, baina ez baitzuen nahi laidotzat har zezaten lan-molde hori, bere soldaduak igorri zizkien laguntzera. Horrelako langile ostearen artean ongi banatuz geroz, zein laster bururatu zen lana, ezin sinetsia da; eta auzo-herriek, hastapenean irrifarrez "zorakeria" horri zeudenek, miretsi zuten ondorean ekintza eta beldurrak inarrosi zituen.

Berrogeita hamalau hiri badauzka uharteak; guziak handiak eta aberatsak.

Mintzaira, ohiturak, erakundeak eta legeak berdinak dituzte. Guziek antolaketa berdina dute eta lekuak nahi duen neurrian itxura bera. Haietarik auzo-lehen direnek, hogeita lau mila urratsen bidea dute elkarretarik, baina ez da bihi bat bestetarik hain urrun non ez zaren hara heltzen ahal oinez egun baten bidean.

Uharteko gorabeheren elkarrekin zuritzeko, urtero hiri bakoitzetik, hiru herritar adineko eta aditu elkarretaratzen dira Amarauteko hirian⁵². Hiri hau lurraldearen zilkoan bezala aurkitzen da eta eskualde guzietako ordezkariak helmenean dute; horra zergatik hiriburu edo hiri nagusitzat hartzen duten.

Alorrak hain egoki banatuak dituzte hirien artean non ez baitezake nehondik edozein hirik bere kontu izan hamabi urratsen lurra baino gutiagorik; baina askoz ere gehiago hirien arteko bidea luzeago den aldetik. Ez du hiri-bihi batek bere zedarriak aldaratzeko gogorik: ezen hiritarrek berek, lurren jabe baino gehiago, lurren erabiltzaile daukate beren burua. Hiritik kanpo badauzkate etxeak, lur erabili guzien erdian ongi banatuak eta laborantzako tresnaz muntatuak. Hiritarrak badatoz aldizka, hor bizitzera. Ez da baserritar familiarik, gizon-emazteen artean berrogei lagun baino gutiago daukanik -etxaldeari datxekion bi "morroi"⁵³, bestalde-. Familiaren buru, aita eta ama helduak eta zentzuzkoak. Hogeita hamar familiako multzo bakoitzaren aintzineko, badute "Filarko" bat⁵⁴. Familia bakoitzetik hogeia lagun itzultzen dira hirirat, urtero: ordukotz hiritik kanpo bi urte bete dituztenak. Hauen orde, beste horrenbeste langile igortzen dira hiritik, urte hartan han dauden eta beraz

lur-lanetan ikasiak direnekin ikas dezaten. Ondoko urtean azken horiek irakatsiko diete beste batzuei, zeren guziak batean laborantzan berdin berri eta arrotz balira, urteko uztak huts egin bailezake langileen trebatu ezagatik. Lurginen berritzeko ohitura hori ongi finkatua bada ere, nehork ez baitu gogoaren kontra eta luzakiegi lan dorpeegirik jasan behar, asko badira bizkitartean lur-lanetan atsegin dutelakotz berenaz, zenbait urtez han bizitzea eskatzen dutenak.

Laborariek lurak lantzen dituzte, abereak hazten, egurrak egiten eta hirirat heltzen bide errazenetik, itsasoz edo lehorrez. Sekulako xito-andana hazten dute miragarriki: ezen ez dituzte arraultzeak oiloari emaiten, baina neurri oneko berotasunean atxikiz arroltzeak xito-andana handiak sortzen dituzte eta, kuskutik jalgi orduko, amatzat hartzen dituzte xitoek beren jabeak eta orotan jarraitzen zaizkie. Ez dute zaldi ainitzik; eta suharrik baizik ez; zaldi-jokoetan gazteak trebatzeko. Iraulde eta garraio-lan guziak idiekin dituzte egiten. Ez omen dute zaldien gar hura, baina iraupenez nagusi dira; eta gaitzarentzat ez hain minbera. Haien mantenuak bestalde, ez du hainbeste gastu ez hainbeste lan emaiten; eta azkenean, laneko on ez direlarik haragitako baliatzen dira oraino.

Ogiaren egiteko baizik ez dute bihia erabiltzen. Edateko, mahatsarinoa, sagarinoa, madariarinoa, edo bestenaz ura hartzen dute; batzuetan hutsik edo usu ere eztiarekin irakiturik edo errekalizarekin, nasaiki baitute hartarik.

Nola aintzinetik kakulatzen baitute -eta zuzen-zuzen-

zer anoa beharko duen hiriak eta hiriari datxekion barrutiak, berek behar baino ainitz gehiago zitu-bihi ereiten dute eta abelburu hazten, auzoei banatzeko gero gaineratikoa. Behar dituzten eta baserrian aurkitzen ez diren puska guziak eta sukaldeko tresnak oro, hirian eskatzen dituzte, eta batere salerospenik edo trukadarik gabe hiriko arduradunen bitartez eskuratzen. Hilabete guziz alabaina, baserritar gehienek hiriko itzulia egiten dute, jai-egunean.

Uzta-eguna hurbiltzearekin, hiriko arduradunei jakinarazten diete laborarien "Filarko"ek, zenbat laguntzaileen beharretan diren eta gari-biltzaileen ostea heldu delarik hitzartu egunean, uzta guzia altxatzen dute, ezbaian eguna barne, aroa alde izanez geroz.

HIRIEZ ETA BEREZIKI AMAUROTO HIRIAZ

Utopiako hiri bakar bat ezagut lezakeenak, hango hiri guziak ezagut litzake, guziak osoki berdinak baitira; non ez dituen tokiaren berezitasunak bereizten. Bat baizik ez dut beraz marraztuko, itsura, edozein... Zergatik ez berdin Amauroto? Ez da ezen ohoragarriagorik, hari utzi diotenaz geroz beste guziek senatua; ez da ere neretzat ezagunagorik, bost urte luze han bizi izan bainaiz jarraian.

Mendiska baten malda eztian aurkitzen da bada Amauroto hiria. Lauki baten itxura du, guti gorabehera. Mendiskaren gailurretik beheraxago hasita, bi mila urratsetan zabaltzen da hiria,

Anidro ibairaino, luzean urruntxago doala ibaiertzearen arabera. Amauroto baino laurogei mila urrats gorago sortzen da Anidro ibaia, iturri zuhur batetarik, baina beste uhaitz batzuk bidean aurkiturik eta bereziki bi ur handiskok onturik, bostehun urratsetan zabaltzen da hiriaren aintzina heldzearekin, eta gero gehiago zabalduz oraino, hirurogei mila urratsen buruan itsasoratzen da. Hiritik itsasoratzekeo tarte horretan eta hiri baino zenbait mila urrats gorago, itsasoak sei ordu guziz, bere uhain lasterrak darabiltza aldizkatuz gora eta behera. Itsasgora delarik, itsasoko urek gibelarazten dituzte ibaiaren urak eta hogeita hamar mila urrats luzetan berek betetzen Anidro⁵⁵ ibaiaren uhaska guzia. Apur bat gorago ur gaziak nahasten du ur geza; haraindian berriz piskanaka gozatzen da eta hiriaren parrean garbi-garbia da. Gero bere aldian, itsasbehera jausten delarik ur geza, garbia, jarraitzen zaio ezbaian bokaleraino.

Harrizko uztai eder batzuen gainean eta ez zurezko paldo eta paxoin batzuen gainean eraikia den zubi batek lotzen dio hiri ibaiaren beste bazterrari; itsasotik urrun dagoen aldetik; hiriko ibaialde guziaren aintzinetik untiak iragan daitezen trabarik gabe. Bada ere ur bat, ez hain handia, baina guziz naharoa eta atsegina. Hiri jarria den mendiskatik jalgitzen da, eta hiriaren erdi-erdi, gainbehera iraganez Anidro ibaiaren uretan sartzen. Uhaitz horren iturburua ez baita hiritik urrun, gerizagailuz inguratutik lotu diote amaurotoarrek beren hiriko harresiari; sekula

etsaiak jauki balitza, ez diezaioten bederen ura motz, ez desbidera, ez kutsa. Ur hori beraz, buztinezko hodietan banatzen da hiri-behereko auzoetara eta lekuak hori manatzen ez duen tokietan, uharka handi batzuek euria biltzen dute eta lan bera egiten. Harresi gora eta lodi batek, ainitz geriza eta dorreekin inguratzen du gazteluria. Eta harresien zaintzeko, hiru aldetarik urik gabeko aska zabal eta barna bat elorri sasiek hartua dute. Laugarren eskualdetik berriz, ibaia bera da aska.

Karrikak marratuak dira, erraz ibiltzeko eta haizetik maldatzeko. Etxeek ez dute batere zikin-itxurarik; haien aintzindeiak ikusten direlarik auzotegi guzia hartzen duten bi aldeetako lerro luze eta jarraikietan. Karrikaren aldetik, hogeit urratseko artebidea da. Etxe gibeletik bada ere karrikaren luzetasun guzian baratze handi bat, auzoko etxeen gibelaldeek orotarik hersten dutena. Ez da etxerik, karrikara ate bat ez duenik; eta baratzera beste bat. Ate guziek bi aterdi dituzte; hunki arin batek irekitzen ditu eta berak hersten dira; nornahi sartzera uzten dute eta ez da horrela nehon, nehoiz, nehoren ontasun pribaturik. Etxeak berak aldiz etxatiaz ere aldatzen dira hamar urtetarik, zotzak ateratuz.

Ainitz artatzen dituzte baratzeak, baita hor mahats, udare, baratzekari eta lore. Deus ederragorik, deus aberatsagorik ez dut behin ere ikusi, hain baitira landuak eta leunduak delako baratzeak! Baina ez du bakarrik lanaren gozoak berak baratzezainen garra sustatzen, badute ere pizteko, elkarren artean auzoek egiten duten baratze-artatze zeingehiagoka. Ez da segur erraz aurkituko hiri guzian, beste lan atseginagorik ez baliosagorik herritarren

onerako. Horra zergatik nik uste, hiria eraiki zuen gizonak berak ez zuen izan baratze horien antolatzea baino axola handiagorik, ezen Utopok berak omen zuen, diotenez, haste-hastean hiriaren itxura berezi hori guzia marratu. Baina, gizon bakar baten bizi osoa ez zela askiko ikusiz, lana apaintzeko eta edertzeko arta utzi zien bere ondokoei.

Beren urtekariak badituzte; uharteaz jabetu zirenez geroztikako mila zazpiehun eta hirurogei urteren historia⁵⁶ biltzen baitute. Eta arta handienarekin begiratzen dituzte idazki horiek. Hauen arabera, lehen, egoitza apalak ziren; olak eta etxolak iduriak; edozein zurez itsura eginak; paretak buztinezatuak; gaineke bizkar zorrotza, lastoz estalia. Baina orai ikusten diren etxe guziak, hiru solairutakoak dira; kanpoko murrak harri pikatuz, harri-koskoz edo adreiluz eginak; barneko paretak aldiz igeltsuztatuak. Teilatuak zabalera altxatzen dira eta errauts berezi batekin estaltzen; errauts hori merkea da; ez du suak hartzen eta berunak baino hobeki ihardokitzen dio aro gaiztoari. Haizeari buru egiteko, beirak ezartzen dira leihoetan, ez baita beira-eskasiarik han gaindi. Lan horretako ere hartzen da batzuetan olio argiz edo anbare uherrez igortzi den lihozko oiha mehe-mehe bat, bi abantail dituena: argi gehiago igortzen baitu alde batetik eta haize gutiago uzten bestetik.

MAGISTRATUEZ

Hogeita hamar familiako talde bakoitzak hautatzen du urte guziez buruzagi bat, deitzen dutena lehengo mintzairan "Sifogranta"⁵⁷

eta gaurkoan "Phylarkoa". Hamar Sifogranten eta haien familien buru badago lehen "Traniboro"⁵⁸ eta orai "Protofilarko"⁵⁹ deitutako bat. Azkenean, Sifogranta guziek, hots berrehunek, herriarentzat onena daukatena hautatuko dutela zin egin ondoan, populuak izendatu dizkien lau hautagaietarik bat hautatzen dute buru lehentako, sekretuzki botzak emanez; hiriaren laurden bakoitzak hautagai bat aurkezten dio alabaina senatuari. Buru Lehenaren buruzagitza bizi guzirako da, non ez den kargutik kendu behar tirano bihurtu nahi delako susmoarengatik. Traniboroen hauteskundeak urte guziez berritzen dira, baina ez dira hautetsiak aldatzen aitzaki funtsik gabe. Beste buruzagi guziak urte batentzat dira.

Hiru egunetarik eta beharrez maizago, traniboroak elkarretaratzen dira biltzarrean Buru Lehenarekin⁶⁰. Herriko gorabeheraz badihardute eta herritarren eztabaidak berehala erabakitzen dituzte; gertatzen direlarik; nahiz bakanak diren. Senatuko bilkuretara beti bi Sifogranta deitzen dituzte; baina ez sekula berak. Kontutan hartzen da ere herriaren onari doazkion gaietan ez dela erabakirik hartzea zilegi, non ez den hiru egun aintzinetik eztabaidarik izan gai horietaz senatuan. Herriko gorabeheraz herri biltzarretarik edo senatutik kanpo erabakiak hartzea, huts izigarria dela diote.

Utopiarren arabera, lege horiek eginak izan dira ez dakien erraz izan ez Buru Lehenari ez traniboroek elkar hitzartzea, herri-erakundeak aldatzeko eta tirania bidez populua zapaltzeko. Horra zergatik erabaki nagusi guziak⁶¹ eramaiten diren sifogranten biltzarretara; hor beren inguruko familiek, jakinaren gainean azter dezaten gaia beren artean eta gero senatuari helaraz beren iritzia.

Uharte osoko biltzarrera gai bat eremaitea gertatzen da batzuetan. Bestalde senatuaren ohitura da ere, ez dela sekula deus eztabaidatzen aurkeztua izan den egun hartan berean, baina bai senatuaren ondoko bilkuran: amoreakatik eta, mihi-puntan zeukan lehen perpausa ustegabetarik itzurtzera utzi duelakotz, herriaren aldeko erabakiak baino lehen bere erranak zuritzeko aitzakien ondotik ez dadin nehor ibil, eta ez dezan nehork herriaren onaren gustuz bere omen ona mendeka beranteko urriki bihurri batengatik; lehenbizian ikuspegi laburregia izan duela ixilpean gordez. Berehala mintzatzea baino, hobe dela jakinaren gainean hitz egitea aintzinetik behar da ikusi.

LANBIDEEZ

Bada lan bat ororentzat, gizon ala emazte bereizkuntzarik gabe, ezin utzizkoa, hura baita laborantza. Guziek haur-haurretik, hura ikasten dute bai eskolan emaiten diren irakaspenekin bai eta ere hiriari hurbil dauden landetara, jostatzeko bezala eremaiten dituztelarik, ez bakarrik ikusliar kontu baina oraino gorputza hezteko lanean ariz.

Laborantzaz bestalde -hau denentzat baita, erran dudan bezala- berea izanen duen bigarren lanbide bat behar du bakoitzak ikasi; kasik beti izanen da edo ilagintza edo liho-lana edo hargintza edo burdina ala zur-arozgoa. Ez da ezen beste ofiziorik aski langile hartzen duelakotz aipatzea merezi duenik. Jantziak bada bereizten ditu gizonkiak eta emaztekiak, ezkongabeak eta ezkonduak. Baina hauste berekoa da uharte guzian barna eta ez da nehoiz aldatzen haren itxura. Ez du molde itsusia; soinean ibiltzeko lasaia da eta hotz ala beroa garaitzeko egokia.

Familia bakoitzak hausten eta josten ditu berak behar dituen jantziak. Baina herritar guziek, gizon ala emazte, ikasten dute aipatu ditugun lanbideetarik bat. Emazteek ordea mendreago izanez, lan arinagoak hautatzen dituzte; kasik lihoan eta ilean bakarrik dihardute; eta beste lan dorpeagoak gizonen kontu daude. Burasoen ofizioa ikasten dute haur gehienek; maiz horretara ekarriak baitira berenaz. Beste ofizio baterako deia baldin badu haur batek, ikasi gogo duen ofizioko familia batek hartzen du bere gain. Orduan ez bakarrik aita, baina buruzagiek ere, aita-familiako zuzen eta zintzo baten esku gerta dadin haurra, arta hartzen dute. Eta berdin, edonork ofizio jakin bat ikasi ondoan beste bigarren bat ikasi nahi baldin badu, hola-hola haizu izanen zaio. Biak ikasiz geroz nahi duena hautatzen du; non ez duen herriak, bat bestea baino beharrago.

Sifogranten eginkizun nagusia eta ezbaian bakarra da, nehor alfer egon ez dadin arrenkuratzea eta bakoitzak bere lana zintzoki egin dezan arta hartzea. Ez ordea, goizean goiz hasi eta gau ilun arte hatsik hartu gabe, mandoak bezala nekatuz; ezen esklabuen zortea baino garratzagoko herstura hori da Utopiatik at kasik toki guzietako langileen bizia.

Utopiarrek aldiz hogeita lau ordu berdinetan zatitzen dute egun bakoitza; hari datxekion gauarekin. Sei ordu bakarrik emaiten dizkiote lanari: hiru eguerdi aintzin⁶², haietarik landa jaten baitute; bazkal ondo, bi ordu dituzte loaldia egiteko; gero berriz hiru ordu lanerako eta azkenean afaria.

Eguerditik landa denaz geroz lehen orena, zortzietan dira etzaten. Loak zortzi oren hartzen ditu. Lanak, loak eta jantorduek uzten duten artea, bakoitzaren kontu dago; ez ordea alferkerian edo linburkerian xahutzeko; baina, laneko betebeharretarik lekora, bakoitzak bere hautura, gogoko duen zerbait eginkizunetan ongi baliatzeko.

Lanarte horiek, buru-lanetan iragaiten⁶³ dituzte herritar gehienek. Goizeko lehen orduetan eman ohi dira alabaina irakastaldi irekiak, egun oroz. Letrak ikasteko izendatuak izan diren ikasleak bakarrik dira behartuak horra joaitera, baina bestalde, maila guzietako entzule-saldo izigarria, gizon eta emazte badoa hitzaldi horietara, bakoitzak hautatzen duela gogoak emaiten diona. Bizkitartean nahiago baldin badu norbaitek lanarte hori bere ofizioko eginkizunetan eraman -maiz gertatzen den bezala, ez baitute ainitzek buru-lanerako gogo handirik- ez zaio hori nehorri debekatzen; goresmenak emaiten zaizkio izaitekotz, herriaren onetan diharduelakotz.

Afal ondo, ordu bat hartzen dute libertitzeko; udan, baratzean eta neguan, jangela handietan. Hor dira batzuk musikan ari eta besteak solasean elkarrekin. Zortea, eta beste horrelako joko zoro eta kaltegarriak ez dira aipu ere; bainan bi joko badituzte, nolazpait xake-jokoa iduriak: zenbaki-jokoa da bat eta zenbaki jakin batek bestea garaitzen du; bestea gerla-jokoa da; eta bizioen eta bertuteen arteko gerla da gaia. Joko honetan argi ikusten da, nola bizioak elkarren artean ezin konponduz dabiltzan, baina nola bertuteen aurka bat egiten duten. Ikasten da ere zein diren bertute

batzuei edo beste aiher zaizkien bizioak, zein diren bizio hauen indar ageriak, hauen saihetseko jukutriak, zer geriza balia dezaketen bertuteek bizio osteen aurka, zer jokamoldez bazter etsaien oldarra eta azkenekotz alde batek edo besteak nola eraman dezakeen garaipena.

Baina orai hutsik ez egiteko, zerbait behar dugu hurbilagotik ikusi: "Sei oren lan baizik ez denaz geroz, usteko duzue menturaz horrengatik sor daitekeela behar-beharrezko zer batzuen eskasia". Baina urrun dira horretarik: bizi-beharrak edo berdin biziaren gozoak eskatzen dituen guzien doia biltzeko astia nahikoa badute; ez bakarrik nahikoa; soberakina ere bai. Zuk ere ikusiko duzu, nik bezala gogoan hartzen baduzu, zer jende-andana badagoen ziri, beste herrietan. Lehenik kasik emazte guziak, hots-kopuru osoaren erdia; edo emazteak lanean ari diren eskualdeetan, maizenik haien orde gizonak daude zurrungan. Emazu gainera apez eta fraideen saldoa, hain handia eta hain nagia! Eta oraino aberats guziak, bereziki etxalde-jabeak; "jaunak" eta "handikiak" deitzen ohi direnak. Sar ere kontuan hauen zerbitzariak, erran nahi baita zirtzil pildatuen basura; eta azkenik beren alferkeria gordetzeko, eritasun zerbaiten aitzakia asmatzen duten eskale sendo eta bizkorrak. Ohartuko zara orduan, uste zenuen baino biziki gutiagoren lanak dituela ihautzen, guziek behar ditugun baliagarri guziak. Ikus ezazu orai lanean ari direnetan, zein gutik diharduten beharrezko lanbideetan. Baina egia erran,

diruak oro neurtzen dituen eskualdeetan behargabeko ofizio ezdeus asko sortzen ohi da, ospearen eta lasaikeriaren zerbitzuko. Demagun bada, gaurko gure langile horiek guziak banatzen ditugula bizi gozo eta osasuntsu batek eskatzen dituen bizigailu apurren zuzkitzeko behar diren lanbide bakarren artean, bagenuke orduan halako gailu ihaurria, non prezioak behehitzearekin ez bailukete langileek bizi-doia irabazpiderik. Demagun oraino lan alfer batzuetan higitzen direnak eta ere nagikerian eta alferkerian datzan oste guzia -besteen lanaren mozkinetik batek berak irensten baitu, beste bi langilek bezainbat-horiek oro, beraz, lanari lotzen direla eta baliagarri den lanari, errazki ohartzen zara beharrak, gozoak eta berdin atseginak ere -atsegin berezkoa ordea eta egiazkoa- eskatzen duten guziaren ekoizteko denbora nahikoa badagoela, bai eta gehiago ere. Hori guzia, Utopian egiten denak berak agerian ezartzen du. Ezen han, hiri guzian eta inguruko auzotegian dauden gizon eta emazteen artean, ez dira bostehun lagun aurkituren, laneko adin eta indarrean direlarik, lanik gabe egonen direnik. Hauen artean konta dira sifograntak: legez lanean aritzerik ez izanagatik, besteak horrela errazkiago lanera nahiz erakarri, langile jartzen dira beren baitarik.

Esku-lanetik bazter uzten ditu ere behingoz populuak, apezan gomendioz eta sifogranten sekretuzko botzen ondotik, eskoletan dabiltzan ikasleak. Baina horrelako baten baitan jarri

itxaropenak huts egin baleza, langileengana itzuli behar luke ikasleak. Aski usu gertatzen dena ordea, haxe da: langile batek bere ordu galduak halako garrarekin dituela liburuetan iragaiten eta bere ikasketak halako lehiarekin dituela aintzina eramaiten, non bere eskulanez urruntzen baitute eskolatuen mailara iganarazteko.⁶⁴

Eskolatuen artean hautatzen dira ordariak, apezak, traniboroak eta Buru Lehena bera, lehen beren mintzairan "Barzanes"⁶⁵ deitzen zutena eta geroztik "Ademo"⁶⁶ dena. Gelditzen den beste jendalde gehiena ez baita alfer egoiten, ez behargabeko lanetan jostatzen, erran den bezalako lan ona zenbat oren laburrez egiten den asmatzea erraz da. Baduzu gainera beste kontu bat: baitezpadako diren lanbide gehienetan, beste herrietan baino egiteko gutiago dutela. Hala nola beste tokietan, horrenbeste langileren lan jarraikia eskatzen baldin badu etxe eraikitzeak edo berritzeak, hori gertatzen ohi da aitzak eraiki zuen etxea seme funtsgabeak emeki-emeki hondatzera utzi duelakotz; eta horrengatik, aski merke begira zitekeen egoitza, ondoko jabeak aintz gostarik behar du errotik berregin. Gerta daiteke ere askotan, aintz xahuturik norbaitek eraiki zuen etxea, ondoko jabe miliska batek gutiesten duela eta debalde uzten. Orduan etxe hura laster erortzen da eta beste nonbait berria egiten da; ez batere aintzinekoa baino merkeago.

Utopian aldiz denak ongi antolatuak dira eta herriaren ona zuzenki begiratzen da: ez da maiz agitzen, etxeen eraikitze alor berri bat bilatubeharra; badakite alabaina ez bakarrik jasan kalteen antolatzen, baina ere hel daitezkeenetarik begiratzen. Eta horrela lan gutirekin biziki luzaz irauten dute hango etxeak;

haien ofizialek ere ez lukete aski lanik; orduan manatzen zaie zurak etxean lantzea, harriak laurkatzea eta ahokatzeta; beren lana gero, behar orduan erraz aintzinzatzeko.

Jantziez berriz, ikus zein esku-lan guti aski duten. Eta behin utopiarrek lanean dabiltzalarik, zazpi urteko bat iraunen duen azalezko edo larruzko bat daramate nolanahika soinean. Hirira agertzeko, jantzi arrunten gainetik kapa bat hartzen dute; uharte osoan margo berdinekoa; oihalaren berezkoa. Horra zergatik artilezko oihalen eskea, nonnahi baino biziki tipiagoa den han; eta ere haien kostua biziki apalagoa. Lihoak aldiz lan gutiago emaiten du; eta beraz erabilgarriago gertatzen zaie. Bestalde lihoaren zuriari eta artilearen garbiari diote bakarrik behatzen. Hariaren meheak, aldiz, ez du estimurik. Ondorioz beste tokietan herritar bakoitzak, margo desberdineko lau edo bost jantzi artilezko eta beste horrenbeste ator zetazko behar dituelarik -sotilenek hamarrekin ere ez dute aski- han Utopian bat bakarra aski du bakoitzak; eta maizenik bi urte irauten dio. Ez du zeren besterik eska: ukan baleza ere ez luke ez hotzetik geriza hoberik ez aurpegiz ez jantziz itxura apainagorik.

Beraz, herritar guziek ofizio baliagarrietan baitihardute eta ofizio horiek biziki lan guti emaiten, ez da harritzeko, badenean denetarik nahikoa, langile-andana gaitza igortzen baldin badute behartuak diren herri bideen berritzera. Askotan ere horrelako bide lanen beharrik ez baldin bada, eguneko lan-orduen kopurua tipitzen dela jakinarazten da ageriki.

Buruzagiek ez dituzte alabaina herritarrak hertsatzen behargabeko lanetara. Hango herri-erakundeek helburu nagusi bakar bat baitute: herriaren beharrek haizu uzten duten neurrian, gorputzaren zerbitzuari ahal bezainbat ordu kentzea, ordu haien emaitako herritar guzien gogo askatasunaren eta buru-lanaren kontu. Honetan datza izaitzez biziaren dohatsutasuna⁶⁷ utopiarren arabera.

ELKARREN ARTEKO

HARREMANEZ

Orai behar dugu naski erran nola antolatzen diren elkarrekin herritarrak; zer harreman duten elkarren artean; eta zeren arabera dituzten ontasunak banatzen.

Familiek osatzen dute beraz hiria eta ahaidetasunak ditu eraikitzen familiak. Emazteak ezkontzen dira adinera heldu orduko eta senarraren etxera joaiten. Semeak aldiz -eta beraz semesoak- familian gelditzen dira eta arbaso zaharrenaren menean daude; non ez duen zahartasunak honen izpiritua ahuldu; ondotik datorrenak baitu orduan ordezkatzeko delako arbasoa.

Baina ez dadin hiria gerta ez jendetza-eskasia ez eta ere gaingian, -hiriz kanpokoez beste, sei mila familia dauzka hiri bakoitzak- kontu emaiten da familia bakoitzak ez dezala izan hamar lagun baino gutiago ez eta ere hamasei lagun baino gehiago; adineko helduez ari gara, jakina. Haurren kopurua, aldiz, ezin da aintzinetik finka. Dena den, errazki zaintzen dira muga horiek; zeren zuhur diren familietara isur daitezke besteen gaineratikoak. Eta edozein hiriren kopuruak haizu den muga gaingitzen duenean, besteen hutsak betetzen dituzte gaingiarekin.

Nehoiz gerta baledi uharte osoko jendetzak legezko kopurua gainditzea, orduan hiri bakoitzetik hiritar zenbait bereiz litezke, aldeko lurralde batean lekukoek berek behar baino biziki lur-eremu gehiago badutelarik eta landu gabe uzten, Utopiako legeak onartuko dituen herri berri bat finka dezaten; baina lekuko herritarrei eskaini ondoan nahi badute, elkarrekin bizitzea.

Nahi dutenekin erakunde berak onartuz eta ohitura berdinei jarraikiz aurrintzen dira errazki; batzuen eta besteen onerako. Erakunde horiei esker alabaina, herri bakar baten hazteko idorregi eta zuhurregi zirudien lur hura bera, bi herri betan asetzeko aski aberats bilakatzen da.

Haien legeen menpe bizi nahi ez duten lekuko seme-alabak, utopiarrek ohiltzen dituzte berentzat hartu dituzten lur-eremuen mugatik kanpora.

Jazartzen zaizkienei, ordea, gerla egiten diete; uste baitute egiaz zuzen dela gerla egitea, nonnahiko populu batek, berak batere behar ez duen eta alfer eta huts uzten duen lurra, ez dielarik erabiltzera eta baliatzera utzi nahi, lur horiek berak berezko lege⁶⁸ hazi behar lituzkeenei.

Sekula gerta baledi, sorterriko hiri batzuetan hain behera erori dela jendetza, non ez baita haien eskasa ordaintzen ahal uharteko beste hirietan legezko kopurua apalduz baizik -ez omen da horrelakorik bi aldiz baizik gertatu mendez mende izurritearen hondamendietan- orduan sorterrira itzul litezke beren koloniatik, sorterriko hirien berriz jendeztatzeke. Nahiago dituzte ezen, koloniak hondatzen ikusi uharteko edozein hiri aurritzera utzi baino.

Baina goazen berriz utopiarrek elkarrekin daramaten bizimoldearen aipatzera. Zaharrena dela familiaren buru, genioen. Han senarrak laguntzen dituzte beren emazteek; burasoak, beren haurrek eta orobat zaharrenak, gazteagoek.

Lau zati berdinetan zatitzen dira hiri guziak. Laurden bakoitzaren erdian

badago plaza, puska guzien biltzeko. Hor biltoki berezi batzuetara ekartzen dira etxe bakoitzeko mozkinak eta gero, ordenatuki banatzen ganbera desberdinetan. Edozein aita-familiakok eska dezake orduan, berak eta bere etxekoek behar duten guzia eta etxerat eraman, dirurik ez beste deus ordainik eman gabe. Zergatik bada behar zaio zerbait ukatu? Denetarik badute nasaiki eta berak behar baino gehiago eska dezan norbaitek ez dute beldurrik. Nola uste izan nehork behargabeko zerbait eska dezakeela, sekula deusen eskasik ez dukela badakienean? Gabearen beldurak ditu ezen, gose eta harrapari egiten orobat bizidun guziak. Gizona baitan aldiz, harrokeria bera aski da; behargabeko aberastasunen erakustea eder baitzaio, besteen aintzinatzeko. Baina utopiarren erakundeek ez diote bizio horri lekurik uzten batere.

Aipatu ditugun plaza horiez bestalde, badira merkatuak, jateko mota guzientzat: ez bakarrik barazkiak, udareak edo ogia erosteko; baina ere arrainak, oilakiak eta haragia; hiritik kanpo jarriak dira; zikinkeriak eta ustelkeriak ur handietan garbitzeko gisan. Hortik ekartzen dira abereak, eho eta hustu ondoan "morroien" eskutik, ez baitute nahi utopiarrek, abereen larrutzeko ohitura har dezaten beren herritarrek; ohitura horrek emeki-emeki suntsi lezakeelakotz haien baitan, gizonaren dohain ederrena: bihozberatasuna. Ez dituzte ere uzten hirian sartzera nehongo zikin eta lohiak; haien usteldurak ez dezan airea kutsa ez izurriterik ekar.

Karrika bakoitzean, elkarretarik ararte berdinean, badaude

jatetxe handi batzuk, bakoitza bere izenarekin. Hor dira bizi Sifograntak; hauetarik bakoitzari baitarraizkio janarentzat hogeita hamar familia; etxearen alde bakoitzetik hamabost. Ordu jakinean plazara biltzen dira jatetxeetako zuzkitzaileak eta beren etxeko jaleen kopuruaren arabera hartzen dute jatekoa.

Baina lehenik, herriko ospitaleetan artatzen diren eriez dira arduratzen. Ezen hiriari hurbil badaude lau ospitale; hain handiak non hirixka batzuk baitute iduri; eta nahi bezainbat eri sarturik ere, badute leku eta lasaiki daude: batek bestea kutsa lezakeen edozein gaitzek hunki dituen eriak ere, bestetarik bereiz eman daitezke. Ospitale horiek hain ongi dira antolatuak, osagarriak behar dituen guziez hain ederki muntatuak, halako artatzaile ezti eta ohartuez lagunduak, halako mediku jakintsu eta jarraikiez aberats, non ez delarik nehor horretara hertsatzen nehor guti baita halere hiri guzian gaitzak joiten duenean, etxean gelditu nahiago duenik ospitalean sartu baino.

Medikuek manatu jatekoak hartu dituztelarik eritegien zuzkitzaileek, orduan ahal bezain zuzen banatzen dira zatirik onenak jatetxeen artean, jale-kopuruaren arabera. Bizkitartean kontu hartzen da bereziki Buru Lehenaz, Apez Nagusiaz, traniboroez, eta ere ordariez eta arrotz guziez -baldin bada arrotzik. Gutti eta bakan etortzen dira arrotzak-. Dena dela, hor direnean badituzte beren egoitza bereziak, behar diren guziekin muntatuak.

Eguerdiko eta arratseko jatorduetan, burdina gorrizko turuten

hotsak deiturik, "Sifograntia" guzia jatetxeetara biltzen da; ospitaleetan edo beren etxeetan baitaude bakarrik etzanik diren eriak.

Jatetxeak ongi zuzkiturik direnean, ez zaio nehor debekatzen merkatutik etxera ekartzea bere jatekoa; ez duela hori nehor nolanahika egiten, ongi baitakite: nehor ez bazaio etxean jatea debekatzen, nehor ez zaio hori atsegin gertatzen; ez baita zuhurtzia, baina bai zorokeria, norbera apairu eskas baten prestatzeko nekatzea hurbil-hurbileko jatetxe bazkari gozo eta oparoa eskaintzen zaizularik.

Jatetxeko lan zikin eta neke guziak "morroiek" egin ohi dituzte. Besteak, erretzeak, janarien apailuak, hots apairuaren antolaketa guzia, emazteek berek egiten dute; familiak aldizkatuz. Hiru mahai edo gehiago, bazkaltiar arau, ezartzen dira: gizonak paretaren aldetik jartzen dira eta emazteak haien aintzinean; hauetako bati bapateko alditxartze bat gerta balekio -haurbeharretan diren emazteei hain erraz gertatzen zaien bezala- nehor poxelatu gabe zuti dadin eta unideetara joan. Bularra emaiten duten emazteak beren hurrekin daude alabaina jangela berezi batean; baitute beti hor, supazterra, ur garbi eta sehaskak ezartzeko han edo hemen lekua. Eta horrela beren umeak etzaten ahal dituzte edo, nahi dutelarik, suaren aintzinean troxetarik libratzen eta lasaitzeko jostarazten. Ama bakoitzak bere haurra hazten du, non ez dion gaitzak edo herioak eragozten. Kasu honetan, beste unide bat bilatzen dute berehala sifogranten andreak, ez baita lan izigarria; zeren egiten ahal dutenek beste edozer

baino gogotikago egiten dute. Guziek alabaina egitate gupidatsu hori goraipatzen dute; eta hazi den umeak amañotzat dauka bere unidea. Unideen "ziloan" daude bost urtetara heltzen ez diren haur guziak. Beste haur guziak -eta hor sartzen dira ezkontadinera heltzen ez diren mutil eta neska guziak- edo mahaikoen zerbitzuan ari dira⁶⁹ edo adin-eskasiaz, haien ondoan zutik badaude hitzik atera gabe. Batzuek ala besteek mahaikoek emana jaten dute, eta ez dute beste jatordu berezirik.

Lehen mahaiairen erdian -erran nahi da ohorezko tokian; jangelaren buruan, zeharretara, jarria den mahai horretatik biltzarre osoa ikusten dela- Sifogranta eta haren emaztea jezartzen dira; haien aldean bi lagun, zaharrenetarik: mahai guzietan launaka jezartzen baitira. "Sifograntia" horretan delarik eliza, apeza eta haren emaztea Sifograntarekin jezartzen dira mahaipuru. Bi eskualdeetarik gazte batzuk jartzen dira eta gero berriz adinekoak; eta horrela areto guzian adin berekoak elkarretaratzen dira; baina besteekin tartekatuz. Nola mahaian egiten edo erraiten denari aldeko lagunak oro ohartzen baitira, erregela hori ezarri omen da zaharren zuhurtziak eta larderiak zentza ditzan gazteen lazakeriak asma litzakeen solas eta keinu lasaiegiak.

Jan-azpilak ez dira mahaipuru batetik bestera kurritzen, baina ohorezko tokietan diren zaharrei eskaintzen dira lehenik poxi

onenak, eta gero ahal bezain zuzenki zerbitzatzen dira beste guziak. Baina poxi on horietarik ez baitzen etxe guziari emaitakorik, zaharrek banatzen dituzte beren gogara aldeko lagunen artean. Zor zaien ohorea emaiten zaie horrela zaharrei; baina ororen onetan bihurtzen da delako ikustatea.

Bazkari ala afari guzietan irakurketa on bat egin ohi da, hastetik,⁷⁰ ez luzea; nehor ez aspertzeko. Gero zaharrak solastatzen dira gizonki, baina ez alaitasunik eta zotiltasunik gabe. Ez dute beren elasturiarekin bazkari-denbora guzia hartzen; badakite ere gazteen entzuten; berariaz zihikatzen dituzte; mahaiko lasaitasunean hobeki ageri direlakotz; haien jitea eta haien izpiritua frogatzeko xedetan.

Eguerdiko apairuak aski laburrak dira; arratsekoak luzexagoak; haien ondotik baitator lana; ondotik aldiz, loa eta gaueko atsedena. Eta utopiarren ustez, atsedeen horrek liseripena errazten du. Ez da afaririk musikarik gabe eta bigarren mahai-itzulian gozokiak emaiten dira beti. Lurrinak erretzen dituzte eta ukenduak hedatzen; hots afaltiarren atseginerako ez dute deus gupida. Deus kalterik egiten ez duen atsegin-motarik,⁷¹ bihi bat ez dela behar debekatu sinestera ekarriak dira alabaina. Horra nola bizi diren elkarrekin hiritarrak. Baserritarrek ordea elkarretarik urrun baitaude, bakoitzak bere etxean jaten du: baina ez du familia-bihi batek jateko eskasiarik; baserritarrek dituztenaz geroz hiritar guziak jatekoz hornitzen.

UTOPIARREN IBILALDIEZ

Beste hiri batean dituzten adiskideengana itzuli bat egin nahi dutelarik edo ere berdin bazterren ikusteko gogo heldu zaielarik, errazki izaiten dute sifogranten eta traniboroenganik baimena; non ez duen zerbait behar-orduk eragozten. Badoaz beraz multzoan elkarrekin, Buru Lehenaren bermea harturik; horretan finkatzen baitzaie ibilaldiaren baimena eta itzultzeko eguna. Denek izaiten dute gurdi bat, herri-morroi batekin idien akuilatzeko eta artatzeko. Baina, non ez duten emazterik berekin, bidaiariak idi-gurdiak traba izanez eta poxelu gibelera bidaltzen dituzte. Deus ez eramanik ere berekin, bide guzian ez dute deusen eskasik, orotan etxean baitira. Egun bat baino gehiago geldituz geroz nonnahi, hor berean lanari lotzen dira; bakoitza bere ofizioari; eta ofizio bereko lagunek izigarri begi onez hartzen dituzte.

Nehor ordea bere hiriko mugetarik hara bere baitarik abia baledi, eta Buru Lehenaren baimenik gabe atzeman balezate, nolanahika balerabilkete, ihesliartzat har lezakete eta garrazki gaztiga. Sekula berriz has baledi, morroien lerroan ezar lezakete.

Eta hiriko lurretan gaindi itzuli bat egiteko gutizia jauzten baldin bazaio norbaiti, aitaren eta lagunaren baimenak ukanez geroz ez duke eragozpenik. Baina auzo-herri batera heltzearekin, ez diote deus jatera emanen bazkal aintzin egin ohi duten lan-doi -edo arratsaldez baldin bada, afal aintzinekoa- egin arte. Ohitura hori onartuz geroz, haizu zaio bakoitzari hiriko eremuetan nonnahi ibiltzea. Ezen ez dio, hiri barnean egonez baino zerbitzu gutiago egiten horrela bere hiriari.

Ikusten duzue beraz, ez dela hor nehon haizu alfer egoitea; ez dela nehoiz nagikeriarentzat aitzakirik: ez dute ez ardandegirik, ez garagardotegirik, ez barrandegirik, ez lizunetxerik,

ez zoko ilunik, ez biltoki galdurik, baina denen agerian behartuak dira edo ohizko lanari lotzera edo zeregin garbietan eraunstera.

Nahi ala ez horrelako ohiturei ontasun guzien nasaitasuna darraie; eta ontasun horiek zuzenki banatzen baitituzte denen artean, ezin duzu ez errumes bakar bat ez eskale bat nehondik atzeman.

Amaurotoko Senatuan⁷² urtero biltzen dira, erran dugun bezala, hiri bakoitzetik hiru gizon, non zer gaineratiko baden ikusteko lehenik; eta gero alderantziz, non uzta eskasa izan den; batzuen gairiak beteko baitu besteen hutsa. Eta guziak urrikerik egiten dira: emaileek ez dute, emanaren sari, deus ukaiten besteenganik; baina ordainik batere hartu gabe bere hartarik beste bati eman duen hiriak, behar-orduan berak behinere lagundu ez duen baten laguntza ardiets dezake. Uharte osoa horrela familia bakar bat bezala da bizi.

Bestalde, uharte osoko beharren doia bildu delarik -eta iduritzen zaie ez dela horrelakorik gertatzen, ondoko urteko arriskuengatik, bi urteren doia bildu arte- beste eskualde batzuetara eramaiten dute beren gaineratikotik parte handi bat: ezti, artile, liho, zur, gorrimin eta gorrintolezko margo, larru, ezko, bilgor, azal eta abere. Horietarik zazpigarren bat emaiten zaie urrikerik hartzaile diren eskualdeetako behartsuei eta beste guzia saltzen da bienarteko hein batean. Salpen horri esker eros ditzakete, ez bakarrik berenean eskas dituzten guziak, -deus kasik ez baitute eskas burdina baizik- baina urre eta zilar-

-meta izigarria sarrarazten dute beren herrian. Aspaldiko ohitura baitute, badute horrela sekulako diruketa bildurik: ezin

sinetsia ere da. Berdin zaie beraz gaur egun, saltzeak egitea dirutan edo hartzetan; eta beren ontasun gehiena hartzetan izatea. Baina hartzekoetan ez dute nornahiren bermea onartzen, estatuaren legezkoa baizik: ordaintze-helmuga etortzearekin, estatuak die zordun guziei beren zorra edekitzen eta herriko kutxan altxatzen. Gero ere estatuak izaiten du diru horren gozamina; utopiarrek berena eskatu arte. Hauek ordea ez dute sekula beren hartze osoa eskatzen: berek batere baliatuko ez duten zerbait baliatzen dutenei kentzea, ez baitzaie zuzen iduritzen. Ordainketa egitea eskatzen dute bizkitartean, kasu batzuetan; hala nola, beste herri bati prestamu bat egin nahi diotelarik edo berek gerla egin behar dutelarik.

Behar-ordu handi eta ustegabekoentzat begiratzen dute horrela utopiarrek beren dirua; gerlako altxor bezala. Oroz gainetik mertzenarien atzemaiteko darabilte -soldadu arrotzen bizia nahiago baitute arriskatu beren herritarrena baino-. Eta diru askirekin etsaiak berak erosten ahal direla edo beren burua saltzera edo elkarren kontra bihurtzera erakartzen jakinez geroz, sekulako diruak eskaintzen dituzte. Horra zeri buruz duten utopiarrek beren diru-meta paregabea begiratzen.

Baina herabe eta beldur ere banaiz zuei erraiteko nola daramaten -ez batere altxor bat bezala- beren diru hori: beldur naiz ez nauzuela sinetsiko, nihonek baitakit ongi zein nekez sinetsiko nituen beste batek erranik nik neure begiz ikusi ditudanak.

Ez da harritzeko alabaina: zenbat eta entzuleen ohituretarik urrunago, hainbat ere gerta dakien sinesgaitzago. Baina denak zuhurki haztatzen dakienak badaki ere, zein urrun diren guretarik besteen erakundeak; ez da beraz hainbat harritzen, gure ohiturei baino hurbilago baldin badabiltza haienei haien urre eta zilarren baliamoldeak: berek ez dutenaz geroz erabiltzen dirurik, begiratzen dute gerta daitekeen - eta menturaz sekula gertatuko ez den- behar-orduko.

Anartean etxean begiratzen dituzte beren urre eta zilarrak -horiekin egiten baita dirua- horiek berenaz duten balioa baino gehiagorik ez diezaiei nehork eman. Nork ez du ikusten alabaina, berenaz burdinak baino asko gutiago balio dutela. Surik eta urik gabe ez daiteke bizi; burdinarik gabe are gutiago. Urre eta zilarrik gabe bai eta errazki; naturalezak ez baitzien emanen baliagarritasun berezirik, gizonaren erokeriak ez balio eman estimu bakantasunari. Naturelezak, beharrik, menean ezarri dizkigu, ama hoberenak bezala, ontasun onenak: airea, ura eta lurra bera, baina aski urrun utzi behargabeko huskeriak.

Urre eta zilar horiek ordea gaztelu batean gorde balitzate, jendeak susmoa har lezake -bere betiko asmo ergelarekin- Buru Lehenak eta Senatuak zerbait jukutria antolatu dutela herria ilusitzeko eta berak ederki baliatzeko. Bestalde, urrezko kopak edo zilarkin batek landu gauzak egin balitzate, horien berriz urtzeko behar-ordua etorriko denean, hala nola mertzenarien soldatak ordaintzeko, argi dago behin gozatu dituztenek nekez utz litzaketela besteendako.

Ez dakien horrelakorik gerta, beste zerbait asmatu dute beren ohituren arabera, baina gure ikuspegitik urrun. Guk alabaina, halako balioa emaiten diogu urreari, non artoski gordetzen baitugu. Haiek aldiz, bere begiz ikusi ez dutenek sinets ez dezaketena dute egiten: buztinezko edo berinazko baxera polit baina arruntetan dutelarik jaten eta edaten, urrez eta zilarrez dituzte egiten oheazpikoak eta untzi zikinkor guziak; ez bakarrik arroztegietan, baina ere bai beren etxe bakoitzetan. Ekai berekin moldatzen dituzte morroien kateak eta hauen atxikitzeko lokarri larriak. Azkenekotz, zitalkeria zerbaitengatik gaiztagin handi ekarriak diren guziek petenta-urreak badakartzate belarrietan, eraztun-urreak eri-behatzetan, lepoko-urreak lepoan eta burute urreak buruan. Alde orotarik, lehiatzen dira desohore-marka emaitera urreari eta zilarrari. Eta beste herri guzietan hertzeak ateratzeak bezainbat min emaiten duelarik urre eta zilarraren galtzeak, utopiarren artean metale horiek guziak batean kendurik ere sos baten minik ez lezake nehork sendi.

Perlak bada biltzen dituzte itsas bazterrean; eta ere diamanteak eta harri bitxiak harkaitz batzuen erdian. Ez dira ez, haien ondotik higitzen, baina txiripaz eskuratzen dituztenak leuntzen dituzte eta haurrentzat haiekin edergailuak egiten. Haurrean, apaindura horiek eder eta polit baldin bazaizkie ere, apur bat handitzearekin ohartzen direlarik huskeria horiek ez dituztela

haurrek baizik erabiltzen, burasoei deusik erran gabe, beren baitarik bazter uzten dituzte, ahalgeturik bezala; gure etxeetako haurrek handitzearekin, beren intxaurrak, borobilak eta panpinak bazter uzten dituzten molde berean.

Beste herrietan ez bezalako erakunde horiek, gutartean ez bezalako sentimenduak sortzen dituztela, konturatu nintzen bizkitartean, nehoiz baino hobeki anemoliarren⁷³ ordezkariekin. Amaurotora etorri ziren, ni han nengoelarik, eta tratu premia-koentzat baitzetozen, hiri bakoitzetik hiru hautetsi joan zitzaizkien bidera. Auzo-erresumetako ordezkari guziek, aintzinetik uhartean ibiliak baitziren eta utopiarren ohiturak ongi ezagutzen, bazekiten jantzi aberatsak ez zirela haien zatibetere ohoragarri, zeta arbuiagarri zitzaizela eta urrea ahalkizungarri; ahal bezain xumeki jantzirik heldu ziren beraz haiengana.

Anemoliarrek aldiz, urrunagotik heldu baitziren eta harreman gutiago baitzuten izanik haiekin, ikusi zutelarik utopiarrek oro berdina bezti zirela eta zein arruntki, uste izan zuten hoberik ez ukanez zebiltzala horrela. Zuhurtzia baino harrokeria gehiagorekin asmatu zuten beren jantzien berezitasunaz jainko-itxura hartzea, eta beren apainduren distiraz utopiar gizagaizoen itsutzea. Hiru enbaxadoreak⁷⁴ agertu ziren beraz, bakoitza ehun bat lagunekin, guziak soineko nabarrez eta gehienak zetaz jantziak. Enbaxadoreak berak, aitonaren seme baitziren, oihaltzearen kapa zeramaten bizkarrean, lepoko lodiak eta petenta-urreak zituzten soinean, eraztun urreak erri-behatzetan. Bazeuzkaten gainera kapelutik dilindan, beren joiak perlatzen eta harri bitxiz distiran;

hots utopiarren baitan, morroien gaztigua, gaizkileen ahalkea eta ninien abusagailuak adierazten dituzten marka guziez apaindurik heldu ziren. Merezi zuen ikusteak nola kukurusta altxatzen zuten, karriketan barreiaturik osteka zebiltzan utopiarren jantziekin parekatuta beren apaindura. Baina ez zenuen gutiago atsegin hartzen, ohartzin zinelarik nola beren usteak huts egiten ziren eta zein urrun zeuden beren iduriko hartzen zuten begirune handi hartarik.

Utopiar guzien begietan alabaina, -zenbait bakarrek arrotz herrien ikuskatzeko aitzaki bat edo beste izana bazuten ere- apaindura ospetsu hori dena ahalkizungarri baizik ez zen; nagusi handiak balira bezala agurtzen zituzten lekaio xumeenak eta eskerrik gabe uzten iragaitera enbaxadore jaunak; beren urrezko kateengatik morroitzat hartzen zituztenak. Ikus zenitzakeen ere haur batzuk beren perlak eta harri bitxiak ahantziak zituztenak, joia bitxi horiek enbaxadoreen kapeluetarik dilindan hautemaitearekin beren amari oihuka, hari hezurak hautsiz: "Ikus, ama, zirtzil handi hori harri bitxiekin eta perlekin jostetan ari, nini bat balitz bezala!".

Eta amak ihardesten zintzoki: "Ixo haurra, enbaxadoreen jostakinatarik bat dukek!".

Beste behari batzuk, urrezko katez ari ziren: deusetako ez zirela; morroiak errazki hautsiko zituela, hain meheak baitziren; hain lazoak ere, nahi bezala inarrosiko baitzituen; eta nahi zuen lekurat ihesi eta aske joaiten ahalko baitzen.

Egun bat edo biren buruko enbaxadoreak konturatu ziren, egia erran, urre gehiago erakutsi arau-begirune gutiago zutela biltzen eta beren herrian emaiten ziren bezainbat ohore ekartzen

ziela desohore, urreak: morroi iheslari bakar baten urre eta zilarrezko kate eta lokarriek baino hazta gutiago zuten beren hiruen muntadura guziek. Orduan ahalketurik eta lumak bildurik, hain harro zeramaten janztura aldatu zuten; utopiarrekin etxekoturik, hobeki ikasi zituzten oroz gaintetik haien ohiturak eta iritziak.

Utopiarrek bada beren buruari galdetzen diote nola ote perla tipi baten edo harri-kosko baten distira liluragarriak xarmatzen ahal duen edozein izar edo eguzkia bera ikus dezakeen gizonik. Artile finago bat janzteko erabiliz handikien lerroan sartzen zarela sinesteko aski zoro izan daitekeela ezin dute onets, zeren artile-piru hori, nahi bezain mehe izan arren, ardi batek eraman ohi du bizkarrean beti eta horrengatik ardi egon da beti.

Harritzen dira ere oraino utopiarrek zeren urrea, berez hain gauza ezdeusa delarik, munduko herrialde guzietan halako estimu handitan baita gaur egun: biziki estimu gutiago du gizonak berak; honek eta honentzat eman diolarik bada urreari bere balioa. Nahikoa da ikustea, gizon eskoil edozeinek, ziri batek baino zentzu gutiagorekin, ertzo bat baino sordeiago izanik ere, urre-meta handi bat ahurrera erortzen zaion ber, gizon zuzen eta zuhur-andana bat eskupean atxiki dezakeela. Baina gerta baledi, zortearen itzuliak edo legearen itzulikatze bihurri batek -horrek baititu, zorteak berak bezainbat, denak pekoz-gora ezartzen- delako urre-meta bere jabearen eskuetarik haren etxeko azken mutil ezdeusenaren atzaparretara eramaitea, ez duzu zeren harri, laster ikusten baduzu aintzineko nagusia bere sehiaren sehi bilakatzen; honen diru-pezen emendagailu bat edo eranskin bat baizik ez balitz bezala.

Harrigarriago eta higuigarriago zaie oraino utopiarrei, ikustea nola herritar batzuek -deus ez dietelarik haiei zorrik, eta ez direlarik batere haien meneko- beren aberastasun soilarengatik Jainkoari bezalako ohoreak eskaintzen dizkieten aberatsei. Ongi baino hobeki badakite bizkitartean hain direla aberats horiek zikoitzak eta zekenak, non ez baitiete sekula pilik emanen bizi direno, beren diru-meta hartarik.

Hauek eta honelako ideiak zor dizkiote utopiarrek, besteen erokerietarik urrun dauden erakundeetan izan prestakuntzari alde batetik, eta beren literaturari eta irakaskuntzari bestetik.

UTOPIARREN PRESTAKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA

Hiri bakoitzean ez da hiritar askorik beste lanetarik bazter egonez eskola soilari emana denik: haur-haurretik jite aberatsa, adimendu zorrotza, eta arte ederretarako isuria erakutsi dutenak dira horiek. Haur guziek bizkitartean, arte eder zerbait ikasi behar dute eta bestalde, herritar-andana batek gizon ala emazte, bere bizi guzian, literatur gaitan iragaiten du beste lanetarik landa erran dugun bezala gelditzen zaion astia. Beren hizkuntza emana zaie ikasleei irakaspena⁷⁵ ezen ez du hitz-eskasiarik; belarrientzat gozoa da; beste edozeinek bezain zuzen emaiten du gogoko berri, eta -han-hemenka dauzkan nahasdura apur batzuegatik- uharte guziko eremu zabaletan berdintsu mintzatzen da, hizkuntza bera.

Gure eskualdeetan hain ezagunak ditugun filosofo guzien izenik ere ez zuten ozen han gairik, gu etorri aintzin. Alta bada, musikan eta dialektikan, aritmetikan eta geometrian, gure aintzinekoek egin aurkiberri bertsuak ezagutzen zituzten. Baina, gai gehienetan,

gure zaharren bete izanik ere, gaurko gure dialektikarien eta horien aurkipenen parean, urrun daude. Gure umeeek orotan ikasten duten "Logika-Liburu Tipian",⁷⁶ hain zehazki aurkezten diren, "Murriztapenaren", "Gehikuntzaren", "Baldintzapenaren" erregelak, ez dituzte haiek oraino asmatu. "Gibelasmoak" ulertzetik aldiz hain urrun dira non, "Gizon Orokor" delako hura ere -badakizue beste zigante guziak baino handiago den koloso hura, guk kasik eri-behatzez erakusten duguna- haietarik nehork ez du ikusi ahal izan.

Izarren bideaz ordea, eta ortzaldean egiten diren itzulikez, guziz jakintsu dira. Asmatu dituzte ere artezki, tresna batzuk, eguzkiaren, ilargiaren eta horien hodeiertzean ageri diren beste astroen mugimenduak eta geldiuneak zehazki neurtzeko. Baina, "astro errebelatuen"⁷⁷ arteko adiskidantzak eta aihergoak, hots "astrologoen azti-lana" deitzen den jukutria handi hura, ez zaie gogora heldu ere.

Zeinu berezi batzuei aspaldian oharturik, euriaren, haizearen eta aroaren gorabeherak, aintzinetik ikusten dituzte. Mugimendu horien zergatiak ordea, eta itsasoaren marea eta gazidurenak, eta orobat, zeru-lurren etorkia eta naturaleza direla eta, gure filosofo zaharren ikuspegi berdina dute, alde batetik; baina bestaldetik, gure jakintsuak ez direlarik iritzi bereko elkarrekin, haiek orduan aburu berri batzuk ekartzen dituzte, guziz bestelakoak; nahiz ez diren berak ere, beren artean, osoki bat etortzen.

* * *

Morala, deitzen den filosofiako kapitulu hartan, gure gai berak eztabaidatzen dituzte; hala nola, zer diren arimaren ontasunak,

gorputzarenak eta eguzkikoak; ea, "ontasun" hitza hiru mota horiei doakien; ala bakarrik arimako dohainei. Badute ere solas atseginaz eta bertuteaz; baina eztabaida guzietarik lehena eta premiatsuena, gizonaren zorionaz daramate: zertan zuzen dagoen? Alde bakar batean ala ainitzetan? Badirudi honetan aski isuriak direla utopiarrek gizonaren zoriona, osorik ez bada bere alde nagusian bederen, atsegina baitan jartzen dutenen alderdia hartzera.⁷⁸ Harrigarriago oraino, erlisionea ere -bere izaitez hain latza eta gogorra dena, ez erraiteko iluna eta garratza- beren aburu atseginzale horren alde biltzen dizute.

Nehoiz alabaina ez zaizkizu zorionaz mintzo arrazoiak emanez ari den filosofiari erlisionekeo egia zenbait iratxeki gabe; iduritzen baitzaie arabez, erlisionearen laguntzarik gabe, adimendua berez eskas dela eta maingu egiazko zorionaren bidea aurkitzeko. Hauexek dira egia horietarik zenbait: hilezkorra da gure arima; eta Jainkoak oneziaz zorionerako egina du. Bizi honetatik landa, gure bertuteak eta egin ditugun ongiak sariztatuko ditu; guk egin gaizkiak zigortuko. Egia horiek erlisionekeo egiak izanik ere, horien onartzera eta sinestera heltzen dela adimendua daukate utopiarrek. Horiek baztertzen balira, badiote batere zalantzarik gabe nehor ez litekeela aski mensa ez uste izaiteko, bakoitzak behar duela nolazpait zuzen edo oker bere atsegina bilatu. Oroitu behar liteke halere, gozo handiago bati poxelu egin liezaiokeen atsegin apurra baztertzeaz eta zerbait oinaze sor lezaketen atseginei uko egiteaz.

Bertutearen bide zail eta dorpeari jarraitzea beraz eta ez bakarrik biziko gozagailuak hastantzea, baina oraino oinazeak gogo onez jasaitea sari baten menturarik batere izan gabe -zer

sari izan daiteke alabaina atseginik gabe, erran nahi baita zorionik gabe, bizi guzia iragan eta deus ez baduzu ukaiten ahal hil ondoan?- erokeria hutsa daukate horrela ibiltzea.

Ez dute halere, edozein atseginen pare ezartzen zoriona; baina bai atsegin on eta zuzenaren. Zorion horretara bada, ontasun goienara bezala bertuteak berak eramaiten du gure izaitea; bertute horri baizik ez diolarik eskaintzen zorionaren giltza, kontrako eskolak.⁷⁹

Zer ote da bada honen ustetan bertutea? "Naturalezaren arabera bizitzea" baizik. Zeren Jainkoak horretarako egin baikaitu. Eta arrazoiaren arabera, zer edo zer bilatzen duena edo baztertzen, hura da "Naturalezari jarraitzea".

Arrazoiak ordea guziak eramaiten gaitu lehenik, Jainko Handiaren jaurestera eta maitatzera; Horri baitiogu zor bai bizia bai zorionaz jabetzeko ahala.

Gero deitzen gaitu eta sustatzen ahal bezain bizi baketsu eta alaia, guhaurk eramaitera; eta besteak etorkizko elkartasunaren izenean helburu berdina betetzen laguntzera.

Ezen ez dut uste, behinere izan den bertutearen jarraile eta atseginaren etsai aski ilun eta gogorrik, nehoi nekeak, beilak eta oinazeak gomendatzeko; besteen gabezia eta ezinbestea indar guziez soleitzera behartu gabe ber denboran. Horrelakoaren sinestea da ere, gizontasuna deitzen dela gizonak gizonari laguntza eta sokorri ekartzea; hori baita egiaz "gizonki" jokatzea: -eta ez da bertuterik gizonari hobeki doakionik-besteen bihozmina ezitzea, haien ilundura argitzea eta bizitzeko poza hau eta atsegina haiei bihurtzea.

Baina zergatik naturak ez liezaguke eska, hori bera bakoitzak guretzat egitea? Ezen bietarik bat izan behar da: edo

bizi laket atseginkor bat gaizki da, eta orduan ez da bakarrik nehor lagundu behar horrelako bizia eramaiten, baina behar dira ere ahalaz denak bizi gaizto eta kaltegarri horretarik urundu. Edo bizimolde bera ona delako besteentzat horren ardiestea eskubide baldin baduzu eta eginbide, zergatik ez lehenik zuhaurentzat hori bera antola? Zure buruarentzat baino bihotz hobeia izaitea besteentzat, ez ahal da zuzen! Eta besteentzat ona izaitea eskatzen baldin badu naturak, ez ahal du aginduko gogor eta garratz izaitea nor berarentzat!

Bizitze-plaxenta beraz, hots atsegina omen da utopiarren arabera, naturalezak berak manatzen diguna; gure ekintza guzien helburu bezala. Eta naturaren arabera bizitzea, hori da haientzat bertutea.

Baina bizi atseginago baten eramaiten gizon guziak elkar laguntzera deitzen dituelarik naturalezak zuzen den bezala, -ezen ez da nehor mundu guziaren gainetik zorteak ezarri duenik, itxura bereko batasunean berak bildu dituenek naturak denentzat berdin banatu dituen mainak bere-beretzat bakarrik har ditzan-guziei agintzen die, ez dezaten sekula abantzu propioa bila lagunen kaltetan.

Ez dira beraz haien ustetan, begiratu behar bakarrik hitzarmen pribatuak, baina ere bai lege publikoak; hauek printze on batek zuzenki erabaki dituelarik edo herriak berak bere onarpena eman dielarik; tiranoen zapalkuntza eta gaiztaginen maltzurkeria gainditurik bizitzeko erraztasunen, hots atseginaren ekaien banatzeko emanak baitira. Lege horiek begiratuz nork bere ona bilatzea, hori da zuhurtzia. Herriaren onaz, bestalde arduratzea, hori eginbide saindu bat betetzea. Baina besteei atsegina kentzea, nork berea gozatzeko, bidegabekeria da. Zure buruari aldiz zer edo zer edekitzen badiozu, beste norbaiti

emaiteko; oneziazko eta gizontasunezko eginbide bat bete duzu; ez baitizu sekula, ordain ekarriko dizun bezainbat kenduko: zuk galdu duzuna ordaindua zaizu gainezka: hor baita alabaina ongi eginaren ziurtamena alde batetik; eta bestetik zure gorputzari kenduak baino atsegin gehiago ekartzen baitio zure arimari, lagundu dituzunen atxikimenduaren eta eskerronaren oroitzapenak.

Azkenekotz -eta hau errazki sinetsiko dute erlisioneak gogo onez onartzen duten guziek- atsegin apur eta labur bati uko egin dionari Jainkoak emaiten dio sari, sekula agortzen ez den bozkario handi hura.

Eta horrela denak ongi ikertu eta haztatu ondoan, utopiarrek diote gure ekintza guzien eta bereziki hobereenen, helburua eta lorea azkenean atsegina dela.

* * *

Gorputzaren edo arimaren zerbait higitze edo geldiune, natura legez gozagarri gertatzen delarik hura deitzen dute utopiarrek atsegina. Ez dira debalde mintzo "natura legea" edo "naturaren gurariaz" zeren arrazoi zuzenak, eta ez bakarrik sentzuek, bilatzen baldin badu naturarentzat gozo den guzia, nehoi kalterik ez eginez deus gozoagorik galdu gabe eta neke berezirik jasan gabe egin daitekeelarik, egia da ere gizonek hitzarmen hutsal batzuen bitartez amesten dituztela naturak berez arrotz dituen gozagailuak - gizonen esku balitz bezala, izenak bezain erraz izanak aldatzea!-.

Utopiarrek, beraz, erabakitzen dute lilura horiek guziak ez direla batere zorionarentzat lagungarri; poxelu bai, izaitekotz; zeren izpirituan sartuz geroz leku guzia hartzen baitute eta tokirik ez uzten egiazko gozagarri jatorrentzat. Zernahi gauza bada; deus gozagarri ez baitute berenaz.

Haietarik askok kirats alde bat ere badu gainera. Baina gutizia gaiztoen sukar nahasiaren kariaz haiek hartzen dituzte, ez bakarrik atsegin handientzat, bizitzeko kausa nagusientzat baizik.

Atsegin faltsu horien lerroan sartzen dute lehen aipatu ditugun jaunen harrokeria: jantzi hobe emanetz uste baitute berak hobetsiko dituztela; puntu bakar horretan, bietan huts egiten dutelarik; ezen, ez dabilta zuzen beren buruak hobesten dituztenean; are gutiago beren jantziak. Zergatik ote jantziari dagokionez, piru mehea nagusitu behar zaio piru lodiari? Baina beihalako jaunek, natura legez balira bezala lehen lerroan eta ez ustegabez, kukurusta altxatzen zuten eta beren jantziek emaiten zietela ez entrabaleko balioa amesten. Soineko txarragoekin ukanen ez dituzten ohoreak, uste dute hartzen dituztela, jantzi ederragoak jantziz geroz eta haien parean iragaiten bazara haiek agurtu gabe, gaitzitzen zaie.

Baina ez ote da zorokeria bera deusetako ez diren ohore hutsalen onartzea? Zer atsegin izan dezakezu berez eta egiaz, nehoren buruhas edo belauniko ikustea? Ala horrek sendatuko du zure belauneko mina? Edo arinduko zure buruko mina?

Alegiazko atsegin horien itxuran, ikusteko da zein gozoki zorutzen diren beren aitonen seme istorioekin gozatzen diren gaixoak: beren buruak miresten eta goresten dituzte, horrelako aintzinekoetarik sortzea gertatu zaielakotz. Arbasoen zurubi luze horrek bada lehen lur-eremu handiz bereziki, aberats izanaren fama badauka. -Eta gaur egun aitonen seme izaitea ez da besterik-. Baina beren ustez ez dira maila horretarik demendrenik apaltzen, beren ontasun haietarik arbasoek ez badiete ere deus utzi edo haien ondoriotasuna berek hondatu baldin badute.

Zoro horietaz bestalde, badira erran dugun bezala, perlek eta harri-koskorrek erotzen dituzten guziak. Jainkoak iduri bilakatu direla uste dute, halako zerbait harri arraro eskuratu dutelakotz; bereziki han eta orduan balio gehiena duena delarik; zeren ez baitute orotan eta beti balio bera atxikitzen. Huts-hutsik eta eraztun-urrerik gabe erosten dituzte. Saltzaileak gainera, zin egin behar die eta bermea eman egiazkoa dela perla eta egiazkoa harri bitxia; hain dira beldur, harri faltsu bat sal diezaien egiazkoaren orde. Baina behatzen diozularik, zergatik ez zenuke faltsua berdin atsegin zure begiek ezin badute egiazkotik bereiz? Biek balio bera izan behar lukete zuretzat; itsu batentzat izan behar dutena bederen.

Zer erran ote behargabeko ontasunak begiratzen dituztenez; ez haien baliatzeko baina haien ikustez atsegin hartzeko? Atsegin egiazkoa ote dute hartzen ala alegiazkoa?

Zer ari dira alderantziz, sekula erabiliko eta menturaz sekula ikusiko ere ez duten dirua gordetzen dutenak? Gal-beldurrez galtzen dute egiaz; ezen beren urrea lurlean ezartzea, beren buruari -eta menturaz beste guziei- kentzea baizik ez da. Zu bizkitartean zure altxorra gorde duzulakoan, pozez jauzika ari zara gogoa lasai.

Demagun, ordea, ohoin batek zure altxorra ebasten duela eta zu, deusik jakin gabe hamar urteren buruan hiltzen zarela. Diru-galtzearen ondotik iraun duzun hamarreko horretan zer axola zenuen, zure urrea galdurik ala begiraturik? Bietan mozkin bera ahal zenuen!

Atsegin zoro horien lerro berean ezartzen dituzte utopiarrek, dato-jokoak -nahiz ez duten erokeria horren ohiturarik,

besteen entzutea baizik- ehiztari eta xoriketari jostetak.

Zer atsegin izaiten ahal da -galdetzen dute- datoak joko-mahai ganean idokitzea? Eta zortez behin atsegin izan baldin baduzu; ez ote zaitu hainbeste aldiz errepikatzeak aspertu?

Eta oraino zer gozotasun kaustitzen ahal diozu zakurren ahausiak eta zaunkak entzuteari? Ez ote bada gogaindura, izaitekotz? Ala atseginago da ikustea zakurrak erbia lasterkatzen, zakur batek beste zakur bat baino? Bietan lasterkaldia baduzu; lasterkaldia baldin baduzu atsegin. Baina ehailketaren zain baldin bazaude, sarraskia baduzu igurikatzen, urrikaldu behar zintezke zakurrak erbiñoa zehatzen ikusiz; indartsuak herbailena, basatiak herabea eta iheskorra, eta ondikotz odolgoaseak hobengabea bezala.

Utopiarrek beraz, ehizi-joko guziak herritarrentzat desohore dauzkatelakotz, harakinei uzten dizkiete - harakingoa morroi-lana baita erran den bezala- eta harakinaren lanik txarrenarentzat daukate eginkizun hori; beste lanak beharrago eta ohoragarriago baitira: askoz ere etekin hobea dute; baitezpadako abereak baizik ez dituzte hiltzen. Ehiztariak, aldiz, bere atseginarentzat, animale gaixo edozein zehatzen dizu eta kalitzen. Animalien ehailketaren ikusteko tirria bera, bihotz gogor batetik datorrela sinesten dute utopiarrek; edo bederen gogorkeria horretara lerratu behar dela, atsegin basa horretan gozatu ohi dena, pentsu dute.

Joko horiek oro beraz eta horiek iduriak -baita aintz horrelako- gehienek atsegin dituztenak, ez dira haiek beldur erraiteko argi eta garbi, deus gozagarririk ez dutenez geroz, natura legez deus ikustekorik ez dutela ere atsegin egiazkoarekin.

Eta nehork gozorik kausitzen badie ere -gozoa baitarama atseginak- haiek ez dira beren hartarik higitzen; ez delakotz hori gertatzen jokoen beren kausaz, baina jokolarien faltaz: berez kiratsa dena dutelarik hauek eztitzat hartzen. Horrelako zerbait gertatzen da haur-beharretan diren andreekin, beren dastamena galdurik ezti baino eztiagotzat baitauzkate bikea eta zihoa. Baina ohiturak edo eritasunak nahasi duen nehoen izpirituak ezin du, ez beste gauzen ez eta ere atseginaren naturaleza nehondik alda.

* * *

Egiazko dauzkaten atseginen artean zenbait mota bereizten dituzte: batzuk doazkio arimari eta besteak gorputzari. Arimari doazkio adimenduarenak eta egiari behatzak pizten duen gozotasun hura.⁸⁰ Iratxeki behar zaie bizitze ongi betearen oroitzapena eta datorren onaren itxaropen finkoa.

Gorputzaren atseginak bi multzotan banatzen dituzte: lehenik hor daude, gozotasun argi batek zentzuak gainditzten dituelarik gertatzen direnak: hala nola, barneko suak higatu indarrak berritzen direlarik -jan-edanek egiten dute hori- edo ere gorputzaren betekinak jalgitzen direlarik -hori gertatzen baita bai hertzeak hustean bai haurrak egitean bai eta ere gorputz alde bateko hazkura hazkatuz edo igurtziz ezitzean. Baina gertatzen da oraino atsegin berezi bat sortzen dela gorputzak berak eskatzen duenik hari eman gabe edo jasangaitz zaionik hari kendu gabe, bakarrik halako indar ixil eta argi batek zentzuak pizten dituelarik, erakartzen, eta bereganatzen

musika batek bezala.

Bigarren lerroan dator diotenaz, gorputzeko beste atsegin-mota bat; gorputzaren soseguak eta orekak emaiten duena, erran nahi baita bakoitzaren nehongo gaitzik gabeko osasuna. Egia da zinez osasun hori berez atsegin dela kanpoko atsegin berririk ez iratxekirik ere; nehongo edozein minek nahasten ez duen ber. Nahiz ez den hainbeste nabaritzen, nahiz ez dituen jateko eta edateko tirria hanpurutsuak bezainbat zentzuak berotzen, ainitzek daukate halere osasuna dela atsegin goiena. Utopiar gutiz gehienek ere diote hura dela garrantzitsuena, beste guzien oinarria eta zimendua: hark berak egin dezake bizitze baketsu eta gutiziagarria; hura gabe ez da nehon atsegin apur batentzat leku-izpirik gelditzen. Eta minik ez izaitea ere osasunik ez bada, ez da hori atsegina deitzen; losuna baizik.

Badu aspaldi utopiarrek baztertu zutela, osasun eder eta iraunkor bat ez dela berez atsegina izaiten ahal -gai hori ere artoski eztabaidatu zuten- baizik eta ez dela atseginik kanpoko zirikatzerik gabe, dioen teoria. Gutiz gehienek aitortzen dute gaur egun, atsegin handienetarik bat dela osasun on bat izaitea. Zeren diotenaz, eritasunarekin baitator oinazea, atseginaren etsai amorratua dena, -eritasuna osasunaren etsaia den bezala- zergatik ez iratxeki, alderantziz atsegina osasun on eta sendo bati? Batera dator beraz haien arabera, erraitea: eritasuna min bat dela, edo erraitea: mina datxikola eritasunari. Bi gisetara berdin da gertatzen: edo osasuna izan dadila atsegin bera

edo osasunak atsegina sor dezala baitezpada; suak beroa bezala; bietan gisa oroz osasun sendo bat hor duzunean, atsegina ere ez dukezu urrun.

Ikus zer gertatzen den jaten dugunean: ez ote da orduan osasuna, ahultzera zihoana, gudukan hasten gosearekin hazkurria lagun? Eta indarrak berritu arau, aintzineko heinera itzultzearekin pizten zaigu indar-berritzeak dakarren atsegina. Eta horrela, gudukatzean atsegin hartu duelarik osasunak, ez luke ere gozatu behar garaitu ondoan? Ala zer, aintzineko indarrak biltzeko gudukatu ondoan, indar horiek bildu orduko behar luke loakartu? Ez lituzke bere ontasunak ezagutu eta besarkatu behar?

Eta osasunak ez duela hunki berezirik emaiten erraiten denean; utopiarrek daukate ez dela hori batere egia. Nor da alabaina atzarririk den gizona, eta osasunean dela sendi ez duena? Hala ez dena baizik: bere osasuna laket eta gozo zaiola ez ohartzerainokoan, loeriak eta moteldurak kikildurik daukatena baizik. Gozo hori baita funtsean atsegina!

Oroz gainetik bada, utopiarrek atxikiak dira izpirituaren atseginei -horiek dituzte lehen lerroan ezartzen eta maila gorenean- eta iduritzen zaie, bertutea praktikatzea, zuzenbidean aintzinatzea dela hoberena.

Gorputzeko atseginetan, aldiz, lehentasuna emaiten diote osasunari, zeren diotenez, jan-edanen gozoa eta beste horrelakoak osasunarengatik dira bakarrik gutziagarri. Gaitzaren eraso ixilei ihardokitzen dieten neurrian bakarrik dira alabaina gozagarri; ez berenaz.

Horra zergatik gizon zuhurrak nahiago dituen eritasunak aitzindu, sendagailuak bilatu baino; oinazeak urrundu, eztigailuak baliatu baino, eta zergatik ere nahiago duen atsegin-mota bat ez hartu, ondotik hura ordaindu baino. Eta norbaitek uste badu horrelako atseginek dohatsu egingen dutela, aitortu beharko du azkenean, haren zorion betea litzatekeela bizi guzian gose, egarri eta hazkura izaitea, jaten, edaten eta hazkaarran aritzeko gisan, beti geldi-geldia. Nork ez du ikusten horrelako bizia ez dela bakarrik okaztagarri, baina ere bai zinez urrikgarri?

Oro har atsegin horiek ez dira hainbatekoak, guziz nahasiak baitira eta beti aurkako oinazei loturik ibilki: jateko atseginari loturik dabil adibidez gosea; baina ez oreka berean ezen oinazea bortitza da eta ere iraunkorrago; atsegina baino lehen agertzen da eta hura berekin batean suntsitu gabe ez da itzaltzen.

Horrelako atseginei beraz utopiarren ustetan, ez zaie garrantzirik eman behar baitezpadako diren neurrian baizik. Gozatzen dituzte halere alegeraz eta ama naturaren bihotz ona eskertzen dute, horrelako gozagailuen bitartez bere umeak erakartzen dituelakotz maiz errepikatu behar dituzten eginbideen betetzera. Zein nazkagarria ez litzateke gure bizia, egunero jasaiten dugun gosearen edo egarriaren gaitza bakanago joiten gaituzten gaitzak bezala erremedio eta droga kiratsez garaitu behar bagenu!

Gorputzaren itxura, indarra, zalutasuna, horiek bai gogotik artatzen dituzte; naturak gure pozteko eman dohainak direlakotz.

Bilatzen dituzte bestalde belarrietarik, begietarik, sudurretik, datozkien atseginak; naturaren xedetan, gizonari berari baitagozkio bereziki. Ez da ezen beste animala motarik, munduaren edertasunari eta itxurari behatzen dionik; ez da bihirik, usainaren xarmak -non ez den bere hazkurria bereizteko- zoratzen duenik; ez eta ere besterik, soinu-tarteak hots-kide ala hotsgaitz diren ezagutuko duenik. Biziaren gozagarri gisa bilatzen dituzte erran dudan bezala. Baina beti arau hauek begiratzen dituzte: atsegin tipi batek ez dio handiago bati poxelu egin behar; ez du ere nehoiz atsegin batek oinazetik sortu behar, hori nahitaez gertatzen omen baita atsegin makurra denean.

Gorputzaren edertasuna gutiestea ordea, haren zainak ahultzea, zalutasuna galtzea, barurez etetea, osasuna hondatzea eta naturaren gozo guziei uko egitea, -non ez duen norberak berea bazter uzten lagunaren edo herriaren ona artoskiago bilatzeko eta ordainez Jainkoarengatik zorion ederragoa ardiesteko-, hots nork bere burua hilduratzea nehoren onetan ez delarik, bertutearen itzal huts batengatik edo menturaz nehoiz etorriko ez diren gaitz batzuei hobeki ihardukitzen ikasi nahiz, hori guzia erokeria handiena dela daukate; nor bere buruarekin basa izaitea da eta naturarekin eskergaitz agertzea; iduri eta haren dohain guziei uko egin behar diezuen deus zorrik ez izaitekotan harekila.

Horra zer dioten utopiarrek bertuteaz eta atseginaz. Eta ez baldin badio zeruko erlisione batek sailduagoko zerbait ideia igortzen gizonari, egia zuzenagorik ez duela gizonaren adimenduak aurkituko sinesten dute haiek. Zuzen dabiltzan ala makur ez dugu hemen astirik horren zuritzeko. Ez beharrik ere: Utopiako erakundeen berri emaita dut hitzemaia ez haien

zuzenestea. Dena dela eta nolanahi harturik ere egia horiek, nik badakit ongi ez dela munduan populurik gaina hartzen dionik; ez erresumarik dohatsuago denik.

Gorputzez aldiz utopiarrek zaluak dira, zainartak eta kaizuz iduri baino azkarragoak -ez du horrek erran nahi tipiak direnik-. Haien lurrak ez izanik ere denak emankorrak, ez haien aroa beti osasunezkoa, hain hazkurri egokiz ihardokitzen diote aro gaitzari eta hain artezki dituzte ontzen beren lurrak, non ez baita atzemaiten herririk, abelketa edo uzta hobeak dituenik, bizilagun bizitorea goak dauzkanik eta izurriteek bakanago joiten dutenik. Ikusteko da ez bakarrik zer artarekin betiko lur-lanak egiten dituzten eta nola esker txarreko lur bat landuaren landuaz ontzen duten, baina ere nola beren besoz oihan bat errotik ateratzen duten, urrunago landatzeko; eta hori ez mozkin hobearengatik baina garraioa erraztu beharrez; itsasotik, ibaietarik edo hirietarik hurbilago gerta daitezten zurak; zeren errazkiago ekartzen baitira lehorrez urrundik bihiak, zurak baino.

Zinez jende maitagarria, ernea eta arteza da utopiarra; astia gozatzen badaki, baina ere behar orduan nekearen haidorki jasaiten. Ez izanagatik beste lanetan lan-gosea, buru-lanetan higatu ezina da.

Guhauk zer bait adierazia genien grekoen irakaspenez eta literaturaz⁸¹-latin-idazleen artean, olerkarietaz eta historialarietaz beste nehor gutik zituen iduriz biziki interesatzen- eta ez ginen guti harritu ikustearekin zer garrarekin eskatzen zuten lagun genitzan gure azalpenekin gaiak sakontzen.

Behin lanak lotsatzen gintuelako itxura ez nahiz eman,

baina ondorio onen itxaropenik gabe ahozko irazkin batzuen itzulikatzen hasi ginen. Gero zenbait urrats egin orduko, haien laneko garrari esker laster ohartu ginen gure eginahalak ez zirela alferrik izanen. Egia erran, letren itxurak hain errazki moldatzen, hitzen hotsak hain zuzen ahoskatzen, testuak hain laster gogoz ikasten eta itzulpenak hain xerrentuki itzulikatzen hasi zirenean, mirakuilua idurituko zitzaigun jakin ez bagenu, ikasketa horiei lotuak ziren gehienak hasiak zirela Senatuaren erabaki batek agindurik; eta ez bakarrik beren gogoak emanik: eskolatuen artean hautatuak izanik ziren, izpiritu argienak, helduaro bete-betekoak. Hiru urte gabe aski ongi menderatzen zuten hizkuntza berria, idazle nagusien ikertzeko eta testua nahasia ez bazen bederen, errazki bururaino irakurtzeko. Badut uste bestalde, gogotikago lotzen zitzaizkiola literatura horri, ahaide kutsua badukeelakotz haiekin. Somatzen dut alabaina grekoenganik datorrela haien herria; zeren haien hizkuntza, gainerakoan pertsiarri hurbil dabilena, grekoen hizkuntzaren herrestoz markatua baita herri eta kargudun izenetan.

Laugarren ibilaldirako abiatzean goizegi itzuli baino nahiago bainuen sekula ez itzuli, salgaien orde hartua nuen liburu-haxe on bat eta nihauk eman nizkien utopiarrei liburu zenbait: oroz gainetik Platonen obrak, Aristoteleren liburu batzuk, Teofrastorena⁸², "Landareez", -hau zorigaitzez lekuka aski funditua, gure ibilaldian bazter utzirik "zerkopiteko" zimino zoro batek hosto zenbait kendu baitizkio; eta urratu baitu jostatzeko-. Gramatikalaririk ez dute, Laskaris⁸³ baizik;

ez baineraman nerekin ez Teodoro,⁸⁴ ez hiztegi-bihirik, Hesizio eta Dioskoride⁸⁵ baizik. Plutarkoren obrak⁸⁶ asko maite dituzte eta Luzianoren⁸⁷ umorea eta grazia xarmagarri zaizkie. Poetak aipatzeko, ezagutzen dituzte Aristofanes, Homero, Euripides eta letra xehetan Aldek argitaraturikako Sofokles⁸⁸ Historialariak, Tuzidides, Herodoto⁸⁹ eta ere Herodiano. Medikuntza dela eta, Trizio Apinato⁹⁰, nere lagunak ekarriak zituen berekin Hipokratesen liburuxka batzuk, eta Galienoren "Mikrotekne" delakoa, estimu handitan dauzkatenak guziak. Nahiz ez den herrialde ainitzik, haiek baino gutiago medikuntzaz behartzen denik, ez da aurkituko besterik ofizio hori hark bezainbat ohoratzen duenik: filosofiako sail eder eta baliosen artean sartzen dute. Naturaren misterioak ikertzen dituztelarik jakintza horri esker iduritzen zaie ez dutela bakarrik, atsegin paregabea berek gozatzen baina mundua egin eta landu duenaren eskerrona ardiesten dutela ere.

Asmatzen dute, beste langile guziek bezala Langile hark ere mundu honetako mekanika ezarri duela gizonaren begien aurrean ongi mirets dezan -bakarra baita gizona horrelakoen miresteko gai egin duena-. Eta horra zergatik Jainkoak maiteago dukeen haren obra miresten dakien behari jakingose eta arretatsua ezenez eta adimendurik ez duen animalearen pare, horrelako ikusgarri handi eta miresgarrien aintzinean sor eta gor dagoen gizon mandoa.

Letretan ongi eskolatu ondoan, utopiarren izpiritu erneak, paregabeak dira bizi erosoago baten lagungarri, baliabide berriak asmatzeko.

Bi aurkiberri halere, papergintza eta inprimaketa guri zor dizkigute. Ez guri bakarrik egia erran, beren antzeari ere, neurri on batean: erakutsi genizkien paperezko liburuetan, Aldek moldatu letrak eta aipatu ere paperaren egiteko ekaia eta letrak inprimatzeko moldea, baina ez genien zehaztasunik eman ahal izan, gutarik nehor ez baitzen teknika bieterik bat ala bestea ezagutzen zuenik. Haiek ordea ikusi zuten berehala, eta zuzen, non zegoen arazoa. Ordurarte ez baitzuten larru, azal edo papiroetan baizik izkiriartzen, berehala paperaren egiteko eta letrak inprimatzeko entseiuak hasi zituzten.

Haste hartan ez ziren hain ongi heltzen, baina ariaren ariaz laster kaustu zuten bi tekniketan hainbestetaraino, non grekoen liburu guziak izan balituzte eskutan, ez baitzuten haien kopia-eskasiarik izanen. Baina oraingoz ez dituzte eskuratu aipatu ditudan horiek baizik, eta orduan horiek bai milaka aletan inprimatu dituzte eta zabaldu bazterretan.

Herria ikuskatzeko xedearekin Utopiara heltzen denean arrotz bat, izpirituko dohainez aberats baldin bada bereziki edo ainitz ibilaldi eginik ainitz herritako berri baldin badaki, orduan ongi etorri izaiten du: horrengatik gintuzten hain ongi hartu gu ere. Mundu zabaleko berri jakitea biziki atsegin zaie.

Gainera, ez zaie ikusliar handirik joaiten salerospenen aitzakiarekin. Zer ekar liezaioke alabaina burdinaz besterik edo zer handik eraman bakoitzak urre edo zilarra baizik? Iduritzen zaie beraz oro har atzerrira eraman behar dituztenak, berek beren kontu eramaitea, ezenez eta besteen gain uztea; eta

horrela, alde batetik hobeki ezagutzen dituzte auzo-herriak eta bestetik itsasoko jakintza eta ohiturak ez dituzte galtzen.⁹¹

MORROIEZ

Utopian morroiak ez dira, gerlako presoak -non ez ziren haiek gerlaren pizleak- ez ere morroien umeak⁹² ez eta ere herri batzuetan morroi izanak eta han erosi dituzketenak, baina bai zitalkeria batengatik zigortu diren herritarrak edo maizago gertatzen dena atzerritar gaiztaginak, hiltzera kondenatu izanak. Hauetarik asko ekartzen dituzte merke erosirik eta maizenean urririk harturik. Langile-mota hori behartzen dute gau eta egun lanean aritzera eta bestalde katez kargaturik egoitera. Eta arrotzak baino idorkiago darabiltzate oraino herritarrak; zeren iduritzen baitzaie deitoragarriago dela hauen kasua, eta beraz gaztigu garratzagoa hartzen dutela zuzenbidean hain ederki ikasiak izan ondoan ez dutelakotz gaizkitik begiratzen jakin.

Beste morroi-mota bat ere badute: hala nola atzerritar langile behartsu baina kementsu batek bere baitarik erabakitzen duelarik haien zerbitzura etortzea. Morroi hauek guziz gizonki darabiltzate eta lanean gogortuak izanez, besteek baino lan gehiago emaiterik ez balute, ez litzateke haien zortea beste herritarrena baino batere txarragoa. Eta batek joan nahi baldin badu -nahiz ez den maiz gertatzen- ez dute bortxaz atxikitzen; ez eta ere eskuak hutsik bidaltzen.

Eriak, erran bezala atxikimendu handiarekin artatzen dituzte: deusen eskasik ez dute osasuna bihur liezaiekeenik, ez sendagailurik ez jateko edo edateko berezirik. Eta ezin sendatuzko

gaitz batek joak direnak, haien ikustera joanez, haiekin solastatuz, hots ahal bezainbat haiek mainatuz, soleitzen dituzte.

Eritasuna bizkitartean ez baldin bada bakarrik ezin sendatuzkoa, baina oraino etengabeko oinaze izigarrien kausa, orduan apezak eta kargudunak heldu zaizkio aholku emaitera eriarri: bere biziko eginkizunak ez dituenaz geroz betetzen ahal eta herioa ezin urrunduz daraman bizia besteentzat poxelu bat eta beretzat zama bat denaz geroz, ez dezala gehiago bere burua utz izurriak hirotzera eta gaitzak jatera. Ez dadila hiltzeko beldur izan oinaze huts denaz geroz bizia harentzat. Itxaropenak azkarturik, ezin jasanezko bizi honi ihes egin diezaiola presondegiari eta estira-

-orratzei bezala, edo berak bere buruaz beste eginez edo berak besteei eskatuz ken diezaioten bizia. Hori eginez, nola ez duen herioak biziko gozoaz gabetzen, baina oinazetik ateratzen, zuhurki jokatu da eta bestalde nola apezan -hau da Jainkoaren arartekoen- aholkuei jarraitzen zaien bere deboziona eta saindutasuna erakusten du. Kontseilu horien arabera, edo goseak hiltzen dira beren baitarik, edo loakarrarazten dute beren burua; hil daitezen ohartu ere gabe. Baina ez dute nehor hilarazten berak ez baldin badu nahi eta ez dizkiote ere nehoi hartzen zituen artak kentzen. Ohoragarri daukate bizkitartean erran dugun gisan, nork bere burua hiltzera uztea.

Bestela, bere buruaz beste egiten duena senatoreen eta apezan onarpenik gabe, hura ez dute nahi ez suan erre ez lurlean ehortzi; eta haren gorputza aurtikitzen dute ahalkegarri, ehorzketarik gabe, lohidoi batera.⁹³

Hemezortzi urteak bete aintzin, ez dira emazteak ezkontzen; gizonak ere ez, lau urte gehiagorekin baizik. Gizona ala emaztea,⁹⁴ ezkon aintzin, ixilka lizundu dela frogatzen baldin bada, garrazki gaitzesten dute; eta bati ala besteari debekatzen zaie ezkontzea, non ez dien Buru Lehenak hutsaren barkamena emaiten.

Bestalde nahigabea gertatu den etxeko aita eta ama, bat bestea bezain handizki desohoratuak dira; ez dutelakotz behar bezala begia atxiki.

Zergatik dute gaztigatzen hoin gogorki gaitz-mota hori? Zeren ohaidego aldakor horiek oro ez balira osoki eragozten iduritzen baitzaie laster nehor gutik onar lezakeela ezkontzako maitasun-lokarrietan sartzea; han behar delakotz lagun bakar berarekin bizi guzia iragan, eta gainera bizimolde horren araberako unadura jasan.

Ezkontidea hautatzerakoan, badute ordea utopiarrek ohitura bat, guri guziz zoroa eta behinkoaz irrigarria iduritzen zaiguna eta haiek guziz hertsiki begiratzen dutena: emaztegaia beraz, ezkongabea ala alarguntsa, biluz gorritan aurkezten dio andre zuhur eta ohoragarri batek bere senargaiari; eta berdin gizongaia, biluzirik gizon zuhur batek bere andregaiari.

Baina guk desegokia kausitzen genuelarik ohitura hori eta irrifarrez gaitzesten, haiek harrituak zeuden, beste herri guzien erokeria handia ikusiz: behor bat erosten delarik alabaina eta diru puska bat arriskatzeko, zer artarekin ez da, tratua egin aintzin biluz hurran delarik animalia, bere zela eta pilda guzietarik biluzten, arnesen azpian zauri gaizto zerbait gorde dakion beldurrez? Ezkontidea hautatzean ordea -bizi guziko zoriona ala zorigaitza hautu horri doakiolarik- hain ezaxolki dihardute non, gorputz guzia jantzi estalia delarik, ahurraren eremuarekin bakarrik -aurpegia baizik ez da ikusten- estimatzen dute emazte osoaren balioa, gero hura hartzen eta arriskatzeko -ez arrisku tipia- zerbait akats ager baledi ondolik gaizki heltzea harekin.

Ezen ez dira denak aski zuhur izpirituko dohainei behatzeko bakarrik; eta jende zuhurren ezkontzan ere ezin da gutiets

gorputzeko dohainek izpiritukoei eransten dieten gehiagoko hura. Halako zauri itsusia gorde daiteke jantzi ederrenen azpian⁹⁵ non senarraren bihotza osoki urrunt baitezake andrearenganik; nahiz ez zaien ja zilegi bereiztea elkarretarik. Horrelakorik gerta baledi ezkondu ondoan behar luke bakoitzak bere zorigaitza jasan; baina ezkon aintzin legeari dagokio horrelako ataketan erortzetik herritarren zaintzea.

Utopiarrak hainbat gehiago arduratu dira gai honetaz, beren eskualdeetan bakarrik direlako ezkonlagun bakoitzarekin gelditzen direnak eta herioak baizik hauts ez dezakeen ezkonlokarria onartzen dutenak⁹⁶, non ez den adulteriorik edo bat edo bestearengatik bizimolde ezin jasanezkoarik. Kasu horietan Senatuak emaiten dio iraina jasan duen lagunari ezkontidez aldatzeko baimena; hobenduna kondenatzen dutelarik sekulakotz bakarrik bizitzera desohorean.

Kasu horietarik hara, hobenik ez duen emazte bat gibelera igortzea gogoz kontra, zerbait narrio etorri zaiolako aitzakiarekin, ez dute nehoiz, neholaz onartzen. Basakeria hutsa daukate, beharrik handienez delarik nehor baztertzea eta zaharrei -zahartzaroa delarik gaitz guzien ama eta gaitz gaiztoena bera- dudazko fede eskas bat ematea.

Senar-emazte batzuek halere, bizimolde onik ez dutelarik elkarrekin eta bakoitzak bere aldetik bizi atseginago baten eramaiteko lagun-gai berri bat aurkitu duelarik, bereizten ahal dira gogo onez eta ezkontza berri bati lotzen; ez hargatik Senatuaren baimenik gabe. Senatorek, aldiz, ez dute bereizketarik onartuko, berek beren ezkonlagunaren laguntzarekin kasua artoski ikertu aintzin, eta horrela ere, ez dute errazki erabakiren, zeren baitakite ongi

ezkontza berri baten errazegi egiteko menturak ez duela batere ezkonlagunen arteko maitasuna finkatzen. Morroitza garratzenaz zigortzen dituzte ezkontza-hausleak; eta bi hobendunak beren aldetik ezkonduak baldin baziren, irainduak izan diren ezkonlagunak lagun hobenduna utzirik ezkon daitezke elkarren artean edo iduritzen zaien beste batekin. Bizkitartean iraina jasan duenetarik batek hain gaizki ibili zaion laguna beti maite baldin badu, ez diote debekatzen aintzineko ezkontzari jarraikitzea; bere laneko gaztigu-lekura lagun hobendunarekin joaitekotan. Horrelakoetan gerta daiteke baten urrikiak eta bestearen garrak eta atxikimenduak Buru Lehenaren bihotza hunkitzea, eta honek orduan bi senar-emazteak aske uztea. Huts berean berriz erortzen denari haatik, emaiten diote herio-zigorra.

Beste gaizkileentzat ez du legeak gaztigurik finkatzen: Senatuari doakio aldi bakoitz gaizkinaren gaiztakeriaren arabera erabakitzea.

Beren senarrek zentzatzten dituzte emazteak; eta haurrak beren burasoek; non ez duen gaizkilearen gaiztakeriak berak eskatzen moraltasun publikoarengatik gaztigu publikoa.

Gaizkile handienak oro morroitza gaztiguaz zigortu ohi dituzte; zeren gaztigu hori beste edozein bezain gogor baitzaio gaiztaginari eta gaiztaginak berehala xahutzen dituen presakako erailtze bat baino baliagarriago herriari.⁹⁷ Haien heriotzea baino baliosago da haien lana alde batetik eta bestetik haien gaztiguaren irakaspena iraunkorrago beldur zentzagarri bat sarrarazteko.

Jazartzen direlarik eta bihurtzen gaiztaginak, orduan bai kalitzen dituzte abere basa hezgaitzak bezala, ez presondegiak ez kateek ez dituztenaz geroz menderatzen ahal.

Beren gaztigua jasaiten badakitenek, aldiz, ez dute zeren etsimendutan eror: luzaz jasan dituzten oinazeek guritu dituztelarik haien gogo-bihotz gogorrak eta beren urrikiaren berme

erakutsi dutelarik berek egin gaizkiaz damutuago direla haren ondorioz pairatu gaztiguaz baino, orduan morroitzaren pena arin edo osoki ken diezaieke bai Buru Lehenak bere barkatzeko eskuaz baliatuz bai populuak bere botzez erabakiz.

Lizunkeriara deitzen duenari ala lizunkerian diharduenari auzi bera egiten zaio zeren auzi guzietan entseiu nabari eta deliberatua, ekintzaren beraren pareko baitaukate: ez dute uste alabaina xede gaiztoak huts egin baldin badu, hori baliatu behar zaiola neholaz huts egin ez zezan ahalak oro egin dituenari.

Bufoiak asko maite dituzte: 98 haietaz trufatzea gaitzesten dute; baina haien zorakeriez irri egitea zilegi zaie. Irri eginez bestalde, bufoiei zerbitzu egiten zaie eta nehor aski iluna eta mokorra baldin bada, edozein jostakinen solasez edo keinuez irri tuntik ez egiteko ez diote sekula hari bufoirik emanen; ezen beldur dira, bufoi batek berez daukan dohain bakarra, abusatzeko dohaina, ez beste bihi bat, balia ez dezakeen nagusi horrek ez diezaion erakuts hartzen duen atxikimendu-doia.

Gizon eskoil edo moldegaitz batez trufatzea ahalkizungarri da, eta itsusi; ez trufatua denarentzat, baina trufariarentzat; zoro horrek, senda ez dezakeen gaitz batez hobendun egiten baitu hobenik ez duen gaixo bat.

Bere berezko itxura ederraz artarik hartzen ez duena haientzat nagia da eta alferra. Baina esnurinak erabiltzen dituen ere fazatsutzat daukate. Badakite ezen ongi frogaturik, beren senarren begietan emazten begirunea eta zintzotasuna gomendagarriago direla haien itxura eta grazia baino. Eta itxurak berak batzuk biltzen baldin baditu ere, ez du nehor loturik atxikitzen bertuteak eta jauspenak baizik.

Utopiarrek ez dituzte bakarrik beren herritarrak gaizkitik urruntzen gaztiguen beldurrez; baina bultzatzen ere dituzte onera

ohoreak hitzemanetz: horra zergatik, herriko plazetan ezartzen dituzten herritar aipatuen eta herria handizki zerbitzatu dutenen irudiak; iragan ekintzen oroitzapena begiratzeko eta ondotik datozenei aintzinekoen ospeari esker, bertuterako akuilu bat eskaintzeko xedetan.

Azpijokoz kargu zerbait eskuratu nahi izan duenak sekula deus horrelakorik ardiesteari uko egin behar dio.

Guziz maitagarria da elkarrekin daramaten bizia: kargudunak adibidez, ez dira ez handiosak ez beldurgarriak; "aitak" deitzen dituzte eta hala dira egiazki. Herritarrek eskaintzen diete hartzen duten begirunea; baina nahi ez dutenak, ez dituzte horretara behartzen.

Buru Lehena bera, ez du ez koroak ez jantziak bereizten; bere aurrean eramaiten dioten gari-azauak baizik. Eta berdin, aintzinean eramaiten dioten tortxak ezagutarazten du Apez Nagusia.

Lege ainitzik ez dute utopiarrek; dituzten erakundeekin guti aski baitute. Oroz gainetik beste herriak gaitzesten dituzte; hainbeste lege eta irazkin izanki eta, beti berriak behar dituztelakotz. Haien iduriko, nehork irakurtzeko gehiegi badiren eta nehork ulertzeko nahasiegi diren legeak begiratzera herritarrak hertsatzea, bidegabekeria handia da.

Abokatuek gainera ez dute lekurik haien uhartean;99 jende horiek maltzurki itzulikatzen dituztelakotz legeak eta jukutriaz eramaiten auziak. Auzilari bakoitzak berak zaindu behar du bere burua: abokatuari erran liezaiokeen hura bera erran biezaio epaileari. Itzulinguru gutiago izaiten da horrela eta errazkiago argitzen egia; zeren mintzo dena ez baitu nehongo abokatuak "alegia egiten" eskolatu. Epaileak orduan denak bederazka eta zuhurki haztatzen ditu; bihurrien jukutrien kontra jende xehea lagunduz.

Beste herrialdeetan ez da erraz horrelakorik ikusten beren lege korapilatsuen meta izigarriarengatik. Baina Utopiako uhartean herritarrak oro jakintsu dira legegintzan; ezen erran bezala, alde batetik legeak biziki guti dira eta bestetik zenbat eta argiago, hainbat eta zuzenago erraza da haien adierazpena. Lege guziak alabaina egiten dira haien arabera, bakoitzak jakin dezan non zer duen eginbide.100 Baina zailegi baldin bada legearen argitzea, nehor guti da hartaz baliatuko; nehor gutik dezakeelakotz uler haren adierazpena; adierazpen hori aldiz arruntena baldin bada eta ageriena, argi da legea herritar guzientzat.

Jende xeheari dagokiola bestalde, hura baita gehiengoa, hura ere gehienik argitu-beharra, zer axola zaio hari legeak izan edo ez izan? Gero egin ondoan, haien adierazpena nehork ez badezake eman non ez duen izpiritua guziz zorrotza eta gainera haien luzaz eztabaidatzeko ez baldin badu astirik. Baina horrelako ikerketarik ezin du egin jende xehearen izpiritu urriak, egunean eguneko ogia irabazi-beharrez diharduelarik bizi guzian.

* * *

Utopiarren auzo zenbaitek haien bertute harrigarriak ikusirik, beren gain jarriak direnek jakina, -andana bat baitzuten lehenago tiranoen menetik askaturik101- eta beren baitarik epaileak jesaten dizkiete; batean urte batentzat, bestean bostentzat. Epe hori bete eta, beren sorterrira laguntzen dituzte, ohore eta goresmen guziekin eta berriak ekartzen aintzinekoen orde.

Ohitura hori duten auzo-herriek gaitzeko hobari ederra egiten diote beren erresumari ezen erresumaren on-gaitzak epaileen ohiturei dagozkie eta hautu hoberik ezin dute egin: nehongo

diruak ez ditu erosiko alabaina, laster etxera itzuli behar dutenaz geroz deusetako diru hori ez bailukete. Eta bestalde nehoren alde ez kontra ez dira isuriegia izanen, ez dutenaz geroz nehor ezagutzen. Bi gaitz horiek, alderdikeria eta diru-gosea sartzen direlarik bada auzitegietan, ordu berean zuzentasuna bera, hau da erresumaren zain nagusia errautsia da.

Kargudunek eskatzen dizkieten herri horiek beraz utopiarrek deitzen dituzte "herri elkartuak". Besteak, haien laguntzaz bestalde baliatu direnak "adiskideak" deitzen dituzte.

Tratatuak aldiz, hots beste herriek hainbeste aldiz sinatzen, hausten eta erreberitzen dituzten hitzarmenak ez dituzte utopiarrek nehongo herri-bihi batekin izenpetzen. Zertako egin hitzarmenik? diote. Naturelezak berak ez ote dio aski finki lotu gizona gizonari? Eta uste ahal duzu naturela erdeinatzen duena, hitz huts batzuek arduratuko dela? Aburu horretaratu dira bereziki ikustearekin zein zintzotasun gutirekin urrungo lehor haietan printzeek begiratzen dituzten beren kontratu eta hitzarmenak.

Europar jakina, Kristau-fedea eta erlisione nagusi diren eskualdeetan oroz gainera, kontratu eta hitza guziz saildua eta hautsiezina daukate: eta hori zor zaio, printzeen beren bihotz on eta zuzenari alde batetik, Pontifize Nagusien edo Eliz Buruzagien larderia beldurgarriari bestetik; hauek, alabaina ez dute lehenik berek deus hitz emaiten non ez duten gero artoski hura betetzen. Beste printze guzietan agintzen ahal diete orduan, hitz emanak oro, gisa guziz begira ditzaten eta iheska dabiltzanak berriz hertsatu ditzakete, elizaren gaztiguetan eta beren larderiaz.¹⁰²

Zinez zuzen dabilta Elizgizonak ahalgarri daukatelarik, "fededun" izen ederra daramatenak berak beren hitzarmenetan "fede txarreko" agertzea.

Baina, ekuadoreko gorpilak baino gehiago bere bizimoldeak

eta ohiturek gure mundu honetarik urrun daukaten Mundu Berri hartan, ez dute sineste-izpirik tratatueta: zenbat eta elizkizun saildu gehiagorekin baitituzte ospatu, hainbat lasterrago dituzte hausten. Ezen ez da gaitz hitzarteetan huts bat edo beste atzemaitea; espres aintzinetik artezki utzi baitituzte, hartzen dituzten lokarriak ez daitezene nehoiz hain tinki izan non ez duten ihesbide zerbait uzten; handik gero tratatuak aginduari eta norberak eman hitzari, batean itzurtzeko amoreagatik.

Horrelako ez dut erranen "urdekeriak", baina bai itzulikak eta zimardikak egiten balira jendarteko kontratueta, printzeei beren aholkueta egitate horiek berak kontseilatzeaz harro-harro diren jaun horiek berek, bekaina altxatuz urkamendia merezi duen krimenaz oihu legikete.

Horra zergatik badirudien, bertute herrikoi eta apal baten itxura hartzen duen justizia guzia erregeren gailurretik biziki urrun dagoela. Edo iduri luke bederen bi justizia badirela: bata herri xehearentzat egina: oinezkoa da eta herrestan dabil; alde orotarik loturik estekan daukate, bere zedarriak ez ditzan nehoiz gaildu. Bestea berriz printzeen bertutea da: herriarenetik hain urrun eta hain libre non ez baitzaio deus debekaturik; gogoko ez duena baizik.¹⁰³

Han nonbaiteko printzeen ohiturek, erran bezala eta beren hitzarmenen begiratzeko duten fede txarrak adierazten dute nik uste, zergatik utopiarrek ez duten neherekin trataturik egiten. Beste iritzirik lukete menturaz hemen gaildu bizi balira.

Bizkitartean estatuek beren hitzarmenak xerrentuki begira balitzate ere, iduritzen zaie agindu guzien zin eginez finkatzeko ohitura hori behargabe sartua dela: muno batek edo errekarre batek, alegia bereizten dituen bi herri naturak elkarren lagun egin ez balitza.

Baina delako ohitura hark sinestarazten die auzoei, elkarri arrotz eta etsai izaiteko jaioak direla; eta elkarren galtzetan aritzeko eginbide dutela non ez dieten tratatuek eragozten. Hitzarmenak finkatu ondoan gainera, ez da oraino adiskidantzarik agertzen, bahitzeko eskubideak maiz irauten baitu; hitzarmenak idazteko momentuan ohitura hori eragozteko zehaztasun argirik ez dutelakotz sartu, zuhurtzia eskasez.

Utopiarren arabera nehor ez da beraz nehoren etsaia, neholako kalterik egin ez dion ber. Tratatuena lana egiten du naturalezaren elkartasunak; borondate onak fin eta finkiago biltzen ditu gizonak hitzarmenek baino eta bihotzak ere hitzek baino.

GERLAKE GAUZEZ

Zinezko basakeria den bezala, -nahiz ez den abere-motarik gizonak bezain usu egiten duenik- gerla utopiarrek gaitzesten dute gain-gainetik eta beste herrialde gutiz gehienek ez bezala gerla irabazi ospea ez daukate hainbateko.

Ondorioz eta nahiz herritar guziek -gizon ala emazte- egun jakinetan militar-ariketak egin ohi dituzten jarraituki, behar-orduan trebe izaiteko, ez dira neholaz gerlan sartzen itsura. Gerla egiten dute bakarrik beren muga zaintzeko edo adiskideen lurretarik etsaiaren ohiltzeko edo oraino tirano batek leherturik daukan edozein herriren alde -hartaz urrikalduz eta gizontasunez egiten dute orduan- tiranoaren atzaparretarik eta menpetik haren ateratzeko.

Adiskideak bada laguntzen dituztelarik, ez da beti haien zaintzeko etsaietarik, baina ere batzuetan haiek jasan damu-doluen

ordainarazteko eta mendekatzeko. Ez dira bizkitartean horretaratzen, non ez dieten adiskideek aintzinetik kontseilu galdetu, non ez duten berek gaia sakonki ikertu, non ez duten ordainketa debaldetan eskatu, non ez duten gerlaren erabakitzea eta gidatzea beren esku begiratu. Eta erabaki hori hartzen dute ez bakarrik etsaiek zer bait ontasun bahu dietelarik, baina ere -eta orduan amorru gehiagorekin- nonbaiteko herrialde batean lege tzar batzuegatik edo lege zuzenen baliatze bihurriaz haien merkatariak alegia zuzenki, eta izaitez zuzengabeki salatu dituztelarik.

Duela ez aspaldi, ez zuen beste aitzakirik izan utopiarrek nefelogeten¹⁰⁴ alde eta alaopoliten aurka egin zuten beihalakoko gerlak; hots, Alaopolitek¹⁰⁵ nefelogeten merkatariari beren zuzenbidearen izenean - berek hala zioten bederen- egin zieten bidegabekeria baizik. Dena dela zuzen edo makur, gerla ikaragarri batek mendekatu zuen guzia alde bietarik. Eta bi aldetako indarren eta aihergoen lauzkatzera auzoko herrien baliabide eta sukarrak etorri zirenean herrialde aberatsenak inarrosiak izan ziren, beste batzuk gogorki hunkiak eta gaitzak gaitzen gainera erortzetik gelditu ziren azkenean alaopolitek amore eman eta uko egin zutelarik. Utopiarrak ordea ez baitziren beren kontu ari, alaopolitak erori ziren nefelogeten menpe; hauek ez zirelarik aintzinean neholaz haien heinera helduko.

Beren adiskideek jasan kalteak -diru-kalteak izanik ere- hain garrazki mendekutzen dituztelarik, utopiarrak bestela plantatzen dira berak hunkiak direnean. Beren ontasunak edeki baldin badizkiete maltzurkeriaz baina bereei minik egin gabe, hobendun den herriarekin zituzten saleroste-harremanak mozten dituzte bakarrik; hartzen duten ordaina eskuratu arte.

Ez da baitezpada beren herritarrez axola gutiago dutela "herri elkartu"etakoez baino; bakarrik, nekezago jasaten dute besteei egin diru-ohointza bereei egina baino: besteen merkatariek alabaina kalte handia jasaten dute, beren ontasun propioa galtzen baitute. Herritarrek, aldiz, herri-ontasunak baizik ez dituzte galtzen, hauen eskasik ez dute etxean eta atzerrira zihoazen ontasun-soberakinak dira nolazpait. Nehork horrela ez du izaten minik gertatu den kalteaz. Iduritzen zaie beraz, nehoren biziak ez bizibideak jasan ez duen kaltearen damua, ainitzen heriotzeaz mendekatzea gogorregi litzatekeela.

Baina sekula haien herritar bat zuzengabeki kolpatzen baldin badute edo hiltzen, normahiren egitatez edo auzitegien erabakiz, berehala ordezkariak igortzen dituzte egiaren jakiteko; hobendunak eskuratu arte ez dute barkatzen eta ordu berean, gerlan sartzen dira. Eskuratzen dituztelarik, hiltzera kondenatzen dituzte hobendunak edo morroitzara.

Odolaren gostuz nagusitzeak min emaiten die eta ahalge ere, iduritzen baitzaie edozein gauza balios garestiegi erostea, erokeria hutsa dela. Beren zuhurtziari eta antzeari esker garaitu baldin badute etsaia eta zanpatu, orduan gastu handiak eginez ospatzen dute publikoki beren garaipena; garaikin bat altxatzen dutela, ekintza aipagarri batentzat bezala. Ezen, beren burua handiesten dute bakarrik gizontasun eta kemen erakutsirik, izpirituaren indar soilez garaile atera direlakotz; abere-bihi batek, gizonak baizik egin ez zezakeenaren arabera: hartzek alabaina, lehoiek, basurdeek, zakurrek eta abere basa guziek beren gorputzeko indarrekin dute ihardukitzen, baina indarrez ala basakeriaz haiek guri nagusi izanik ere, guk guziak garaitzen ditugu adimenduaz eta izpirituz.

Gerlaren helburu bakarra hauxe da utopiarrentzat: gerla hasi aintzin ardietsi balute ez baitzuten gerlarik hasiko eta hura bera ardieste. Edo eztabaidagaiarengatik horrelakorik ez bada ahal, aski gaztigu garratza galdetzen dute hobendunentzat berriz hasteko beldurra sar dakien amoreagatik. Horra haien xedeak eta ahalik lasterrena betetzen dituzte.

Aipamen ospetsuak eta omena baino lehen ezartzen dute haatik behargabeko arriskuen baztertzeko ardura. Ondorioz, gerla hasi orduko, etsaiaren eremuetako leku agerietan beren zigilu ofizialaz markaturik inobreko kartelak ezartzen dituzte ixilka eta denak batean. Sari handiak hitz emaiten dituzte delako agerietan etsaien buruzagia garbituko duenarentzat; sari tipiagoak -baina oraino ederrak- iragarkietan izenak ezarriak dituzten aintzindarietarik bakoitzarentzat, zeren hauen gain ematen baitute -buruzagi lehenaren ondotik- etsaiek hartu erabakien hobena. Ehaileari hitz eman diru-saria, den handiena bikoizten zaio, delako aintzindarietarik bat bizirik ekartzen duen bakoitzean.

Etsaien aintzindari horiek berak bestalde, sari beren truke eta gaztigurik gabe uztea hitz emanez deitzen dituzte lagunak aurka itzultzera. Horra zergatik haien buruzagiak hasten diren laster ororen goganbehartzen: ez dira gehiago berak nehoi fida ez eta haiei besteak; ikaratan daude eta kalte handiagoen beldurrak hartzen ditu. Ezen gertatu izan da aintzindari-andana handia eta buruzagi lehena bera, gehienik fida ziren lagunak maiz saldu dituztela: hain errazki diruak biltzen du gizona edozein izigarrikeria egitera!¹⁰⁶ Eta horrelakoetan ez diote diruari gupidarik utopiarrek.

Zer arriskutan ezartzen dituzten etsaiak gogoratuz, arriskuaren handitasunaren araberako sariaz ordaintzeko arta hartzen dute: ez diete beraz urre-meta handi bat bakarrik hitz emaiten baina ere mozkin ederrekilako ontasun batzuk herrialde adiskideen erdian, seguruan sekulakotz berentzat izanen dituztenak; eta gero beren hitza ximenki betetzen dute.

Etsaien erosteko eta joiteko ohitura beste herriek gaitzesten dutena, bihotz gogor eta ustelaren marka bezala, zuhurtziazat daukate utopiarrek eta goraipatzen dute; baizik eta horri esker, gerla handienak batere batailarik gabe bururatzen direla. Urrikalmenaren eta gizontasunaren seinale ere izan daiteke; ezen hobendun bakar batzuen heriotzeaz, zenbat gerlan hilen zirenen biziak ez dira salbatzen! Bai aldekoetarik bai etsaietarik. Herritarrak berak bezain urrikari baitituzte haatik etsaien osteko gerlari xeheak; badakite alabaina ez direla hauek beren baitarik gerlan hasi, baina beren printzeen haserre eroak dituela horra erakarri.

Diruaren bitartez ez direlarik beren xedeetara heltzen liskar-hazia ereiten eta hazten dute, printzearen anaiaren edo handiki baten bihotzean pitztuz botereaz jabetzeko fidantzia. Etsaiaren barneko taldeak loakartuak baldin badira, auzo herriak zirikatzen dituzte eta gerlan sarrarazten, erregeei sekula falta ez zaien titulu zaharkitu horietarik bat zokotik ateratu ondoan dirua burrustan isuririk; eta gerlako beren laguntza osoa hitz emanez.

Beren herritarren bizia ordea biziki zuhurki arriskatzen dute: hain atxikiak dira elkarri eta halako estimutan badaukate elkar, non ez bailezakete berenatarik nehor sal printze etsaiaren truke. Dirua eta zilarra aldiz, ez baitute horretan baizik baliatzen, hura banatzen dute dolurik batere gabe; jakinez berdin

lasai biziko direla, dena xahuturik ere. Baina etxeko aberastasunez bestalde badaukate atzerrian ezin agortuzko altxorra, herrialde ainitzetan dituzten hartzeez, erran dugun bezala ontua eta hari esker nonnahi aurkitzen dituzte gerlara igortzeko mertzenariak, bereziki zapoletak¹⁰⁷.

Utopiatik bostehun milatan bizi da zapoleten populua, eguzki aldera; jende beldurgarria da, basa eta hezgaitza; zer oiha ala mendi zorrotz tartean hazi izana den ageri du. Hotz-beroentzat eta lan dorpeentzat gogorra da. Zoko gorde guziak ezagutzen ditu; baina laborantzaz ez du axolarik, ez bizitegiak, ez jantziak. Abere-hazkuntzaz da bakarrik arduratzen. Ehiziaz eta ohointzaz bizi dira oroz gainetik. Gerlako jaiak izanki, beti gerla egiteko paradaren zain daude: heldu zaienean, atsegin hartzen dute eta badoaz saldoka, mertzenariak behar dituenari buruz beren buruen merke eskaintzera. Bizimolde bat baizik ez dute ezagutzen: herioa emaitako moldea. Ordaintzen dituztenen menpe gudukatzen dira gogorki, leialtasun handienarekin. Baina ez diote eperik batere ezartzen beren agintzari, beren kontratuetan aldiz finkatzen dute biharamunean berean badutela etsaiaren alderdia hartzeko eskubidea; honek soldata hobia eskaintzen baldin badie; biharamunagoan berdin berriz aintzineko aldera itzultzeko diru apur bat gehiago eskuratzekotan.

Ez da maiz gerlarik hasten non ez den mertzenari horietarik andana bat aurkitzen armada bakoitzean. Eta horrela gertatzen da egunero, odolaren legeak bat egiten zituenak eta alderdi berean zeudeno elkarri guziz atxikiak zirenak, handik berehala kontrako armadetan sartu direlaketz, etsaiak bezala bihotza herraz beterik,

odola eta ohiko atxikimendua ahantzirik, elkarri hilka lotzen direla. Diru-porroska batek aintzindari desberdinen menpe jartzera erakarri dituelako aitzakiaz beste funtsik ez du bada elkar hiltze horrek! Beren soldataren hain kontu zehatza atxikitzen dute gainera non aski bailukete sos bat eratzikitzea eguneroko irabaziari beren alderdiaren trukatzeko errazki. Ikusteko da zein laster hartzen duten diruaren sukarra; deusetako ez duten diruarena; ezen odolaren gostuz irabazi dutena berehala xahutzen dute zein hiski, zirtzilkerian!

Zapoletak beraz utopiarren kontu gudukatzen dira edozein etsaien kontra; beste nehon baino hobeki ordaintzen dietelekotz haiek beren lana. Utopiarrek ezen gizon onak bilatzen dituzte, laguntzaileak nahi dituztelarik; baina gizonik gaiztoenak hartzen dituzte, haietaz baliatu behar direlarik: behar-orduetan beraz agintza ederrekin bereganatu ondoan, arrisku handienetara igortzen dituzte; handik orobat ez baitira gehienak nehoiz itzuliren hartzen dutena edekitzeko. Gainerakoei, hitz hartu bezala zintzoki ordaintzen diete; berriz arrisku beren hartzeko ez dezaten izan lotsarik. Horrelako gizon-andana galarazteaz ez dute bada batere axolarik; badakite beren ustez, korotz horretarik, populu gaizto okaztagarri horretarik mundu osoa garbi balezate, gizadi guziarengatik eskerrak hartzen lituzketela.

Mertzenarien ondotik, gerlan sartuz lagundu nahi izan dituzten herrien soldaduak dituzte baliatzen; gero, berriz, herrialde adiskideen laguntzaileak; eta azkenean bakarrik aintzinatzen dituzte beren herritarrak; hauetarik hautatu ondoan armada osoaren buruzagitza bertute jakineko gizon bat. Buruzagi horren menpe badira bi ordezkari; bestea oso deno ixilik daudenak;

baina hura etsaiek hartzen baldin badute edo hiltzen, bietarik batek ordezkatzeko du, ondore batek bezala; eta gero halabeharrez -gerlako gorabeherak desberdinak baitira- hirugarrenak ordezkatzeko du bigarrena; armada guzia desegin ez dadin buruzagi-eskasiaz.

Uharteko hiri bakoitzean, beren baitarik izena eman dutenen artean hautatzen dira soldaduak. Ez da nehor bortxaz igortzen gerlara atzerri: ongi baitakite, norbait jitez herabe delarik, ez dela hura ausart bilakatuko; baizik beste lagunei diela beldurra sartuko.

Bizkitartean herrian berean gerta baledi gerla, beldurti guziak osasunean diren ber gerlako untzietara iganaraziko dituzte; gudari gardatsagoekin nahasirik. Edo bestela bereiz ezartzen dituzte harresi gainetan ihespiderik ez duten lekuetan; eta horrela etxekoen ahalkeak, etsaien oldarrak eta ihesaren menturarik ezak garaitzen dute beldurra: maiz ezinbestekak baitakar indar eta adore.

Nehor ez badute hertsatzen atzerriko gerlan parte hartzera, emazteak halere haizu dira nahi badute, beren senarren lagun armadetara joatera. Ez dituzte batere eragozten, baizik sustatzen eta goستن. Guduan, emazteak beren senarren aldean jartzen dira; eta gero gudari bakoitzaren inguruan, bere haurrak, bere ahaide eta askaziak; naturalezak berak horrela hurbilenetik elkarri atxikiak direnak erakartzen ditu hobekienik elkar laguntzera. Ez da desohore handiagorik nehoentzat bere ezkonlaguna gabe etxera itzultzea baino; seme batentzat bizia eman dioten burusoetarik bat galdurik etxean sartzea baino. Eta orduan etsaiarekin buruz buru baldin badihardute eta nehork ez amore emaiten, gudu luze ikaragarri hori sarraskitan amaitzen da.

Utopiarrak beraz saiatzen dira, berak ahalaz guduan ez parte hartzera eta soldatarien eskutik gerla bururatzera; baina ezinbestean berak sartu behar baldin badira guduan, halako zuhurtziarekin ahal zuteno bazter egon ondoan, kar berarekin sartzen dira orduan. Ez dute bada beren sua lehen oldarrean agertzen; gero eta gehiago iraunez eta luzaz ihardokiz dira gogortzen eta azkenean hala tematzen dira beren xedean, non nahiago baitute hil amore eman baino. Ezen bakoitzak etxean bizipidea segurtatua duela jakiteak eta bere ondokoen geroaz kezkatzerik ez duela oroitzeak -arrenkura horrek ditu errausten soldaduen gogobihotzak beste toki guzietan- utopiarren izpirituak altxatzen ditu eta garaitezinak egiten.

Gerlako ofizioa ikasia izaiteak emendatzen du haien bipiltasuna eta gainera, hor dituzte ere beren ideia zuzenak, haur-haurretik haietan haziak izan baitira izan dituzten irakaspen onekin eta Errepublikako erakunde guziekin: badakite beraz, ez dela bizia gutietsi behar itsura arriskutan ezartzeko gisan; baina ez ere izariz kanpo maitatu, zikoizkeriaz eta desohorez begiratzerainokoan, zure ohoreak uko egitea eskatzen dizularik. Bataila, bere betera heltzen denean, gudari gazte bikain batzuek elkarri zin eginik eta herriaren alderako karrak sustaturik, beren gain hartu nahi dute etsaiaren buruzagia garaitzea: Batean agerian jauzten zaizkio, bestean zelatan jartzen; hurbiletik ez bada, urrunetik hunki behar dute; eta nekatuak direlarik, berriek ordezkatzan dituztela, taigabeko angelu zorrotz eta luze bat elkarrekin moldatuz oldartzen zaizkio; eta orduan maizenik aintzindari etsaia, non ez dion ihesari emaiten, hiltzen dute edo preso hartzen bizirik.

Irabazi dutelarik, ez dira utopiarrek sekula sarraskitan gozatzen; nahiago dituzte ihesliarrak harrapatu, hil baino. Sekula ere ez dira ihesliarren ondotik joanen, soldadu-saldo bat

gerturik eskupean atxiki gabe; eta hain gogor daude horretan, non azken soldadu-taldearekin irabaz balezate gudua, beste talde guziak galdu ondoan, nahiago bailukete etsaia itzurtzen utzi, ezenez eta talde desegin batzuekin bakarrik haren ondotik abiatu.

Oroit dira, behin bainotan berek ikusirik: beren armada osoa desegina zutela eta ihesari emana; etsaia berriz garaipenak beroturik, eskuin eta ezker bazezilen itsura ihesliarren ondotik; utopiar-saldo xume bat bazterretik baitzegoen paradaren aiduru, menturazko segurtamenaren ezaxolarekin barreiatu eta sakabanatu ziren etsaiei jazarri zitzaientz bapatean; batailaren itxura aldatu zen osoki; garailearen eskutik joan zen seguru zeukan garaipena; eta garaiturik izanak zirenek garaitu zituzten beren garaileak.

Ez da erraz erraitea eia artexago diren utopiarrek beren arteak hedatzen ala besteen jukutriak galarazten: uste duzu ihes joanen direla eta urrun dabilta horretarik; xede hori hartzen dutelarik aldiz iduritzen zaizu beste zerbait dutela gogoan; zeren ikusten baldin badute etsai-andanak, lekuaren antolamenduak hertsatzen dituela, gauez gau eta ixil-ixila lekuz aldaratzen dute ohatzea edo jukutriaz ilusitzen dute etsaia edo egun argiz urratsean eta ordena handitan urruntzen dira; baina etsaiarentzat berdin gaitz da haiei jazartzea, gibelera ari direlarik nola aintzina doazelarik.

Beren guduzelaiak arta handiarekin gerizatzen dituzte; isaka barna eta zabal batzuk zilatuz eta hor kendu lurra barnera aurtikiz. Lan horrentzat ez dute morroien laguntzarik eskatzen baina soldaduek berek beren besoz eta armada guzia barne -pezoin gainean armak eskuan zer-hel-ere zain daudenak ezik- parte hartzen dute.

Horrenbeste langilerekin nehork uste baino lasterrago eraikitzen dituzte eremu handi baten inguruan geriza frango.

Janzten dituzten armadurak ihardokitzeko aski gogorrak izanagatik, ibiltzeko eta higitzeko ere hain lasaiak dira non uzten baitzaituzte errazki igerika aritzen. Lehen ariketan ikasten dute beraz soldaduek, armadurak soinean igerika ibiltzen.

Urrunetik gudukatzeko armatzat badituzte geziak, oinezkoek bezain ongi, zaldizkoek egozten dituztenak zuzen eta azkar. Buruz burukako aldiz, ezpataren orde hor dute aizkora; bere haztaren eta bere zorrotzarengatik guziz kaltegarria, ahoz edo mokoz jo dezala.

Antze gaitzarekin asmatzen dituzte gerlako mekanikak eta egin ondoan ontsa gordetzen, behar baino lehen ager balitzate, kaltegarri baino irrigarriago bailitezke berak. Tresna horiek egiten dituzte oroz gainetik nora nahi eramaiteko eta nola nahi itzulikatzeko errazak.

Etsaiekin hitz hartu meniak hain ximenki begiratzen dituzte utopiarrek, non ez baitituzte hausten jaukitzaleak izanik ere. Etsaiaren alorra ez dute funditzen ez haren uzta erretzen. Ez dituzte ere uzten ahalaz, soldaduak ala zaldiak bazterren zangopilatzeraz; gogoan baitute beren onetan haziko dela bihia. Armarik ez duenik ez dute nehor hunkitzen, non ez den zerbait barrandari. Amore eman duten hiriak zaintzen dituzte; baina indarka hartu dituztenak ere ez dituzte suntsitzen. Bakarrik orduan uko egin nahi izan ez dutenak garbitzen dituzte eta azken gudariak, morroitzara kondenatzen.

Gerlan parte hartu ez duen gehiengo handia uzten dute bakean; eta nehor aurkitzen baldin badute amore ematearen alde agertu denik, zigortuen ontasunetan parte emaiten diote. Gaineratikoa soldadu laguntzaileen artean banatzen dute; baina utopiar bihi batek ez du deus hartzen.

Gerla bururatzen denean, gerlako zorrak ez dituzte gudukatu diren aldeko herriek jasaiten, baina bai gerla-galtzaileek. Horra zergatik azken herri hauei edekitzen dieten diru-puska bat alde batetik, gerla-kasurako bazterten dutena ohi bezala eta bestetik, mozkin izigarriak geroan ere emanen dizkieten ontasunak.

Orai berean, ainitz herritarik altxatzen dituzten horrelako irabaziak, emeki-emeki nolazpait goititurik, zazpirehun mila dukatetik gora iragaiten zaizkie urtekal. Ontasun horietara igortzeko hautatzen dituzte herritarren artean "Kuestore" delako batzuk, han lasaiki bizi direnak, kargudun jaun handi bezala ohoratzen dituztela. Jaun hauei gelditzen zaie halere aski diru herri altxorrean ezartzeko; non ez dioten -frangotan bezala- herri-behar bati aurreratzen, beharretan deno; nahiz gero ere ez duten askotan berreskuratzen aurreratu diru guzia.

Delako ontasunetarik zati bat uzten diete, aipatu ditugun arriskuak haien aholkuz hartu dituztenei.

Printze arrotz batek utopiarren aurka armak hartzen baldin baditu eta haien menpeko lurretan sartzera apailatzen bada, badoazkio berehala beren herriko mugetarik aintzina, armada indartsu batzuekin; zeren ez baitute nehondik ahalaz beren lurtean gerlarik egiten eta zeren ez baitira baitezpada atzerritar laguntzaileak uharteetan sartzera utzi behar.

UTOPIARREN ERLISIONEAK

Ainitz erlisione-mota badarabilte, ez uharteetan berean bakarrik, baina hiri bakoitzean ere¹⁰⁸, batzuek Eguzkia dutela beren Jainko, bestek Ilargia, beste zenbaitek oraino planeta galdu hau edo hura.

Badira ere herritar zenbait, ez bakarrik Jainko soiltzat, baina Jainko guzien gaineko Nagusitzat, lehen, ospe handia edo bertute-fama izan duelakoan, gizon huts bat hartzen dutenak.

Utopiarren gehiengoak halere -eta hori da herritar-talde argituena- ez du onartzen jainkoaizun horietarik bihi bat eta sinesten du Jainko bakar bat badela ezagutezina¹⁰⁹, betierekoa, mugarik gabea eta mundu osoa ez bere eremuaz baina bere eraginaz betetzen duena; gizonaren adimendua gainditzen duelakotz ezin argitua da haren izaitea eta deitzen dute horrela Arbasoa. Honi dagokio haien arabera, gauza guzien etorkia, garapena, aurrerapena, bilakaera eta helmuga eta Jainko-ohoreak ez dizkiote beste nehoi, Honi baizik bihurtzen.

Beren sineste desberdin guziengatik gainera, beste herritar guziek ere onartzen dute Jainko Nagusi Bakar bat badela; Hari baitagokio munduaren antolatzea eta kudeatzea; beren herriko mintzairan denek Mitral¹¹⁰ deitzen dute; nahiz gero bereizten diren, ez baitute izaki bakar hori denek berdin ikusten. Zernahi izan dadila, Orogen Gainetik daukan Haren Izaiteaz bakoitzak aitortzen du halere, Hura dela egiaz herrialde guzien arabera gauza guzien gaineko nagusitasuna duen bakarra.

Emeki-emeki bestalde herritar guziek beren sineskeriak alde bat uzten dituzte eta zuhurtziak hobesten duen erlisione bakarraren inguruan elkarretaratzen dira. Beldurraren eragina ez balitz, beste erlisione guziak aspaldian itzaliak izanen zirela ez da dudarik: norbait erlisione aldatzera doalarik edozein nahigabe gertatzen baldin bazaio, zortearen gain uzteko orde jainkoaizunaren mendekioaren kontu ezartzen dute; bere erlisionearen

uztera doana gaztigatzen balu bezala honek, bere fedegabekeriarengatik.

Bizkitartean entzun zutelarik guk erranik Kristoren izena, haren irakaspena, haren bizia, haren miragarriak eta berdin miresgarri den hainbeste martiriren iraupena -hauek beren baitarik isuri odolak haien bizimoldera hainbeste herrialde erakarri baitu urrunetik eta alde orotarik!- ez dezakezu asma zein gogotik eta zer lehiarekin itzuli ziren utopiarrek Hari buruz; ala Jainkoaren eragin gorde batek sustaturik ala jadanik haien baitan nagusi zen sinesteari hurbil zebiltzala oharturik, nork jakin? Dena dela badut uste, beste hau ere kontutan hartu zutela: entzun baitzuten Kristok atsegin zuela elkarrekin batean bizi zitezen haren lagunak eta gaur egun oraino bizimolde horrek bazirauela kristau-elkarte jatorrenetan.¹¹¹ Zernahi izan dadila, hauxe zen gertatu: utopiar ainitzek gure erlisioneak hartu zutela eta ur sainduetan bataiatu zirela. Baina zorigaitzez, gu lauetarik -lauetaratuak ginen alabaina, bi lagun galduak baikenituen jadanik-bihi bat ez ginen apez eta nahiz beste guziak izanak dituzten, gutartean apezek bakarrik eman ditzaketen sakramentuatarik ez dute bihi bat izan oraino. Badakite bada zer diren eta gogotik har litzakete. Eztabaida bat ere badaramate gainera beren artean artoski, jakiteko ea kristau-apezpiku arartekorik gabe berek beren artean hauta lezaketen norbaitek apezgoaren marka izan lezakenetz¹¹². Hautua egitera zihoazela iduri zuen baina ni urrundu nintzenean ez zuten oraino egina.

Gehiago oraino, kristau-fedea onartu ez dutenek ez dute

nehor debekatzen ez eta ere onartu duenik nehor jaukitzen. Ni hor nengoelarik bizkitartean, gure fededun-taldekoetarik bat garrazki zigortu zuten: gizon hori berriki bataiatua izana zen eta gure aholku guziengatik, zuhurtzia baino kar gehiagorekin kristau-erlisioneaz mintzo zen goraki; hainbeste berotu zen, non ez baitzituen bakarrik gure elizkizunak goraipatzen, baina beste guziak gain-gainetik gaitzesten zituen, itzulinguru arrunt batzuk baizik ez zirela adieraziz eta haien sinesle soraio fedegabeak betiko suaren subilak izanen zirela kridatuz. Horrelako erasiak luzaz jasan ondoan preso sartu zuten gure gizona. Auzitara eraman zuten, ez erlisionea iraindu zuelakotz baina nahaskeria piztu zuelakotz herrian eta epaileek erbestera kondenatu zuten. Ezen aspaldiko ohitura zaharrenetarik dute ez diola nehoi bere erlisioneak damurik egin behar.

Hastapenean alabaina botereaz jabetu zenean jakin zuen Utopok, lehenago, beti gerla zutela herritarrek elkarren artean beren erlisionengatik¹¹³ eta ohartu zen, talde guziek herriaren onaz zihardutelarik, bakoitza bere alde gudukatzen zirelakotz garaitu zituela guziak. Garaitu orduko beraz, erabaki zuen oroz lehen zilegi zela bakoitza jarraitzea gogoko zuen erlisioneari. Besteak bere hartara erakartzea ere haizu behar zen, baina nork bere sinestearen oinarriak agertuz neurri onean eta eztiki; ez ordea besteei jazarritz mutiriki, arrazoinkatuz biltzen ahal ez direlarik; nehor beraz bortxatu gabe, nehor iraindu gabe; edo bestela, norbait ozarki jazar baledi, erbesteaz edo morroitzaz gaztiga liteke.

Eta lege horiek ezarri zituen Utopok, ez bakarrik etengabeko guduka haiek eta barkaezinezko aihergoek errausten zuten bakearengatik, baina ere erlisioneari berari ongi zegozkiola ikusten zuelakotz. Erlisioeaz ordean ez zen menturatu deus itsura erabakitzera, ez baitzekien Jainkoak berak, ainitz ohore desberdin atsegin izanez ez ote dizkien batzuei eta besteei gogoeta desberdinak gogoratzeko. Zinezko harrokeria eta erokeria iduritzen zitzaion, norberak hala daukana beste guziek egiaztat har dezaten mehatxuka eta indarrez eskatzea. Bestalde errazki ikusten zuen -erlisione bakar bat baldin bazen egiazkoa eta beste guziak funtsgabekoak- egiaren beraren indarraz, egiazko hura noizpait besteei aitzinatuko zitzaizela eta nagusituko, izariz eta zentzuz ibiltzekotan. Baina armak eskuan eta iskanbilen erdian gudukatuz geroz, gizon gaiztoenak baitira amorratuak, erlisionerik onena eta sailduena sineskeria hutsalenen erdian ito liteke, arantze eta sasien erdian bihia bezala. Horra zergatik Utopok auzi hori utzi zuen zuri gabe eta bakoitzari eman zion sinetsi behar zuena erabakitzeko eskua.

Lege zorrotz eta saildu bat egin zuen bada Utopok nehor ez uzteko bere giza mailatik hain behera erortzera non sinets baitzezakeen, arima suntsitzen dela gorputzarekin batean edo Jainko Begiralerik ez izanez, zorteitsu batek daramala gure mundua. Utopiarrek sinesten dute beraz hil ondoan gaztigatzen dela gaizkia eta sariztatzen ongia. Nehork besterik uste baldin badu, ez da hura gizonen lerroan ezartzen; abereen gorputz ilaunaren mailan berak jarri baitu izaitez hain gora duen bere burua. Are gutiago dute herritarren lerroan sartuko zeren -deusen beldurrik ez izanez- herriko erakundeak eta ohiturak

elur-maluta bezala baitarabilzke. Nork asma dezake alabaina legeez beste beldurrik ez duen norbaitek, gorputzaz haraindian deus igurikatzen ez duen batek, ez dituela herri-legeak edo ixilka itzulikatuko edo indarka bortxatuko bere irrits-goseak asebate-

-beharrez? Gogo hori duenari ez diote beraz emaiten ez ohorerik ez kargurik ez buruzagitzarik. Hala edo nola gutiesten dute nor hiliki eta erori bat bezala. Ez diote halere beste minik egiten, ongi baitakite ez dela norberaren esku gogoko den hura sinestea. Ez dute ere nahi beren mehatxuez hertsatu alegia egitera, zeren guziz higuin duten ustelkeriara daraman gezurra edo zurikeria ez baitute jasaten. Baina horrelakoari ez zaio zilegi bere iritzien agertzea publikoki eta jende xehearen aintzinean bereziki; apezekin eta herritar prestu eta zuhurrekin hitzegitea aldiz ez diote debekatzen; gomendatzen baizik, erokeriak azkenean amore emaiten diola zentzuari sinesten dutelakoan.

Badira ere beste utopiar batzuk -eta ez hain guti- bakean uzten dituztenak, ez baitute argudio-eskasiarik beren iritzien alde eta ez baitute bestalde nehoi kalterik egiten. Hauek bada sinesten dute abereek ere badutela arima hilezkor bat, baina ez, urrundik ere, gurearen heinekoa ez eta zorion berdinerara deitua. Gutiz gehienek alabaina argi eta garbi daukate, halako zorion handia izanen dutela non eriak oro urrikari izanagatik, ez baitute hilentzat nigarririk isurtzen. Norbait ordea ikusten badute, beldur eta kexu bizia uzterakoan,

hori biziki marka txar iduritzen zaie: norberak bere burua hobendun ikusirik eta hurbildu zaion gaztiguaren mezu gordea ukanik, hil beldurak hartu duela asmatzen baitute. Iduritzen zaie bestalde Jainkoak ez diola ongietorri handirik eginen, bozkarioz Haren deiari ihardesteko orde, desgogara eta herrestan datorkionari. Horra zergatik honelako heriotzearen lekuko direnak izitzen diren; dolu handitan eta ixil-ixila eramaiten dituzte gorputzak; arimarentzat Jainko ona otoiztu ondoan urrikal dakion eta hutsak barka diezazkion, lurrean ehorzten dute gorpua.

Bihotza bozkarioz eta itxaropenez beterik joaiten direnentzat aldiz ez da nigarririk; haien poroquak kantuz egin ohi dira eta arima Jainkoari amultsuki gomendatu ondoan, bihozmin baino begirune gehiagorekin erretzen da azkenean gorputza. Hor berean oroitarri bat landatzen da, hilaren tituluak gainean marrazturik. Etxerat itzuli eta galdu dutenaren izaeraz eta ekintzez dute solas, baina gogotik eta maizenik aipatzen dutena da azken momentuan erakutsi duen alaitasuna¹⁴. Haien ustez alabaina, gizon prestu baten oroitzapena da pizgarririk eraginkorrena bizientzat eta eskerrik gozoena hilentzat. Azken hauek ezen, ez izanik ere ageri gure zentzu kamutsengatik, hor dauzkagu gutartean aipu ditugun aldi oroz: ez baitagokio haatik dohatsuen zorionari gura duten lekuan ibiltzea ez zilegi izaita; eta bestalde esker txarra erakuts bailiezagukete, amodiozko eta karitatezko lokarriez lotuak zaizkigularik bizi guzian, gu haien adiskideak berriz ikusteko gogorik ez balute gehiago; zeren sentimendu on horiek beste ontasun guziak bezala, haien arabera, hazi behar dira hil ondoan eta ez endurtu, gizon zuzenen baitan. Utopiarren sinestea da beraz, hilak badabiltzala bizien erdian;

hauen solasen eta urratsen lekuko direla; eta sineste horrek beren ekintzetan fidantzia gehiago emaiten die: beren hilen gerizak sustatzen ditu eta beren aintzinekoak hor dituztela lekuko jakiteak, gaizkia ixilean egitetik begiratzen ditu.

Beste herrialdeetan arrakasta handia duten aztikeriez eta sineskeria hutsezko asmaketez ez dute utopiarrek batere axolarik eta haiez trufatzen dira. Mirakuiluak aldiz, naturaren bazterreko bidetarik datozelarik, begirune handiz hartzen dituzte; Jainkoaren eragina eta eskua adierazten dutelakoan. Horrelakoak maiz gertatzen omen dira haien herrian eta behar-ordu handienetan fidantzia osoz herriaren otoitzek eskatzen dituzte batzuetan mirakuilu horiek eta ardiesten ere bai.

Naturalezaren mirestea eta mirespen horretarik datorren laudorio-otoitza atsegin zaiola Jainkoari pentsu dute utopiarrek, baina badira halere haietarik zenbait -eta ez hain guti-, erlisionearen izenean liburu guziak baztertzen baitituzte, naturaren ikerketak arbuiatzen eta lanarteak oro ukatzen, baizik eta hurko lagunaren aldeko laguntzan eta lan-mota guzietan hingatuz hilondoko zoriona behar dutela irabazi. Ondorioz, ari dira batzuk eri gaixoen artatzen, beste zenbait errepideen berritzen, isurtegien xahutzen edo zubien antolatzen; zohikatz, legar edo harri ateratzen; zuhaitzen aurtikitzen eta xehatzen; egur, bihi eta horrelako uztak, bi iditako orgekin hirira garraiatzen; hots, morroiak berak baino gehiago badihardute, ez bakarrik herri osoaren baina herritar edozeinen zerbitzuan. Gogo onez eta osoki beren gain hartzen dituzte lanik gogorrenak, zailenak eta zikinenak; beren nekearen, asperraren eta nazkarengatik langile gehienak lotsatzen dituztenak. Haiek bada botzik egiten dituzte; lagunei aizina uzten diote eta berak nekezko lan dorpean hingatzen dira geldi-geldia.

Baina ez daukate hori berentzat merezigarri; ez dute horrengatik besteen bizimoldea gutiesten; ez beren hura handiasten. Zenbat eta ordea lagunen zerbitzuan ariago, hainbat ere dira ororen begietan oneskituago.

Bizkitartean, bi talde badira haien artean: bat, ezkongabeek osatzen dute. Hauek uko egiten diote osoki Venusi baina ere haragiari eta batzuetan edozein bizidunen okelari. Bizi honetako atsegin kaltegarri guziak eragozten dituzte eta beren izertaldi eta beilaldien gostuz geroko biziari buruz bakarrik lehiatzen dira, laster ardietsi behar dutelako fidantziak emaiten baitie kar eta indar.

Beste taldekoek, lana berdin maite dute baina ezkontza hobesten ere eta ez gutiesten haren gozamina: iduritzen zaie naturari zor diotela ezkon-eginbidea betetzea eta herriari seme-alabez haren aberastea. Ez dute atsegin-bihirik arbuiatzen, non ez dituen beren lanetik gibelatzen. Abelgorrien haragia nolazpait hobesten ere dute, indar gehiago emaiten omen dielakotz, edozein lanetarako.

Utopiarren ustez, bigarren talde honetakoak dira prestuenak; lehenekoak sailduenak. Norbaitek, ezkongabea ezkontua baino gorago eta bizi garratza bizi atsegina baino lehen ezarri nahi balu arrazoinkatuz bakarrik, irri ederrik egin liezaioke utopiarrek baina erlisionearen izenean egiten omen baitu bere hautua denek begiesten dute eta ohoratzen. Hauxe da ezen utopiarrek artoskienik begiratzen duten legea: nehork ez dezala deus itsura erabaki erlisione gaitan. Horra beraz asketa saildu horien bizimoldea: "Butreskak"¹¹⁵ deitzen dituzte beren mintzairan, hau baita latinez "religiosi" edo erlisiozaleak.

Guziz apez sailduak badituzte utopiarrek, baina horrengatik apez horiek biziki guti dira: hamahiru baizik ez, hiri bakoitzean; eliza bakoitzean bat. Salbuespen bakarra, gerla-denboran da;

ezen orduan haietarik zazpi joaiten dira armadaren lagun eta bitartean beste zazpiek ordezkatzzen dituzte joan diren horiek. Baina hauek itzultzean bakoitzak berriz bere lekua hartzen du; gaineratikoak, hiltzen direnak ordezkatzeko aldia etorri arte Apez Nagusiaren laguntzaile izanen dira; zeren apez soiletarik bat bada besteen buru.

Herriak berak hautatzen ditu apezak, beste herri gizonak egiten dituen bezala, ixilikako hautespenen bitartez, ez dadin gerta azpijokorik. Apez lagundiarenganik ukaiten dute ordea hautetsiek sakramendua. Horiek izaiten dira gero elizkizunen buru; horiek dute erlisionekeo zer guzien ardura; horiek ere herritarren bizimoldeari begia atxikitzen eta guziz ahalkegarri da bizimolde bihurri batengatik erasiak entzuteko horien aintzinera deitua izaita.

Baina apezei badagokie aholkuak edo erasiak herritarrei banatzea, herri-gizonen eta Buru Lehenaren gain dago gaiztaginak gatzigatzea eta hobendunak zigortzea. Apezek halere beren esku dute ahalkerik gabeko gaizkileen baztertzea elizkizunetarik. Ez da menturaz hori bera baino gatzigu ikaragarriagorik: hunkiak direnak, desohoreak joiten ditu eta beldur saindu ilun batek jaten. Berak ere ez dira luzaz gerizan egoiten, zeren ez baldin badiete laster apezei beren urrikia erakusten "fede-gabekeriaz" hobendun direlakoan preso sartzen baititu Senatuak.

Apezenganik ikasten dute haurrek eta gazteek, lehenik ez literatura baina zuzenbidea eta bertutea, ezen arta handia hartzen dute utopiarrek lehenbailehen finka daitezen haurren arimetan, malgu eta uxter direno, Herriaren ona atxikitzekeo baliagarri eta beharrezko diren irakaspenak. Gero, irakaspen horiek haurren bihotz-barnetan erroak egin dituztelarik irauten dute bizi guzia eta estatuaren finkotasuna laguntzen dute handizki,

zeren estatu hori honda dezaketen gaitz guziak irakaspen makurretarik heldu baitira.

Emazteak, herriko hoberenatarik hautatzen dituzte apezek, non ez diren berak emazteak, ezen ez dituzte emazteak kargu horietarik bereizten,¹¹⁶ baina bakarrik bakan hautatzen; denak ere alargunak eta adinetara helduak. Ez da Utopian kargurik apezgoak bezainbat itzal emaiten duenik; hainbestetaraino non zerbait gaizki handi egiten baldin badu ere, ez baita herri auzitegirik apez hori bere aintzinerara deitzen duenik: denek Jainkoaren eta bere buruaren gomendio uzten dute. Iduritzen zaie opari saildu bezala hain bereziki Jainkoari emana izan zaion gizona hunkitzea ez dela zilegi, nahi bezain gaizkile handi bilakatu izanik ere delako hura. Baina ez zaie neke-ohitura hori begiratzea; hain guti baitira apezak eta diren haiek arta handienarekin hautatzen baitituzte. Ez da maiz gertatzen alabaina bere bertute soilarengatik onen artean hoberentzat hartua eta kargu goienara altxatua izan den norbait bide makurrera eta gaiztora erortzea. Azkenean izigarrikeria hori gerta baledi ere -gizona berez baita aldakor- alde batetik bakan gertatzen delakotz eta bestetik ohoreak salbu ez baitiete botere politiko handirik uzten apezei, hauek ez diotelakotz kalte ainitzik egiten ahal herriari, ez liteke behar nehor hainbat ikaratu.

Apezak guti eta bakan baldin badira hori horrela da, utopiarrek ez dutelakotz galtzera utzi nahi orai halako begirunearekin ikusia den ordenaren ohorea: gal liteke alabaina ainitz lagunen artean barreia baledi eta gainera biziki neke da oraingoz, haien arabera, entrabaleko bertutea aski ez duen ofizio batentzat on litezkeen hautagai ainitzen aurkitzea.

Baina arrotz herrietan ere apezek izaiten dute Utopian

bezain estimu handia eta laster ageri da nik uste, nondik heldu den estimu hori. Ezen gerlari-taldeak batailan ari direlarik, apezak bazterretik, ez ordea hain urrun, belauniko emaiten dira apez-jantzitan besoak zerura altxaturik otoitzean. Lehenik eskatzen dute ororentzat bakea, ondotik beren herritarrentzat garaipena, baina nehoentzat ez garaipen odoltsurik. Haien aldekoak nagusitzen baldin badira, apezak lehen lerroetara laster hurbiltzen dira beren lagunak ez uzteko ihesliarren basaki zehatzera. Galtzaileek aski dute haien ikustea eta dei egitea beren bizia salbatzeko, aski ere haien jantzi luze eta laxoak hunkitzea beren beste ontasunak gerlako kalte guzietarik gerizatzeko.

Horra beraz zergatik inguruko herrialde guzietan apezek izaiten duten hain begirune handia eta halako larderia: beren soldadu lagunak ukaldietarik etsaiak zaindu dituzten bezain erraz, gertatu zaie askotan etsaien aztaparretarik beren herritarren ateratzea. Jakina da halako aldi batez, herritarren lerroa puskatua izanez etsitzekoa bazela, soldaduak ihes ari baitziren eta etsaiek sarraskira eta lapurretara lehia baitzuten, noiz eta ere apezak artetik sartu ziren, ehailketa geldiarazi zuten eta bi armadak bereizi ondoan, bake zuzen bat egokitu eta finkatu. Ez da nehoiz aurkitu aski gogor, abere eta basa den herririk, haren apezak ezin hunkiak eta sakratuak direla ez sinesteko.

Hilabeteko eta urteko lehen eguna eta azken eguna dira Utopiako jaiegunak. Ilargiaren itzuliak mugatzen ditu urteko hilabeteak; eguzkiarenak aldiz neurtzen urteak. Hango mintzairan, "Kinemernes" deitzen dituzte lehen egunak; "Trapemernes" berriz azken egunak. Hitz horiek erran nahi dute: "lehen jaiak" eta "azken jaiak".117

Utopiarren elizak guziz ederrak dira eta aipagarriak ez bakarrik beren eraikiduragatik, baina ere -biziki guti baitira- kokatzen duten jendalde izigarriak eskatzen dituen barne handiengatik. Eliz barne horiek bizkitartean aski ilunak dira; ez baitezpada diotenaz, besterik egiten ez dakitelakotz; apezek horrela nahi dutelakotz baizik: argi biziak barreiatzen omen du gogoa, horien arabera. Argi ezti eta ilun aireak aldiz bildutasuna laguntzen eta kartsutasuna emendatzen. Baina ororen debozionea ez baita berdina, nahiz bide desberdinek helburu bera izan dezaketen bezala ainitz debozione-mota desberdinek Jainko izaite berbera ohoratzea duten xede, ez da hango elizetan deus ikusten, ez deus entzuten, debozione guziek salbuespenik gabe onar ez dezaketenik. Zeremonia berezirik baldin badu sinestun-talde batek edo bestek etxe barnean egiten du bere gain. Elizkizun publikoetan ez da aurkitzen zeremoniarik, nehoren sinesteari gaitzi dakiokenik.

Horra beraz zergatik ez den elizetan ikusten, neholako Jainko-itxurarik, bakoitzari zilegi izan dakion bere debozionearen muinaren arabera moldatzea. Ez da ere Jainko izen berezirik aipatzen, "Mitra"rena baizik, honi esker dutelakotz guziek batean Jainko Bakarraren dena delako Jainkotasuna aitortzen. Ez da ere otoitzik egiten, bakoitzak bere sinesteari minik egin gabe erran dezakeenik baizik.

"Azken jai" egunetan arratsari buruz, utopiar guziak elkarrekin elizara hurbiltzen dira barurik, eskerren bihurtzeko Jainkoari, ongi iragan delakotz besta horrek bururatzen duen urtea edo hilabetea. Biharamunean, "Lehen jai"aren goizaldera, elizetan biltzen

dira osteka, besta horrekin irekitzen den hilabete edo urte berria, ona eta zoriontsua izan dadin otoitz egiteko.

Baina "Azken jai" egunetan, elizara joan aintzin, beren etxean emazteak belaunikatzen dira beren senarren oinetan eta haurrak beren burasoen aintzinean; ahuleziaz edo arta eskasez egin hutsak aitortzen dituzte eta huts horien barkamena eskatzen¹¹⁸. Etxeko bakea apur bat nahasi duketen laino arinak barreiatzen dira horrela eta otoitzera badoaz guziak, arima argi eta garbi. Hoben handia da ordea bihotz nahasi batekin sakramenduetara hurbiltzea: norbaitentzat haserrea edo herra bihotzean dutenak beraz ez dira hurbiltzen, ez baldin badute lehenik bakea egin eta beren aihergoa menderatu, beren hobenaren gaztigu garratza jasan behar izaiteko beldurrez.

Elizan sartzean, eskuin aldean jartzen dira gizonak eta emazteak bereiz ezkerreko aldean. Gero lekuak hartzen dira, etxeko aitaren aintzinean etxeko seme eta gizonki guziak jezartzeko gisan eta etxeko ama, etxeko alaba eta emazteki guzien araldea zaintzeko moldean. Eta horrela, etxean larderia eta ordena atxikitzen dutenek berek, beren meneko guzien urrats guziei begia emaiten ahal diete nonnahi. Artan hartzen dute bestalde, gehien bat ezartzeko gazteago bakoitzaren ondoan, amoreagatik eta haurrak haurren kontu utziz, ez dezaten bederen gal, bereziki gain hartakoen larderia ikasten iragan behar luketen denbora: larderia hori baita bertuteen sustagarri nagusia eta ezbaian bakarra.

Utopiarrek ez dute beren sakrifizioetan animaliarik hiltzen, ez baitute sinesten odola eta sarraskia atsegin izan ditzakeela urrikalmenduzko Jainkoak; Honek berak dienaz geroz bizi daitezen, bizidunei emaiten bizia. Intsentsua eta horrelako usain onak erretzen dituzte eta ere zuzi ainitzen eskaintzak egiten:

ez ordea ez dakitelakotz ez diola horrek -gizonaren otoitzak berak baino gehiago- deus ekartzen Jainkoari, baina bai iduritzen zaielakotz ongi dagozkiela eskaintza zuri horiek eta bestalde usain onek, argiek eta beste zeremoniek, gizonen bihotzak ez jakin nola altxatzen dituztela eta kar gehiagorekin Jaunaren ohoratzera erakartzen.

Populua elizan zuriz jantzen da. Apezak aldiz kolore askotako jantziak ditu, itxura ederrekoak eta guziz landuak; baina ez ekai garestikoak. Jantzi hauek ez dira, ez urrez josiak ez harri bitxiz apainduak, baina hain artzeki, hain poliki, xori-luma ainitzez berreginduak non nehongo ekaiaren balioa ez baita lan horrenaren heinera helduko. Bestalde xorien lumetan eta hegaletan, eta hauek apez-jantzien gainean ezarriak diren ordenan, aurkitzen omen dira misteriozko sekretuak. Zeinu hauen irakurketak -apezek artoski begiratuak- gogoratzen dizkie herritarrei, Jainkoak gizonei egin dizkien ongiak, gizonek ordainez Jainkoari zor dioten ikustatea eta guziek elkarren aldera dituzten eginkizunak.

Apeza horrela jantzirik bere barne sailduti popularen aintzina agertu orduko, guziak haren agurtzeko ahuspekatzen dira berehala eta eliza osoaren beteko ixiltasunak, Jainkoa bera hor balitz bezalako ikara sortzen du. Apur bat ahuspez egon ondoan, denak zutitzen dira apezak keinu egitearekin eta gero Jainkoaren laudorioak kantatzen dituzte, gure eskualdeetan hainbat ikusten ez diren itxurako musika-tresnek lagundurik.

Gutartean darabiltzaten tresnek baino biziki soinu atseginagoak emaiten dituzte horietarik gehienek eta batzuekin ez dira gureak parekatzen ahal ere.

Eta honetan bereziki gutarik biziki urrun dabilta dudarik batere gabe, haien musika-mota guziek bai tresnekilakoek bai aho hutsezkoek sentimendu jatorrizkoen itxuratzeko eta adierazteko duten gaitasunean. Sinestunen otoitza izan dadila bozkarioz edo urrikalmenduz, kexuz, doluz edo haserrez josia, hain zuzen aurrintzen dituzte soinuak sentimenduekin, hain ongi uztartzen aireak hitzen zentzu sakonarekin non entzuleen bihotzak baitituzte miresgarriki beretzen, zilatzen eta sutan emaiten.

Azkenean apezak eta populuak elkarrekin errepikatzen dituzte ohizko otoitzak, guziek batean emaiteko eta bakoitzak beretzat hartzeko gisan emanak direnak. Otoitz horietan, munduaren eta beste ontasun guzien sortzaile eta kudeatzailatzat aitortzen da Jainkoa eta bere ongi egin guziez eskerrak bihurtzen zaizkio, bereziki Hari esker munduko herri-elkarte dohatsuenean jaio izanik eta agian erlisione egiazkoenean parte harturik. Sekula erlisione-gai horretan makur ibil baledi eta beste zuzenago bat Jainkoak hobets baleza, hobeago hura bihotz onez ezagutaraz diezaion eskatzen dio Berari: noranahi eraman dezala gerturik baitago jarraitzeko. Baina herri-elkarte mota hori baldin bada hoberena eta erlisione bera zuzenena, Jainkoak orduan eman diezaiola iraupena eta beste gizon guziak erakar ditzala erakunde berekin bizitzera, Jainkoazko iritzi berak onartzera, non ez duen Berak Bere misteriozko xedeetan erlisione desberdinen aberastasun horiez nolazpait atsegin hartzen.

Ororen buru utopiarrek otoitz egiten du, heriotze lasai baten ondotik, berean har dezan Jainkoak eskatuz. Ez da halere menturatzen goiz ala berant izan behar den berak aintzinetik finkatzen. Erran dezagun bizkitartean Jainkoari gaitzitu gabe, biziki nahiago lukeela heriotze gogorrenaren gostuz harenganatu ezenez eta bizitzeko erraztasun nasaien erdian Harenganik luzeegi urrun egon. Otoitzetik landa, guziak berriz ahuspekatzen dira apur bat, gero zutitu eta badoaz mahaira, eta egun-hondarra iragaiten dute jolasten eta soldadu-ariketak egiten.

AZKENA

Ahal bezain zuzen marraztu dizuet nere iduriko ziur, Errepublika onena den eta gehiago oraino Errepublika izena 19 hartzeko eskubidea duen estatu bakarraren itxura. Beste leku guzietan Herriaren onaz beti mintzo direlarik, bakoitzaren interesaz baizik ez dute axolarik. Utopian, aldiz, norberak ez baitu deus bererik, Herriko zerez arduratzen ahal dira funski. Eta han ala hemen seguraski ez zaie bietan arrazoinik falta. Zeren beste herrialdeetan, ez da nehor ez dakienik, ez baldin badu berak beretzat zerbait bereizten, goseak hil behar duela, nahi bezain aberats izanik ere Errepublika. Ezinbestek dituzte, beraz, orduan hertsatzen herritarrek, Herriaren onaz baino, erran nahi baita besteen onaz baino beren buruaz arta gehiago hartzera.

Aitzitik Utopia horretan denak denentzat dira; bakoitzak badaki ongi -Herriko bihitegiak bete diren beretzat duela nehor deusen eskasik izan behar duela. Ez da hor banatze zikoitzik egiten ez behardunik ez eskalerik ikusten eta, nehor ez delarik deusen jabe, herritar guziak aberats dira. Ezen, ba ote da aberastasun handiagorik, gogoia grina guzietatik osoki aske eta bihotza atsedean eta bakez beterik bizitzea baino? Ez duzu zure ogibideaz arrenkuratzerik

ez eta emaztearen zinkurina negartiez kexatzerik ez semearen landertasunaz ikaratzerik, ez alabaren doteaz kezkatzerik baina badakizu ongi, bizipidea eta zoriona segurtatuak dituzula, zuretzat, eta zure etxekoentzat: emazte, seme-alaba, seme-alabaso, arraseme-alabaso, eta hauen ume; aitonon seme batek amets ahala urrun luzaturik ere zure ondokoen saila. Gogoan har ezazu bestalde, gaurdaino lanean ari direnez bezainbat arta hartzen dutela, lehenago lanean ari izanik orai ezinduak daudenez.

Nahi nuke hemen norbait, beste herrien justiziarekin Utopiako zuzentasun horren parekatzera mentura baledi! Demendreneko zuzentasun-kutsurik ez dut aurkitzen haien baitan. Leher egin ezetz! Zer da ote justizia hori? Edozein jaun handiri, zilargin bati, diruzilo bati, hots deus lanik egiten ez duten ziri horietako bati -edo zerbait egiten badute ere, deus guti balio duke Herriarentzat- horri bai segurtatzen zaio bizimolde distirantena eta lasaiena bere alfer-lan eta opor-orduen sari. Baina jornalaria, karrosazaina, arotza, laboraria -hauen lana hain luzea eta hain dorpea delarik, non mandoek ere nekez jasaiten baitute, hain beharrezkoa non hura gabe ez bailezake erresuma-bihi batek urtea iraun- horiek behar dute jan mehe eta miseria gorrian bizi. Badirudi mandoen bizia bera, horienaren aldean hobea dela: ez du hauen lanak hain luzez irauten, ez da hauen jana biziki txarragoa -gozoagoa ere baita animalientzat- eta gainera, ez dute hauek bitartean geroaren arrenkurarik. Langileek, aldiz, ez dute momentuan beren lanean ez abantailik ez gozorik aurkitzen eta bestalde geroari buruz, zahartzaroa miserian iraganen dutelako arrenkurarekin higitu behar dute: beren jornal-apurrak ez baldin badie emaiten beren eguneroko beharrei buru egiteko doirrik, nondik ote utziko die gainera mozkinik beren zahartzaroko behar orduentzat, egunero bazter dezaketarik?

Ez ote da, beraz, zinez makurra eta eskergabea horrelako gizartea, "handikiei", -erraiten den bezalazilarginei eta aizinatuei, lausengariei eta beste horrelako huskeriazaleei, hainbeste fabore eskaintzen dielarik, laborari, ikazkin, jornalari, garraiari eta arotzentzat ordea -hauen lana gabe ez badu ere nehongo herri-elkarteak iraunen- ez baitu deus hoberik asmatzen? Zeren gizarte horrek bere langileak lanez ito baititu indarrean zirelarik; gero adinak eta gaitzak herbailduak eta osoki larrutuak ikusi dituelarik ez da gehiago haien gaubeilez oroitzen, haiek egin hainbeste zerbitzu ahanzen ditu eta azkenean hura den eskergabeak ezinbesteko heriotzea uzten dio sari.

Baina bada besterik: behardunen jornalari ausiki egiten diote aberatsek, ez bakarrik berek atzipe eginez, baina ere herri-legeen bitartez. Eta horrela gaur arte bidegabekeria geneukana, hots sari txarrenak emaita herriko merezidunei, bidegabekeria hori bera justizia bihurtzen da lege bati esker.

Horra zergatik gogoratzen zaizkidalarik eta ikertzen ditudalarik gure begien aintzinean lore duten erresuma horiek, ez dut hor ikusten -ez alafede!- aberatsek, Estatuaren izena eta boterea eskuratuz, beren arteko tratuen errazteko muntatzen duten azpijoko bat baizik: nehongo itzulikak eta jukutriak amesten eta asmatzen dituzte, lehenik bidegabeki bildu dituzten ontasunen gal beldurrik gabe atxikitzeko, gero behardun guzien lan eta nekeak ahal bezain guti ordaintzeko eta haietaz ederki baliatzeko.

Aberatsek behin erabakiz geroz jukutria horiek oro onartu behar direla Herriaren onetan -erran nahi baita, behardunen beren onetan- hori bera aski da lege bihur daitezen.

Eta bizkitartean, ezin asezko gizon-gose, higuingarri horiek, bakoitzari baitezpadakoa segurtatu behar zioten ontasunak beren artean banatu dituztenean, zein urrun diren oraino, Utopiako Errepublikan gozatzen den zorion hartarik! Ezen han diruaren ohitura kenduz geroz itzali ere da osoki diruaren sukarra. Zer zama dorpe aldea ez da horrela itsabasarazi! Zer gaiztakeria uzta harrigarria ez da errotik atera! Nork ez daki alabaina, azpikeria, ohointza, lapurketa, aharrak, nahasmenduak, zalapartak, jazargoak, erailketak, saldukeriak, pozoindatzeak eta egunerotako gaztiguek mendekatzen bai, baina eragozten ez dituzten izigarrikeria guziak geldi litezkeela dirurik ez balitz? Diruarekin batean suntsi litezke ere bestalde beldurra, arrenkurak, grinak, nekeak eta gaubeilak. Gabezia bera azkenean -diru-beharretan den bakarra orobat- beheiti abia liteke berehala osoki ken baledi dirua.

Iritzi horren finkatzeko, asma dezagun urte bat agorra eta antzua, goseak hilak milaka eraman dituen: nik erraiten dut batere zalantzarik gabe, gabeziaren azken buruan aberatsen bihitegiak husten badira, aurkituren dela hor hainbeste janari non izurriteak edo goseteak eraman dituenen artean banatu balira, nehorik ez baitzuen zeru-lurren zuhurreriaz arrenkuratzerik izanen. Hain erraz liteke bizibidearen aurkitzea, bizibidearen bidea egiteko asmatu omen zen diru dohatsu horrek ez baleza berak bizibidearen bidea hets!

Aberatsak ere aburu bereko direla ongi badakit: berek ikusten

dute askoz hobe litekeela baitezpadako deusek ez huts egitea ezenez behargabekoz gaindi isuria ukaitea eta gaitz ainitzetarik askatzea ere hobe ezenez aberastasunen erdian itotzea.

Nik egia erran ez dut zalantzarik, Errepublika horretako legeak onartzera erakarri behar zuten aspaldian eta errazki mundu guzia, bai norberaren interesak bai Kristoren irakaspenak -onena zer den badaki Jaunaren zuhurtziak eta haren bihotz onak ez dezake gomenda hoberen hori baizik- kontra ez balitz jazarri gaitz-mota guzien aita eta aintzindaria den mamu izigarri bakarra, hots harrokeria.¹²⁰ Honek ez du aurrerapidea neurtzen berak duen onaren, baina bai besteek ez duten onaren arabera. Bera Jainko izaitea ere ez lezake onets, ez balu orduan nehor behartsurik manatzeko eta iraintzeko. Horren zorionak ez du argitzen besteen zorigaitzaren erdian baizik, bere aberastasunen agertzeaz lazten eta garrazten baitu haien miseria. Hori da bihotzetan sartzen den ifernuko sugea; bide hobearen hartzera ez uzteko, "erremorak"¹²¹ bezala gizonak gelditzen eta gibelatzen ditu eta barneegi kokatua dutelakotz nekez dute kentzen ahal.

Atsegin dut beraz ikustea, munduko herrialde guzientzat zinez nahi nukeen politika-elkarte itxura, utopiarrek bederen hartu dutela; haien Errepublika finkatu zuten bizitzeko ohiturei jarraikiz segurtatu baitote batean, ez bakarrik zoriona baina ere gizonak asma dezakeen neurrian sekulako iraupena. Alabaina, alderdikeria, handi-nahia eta beste aztura txarrak errotik ateratzen baldin badira herri barnean, ez da gehiago beren harresien giblean gerizaturik zeuden hainbeste herriren aberastasunak hondatu dituzten barne-liskar haiek bezalakoen pairatzeko arriskurik.

Eta barneko bihotz batasunak eta erakunde sendoek iraunen duteno, auzoko printzeen bekaizgoak -lehen aski usu agertu nahi izanagatik beti iraitzi dutenak- ez du Herriaren indarra ez inarrosiko ez menderatuko. Rafaellek bere hitzaldia bururatu orduko, galde-andana bat etorri zitzaidan gogora: beihalako Herri hartako lege eta ohitura askok kanorerik ez zuela iduritzen zitzaidan; ez bakarrik hango gerla-moldeak, haien elizkizunak, haien erlisioneak eta beste erakunde-mota frango, baina oroz gainetik erakunde horien guzien oinarri nagusia den elkarrekilako bizimoldea eta diru-traturik batere gabeko bizibide guzien batean ezartzea; horrek berak baitu alabaina, herri-iritziaren arabera edozein Estaturen edergailua eta apaindura egiazkoa egiten duen noblezia, loria, distira eta larderia guzia errausten.

Bainekien bizkitartean hitz egiteaz nekatua zela; ez bainintzen ere fida besteak haren iritzi bereko ez izaitea jasaiten ahalko zuela, eta bereziki gogoan bainuen lagun zenbait gaizkitu zituela besteen berrikeria batzuk ez baldin bazituzten apur bat zuzentzen, ez aski zuhur agertzeko beldur izan zirelaketz; hots horien guziengatik, hitzaldiaren eta orobat delako erakundeen laudorioa egin ondoan eskutik hartu nuen gure hizlaria eta jateko salara eraman. Aintzinetik errana nuen ordeak, beste aldarte bat aurkituko ahal genuela sakonkiago gogoetatzeko eta luzakiago elkarrizketatzeko harekin. Ai, egun hori nolazpait etor baledi!

Anartean ez ditut ez neholaz gizon haren erran guziak ontzat emaiten ahal, nahiz eskoletan asko ikasi eta gizartean asko ikusi duen jakintsuaren adierazgarri ukaezinak diren. Baina aitortzen dut errazki utopiarren Errepublikako ohitura frango nahi ditudala ikusi gure Herrietan sartzen; nahi bai egiazki baina sartuko direnik ez sinesten.

BIGARREN LIBURUAREN BURURAPENA
BAKAR BATZUEK ORAI ARTE EZAGUTZEN
ZUTEN UTOPIA DEITU UHARTEKO LEGEEZ ETA
ERAKUNDEEZ, RAFAEL HITLODEOK
ARRATSALDE BATEZ EMAN ZUEN
HITZALDIAREN BURURAPENA TOMAS MORO,
GIZON TXIT EZAGUNAK ETA TXIT
JAKINTSUAK, LONDRES HIRIKO HERRITAR
ETA BIZKONDEAK IDATZIA.
BURURAPENA.